






ARKOTXATARRAK

EUSKAL ANTZERKIAN

ARKOTXARRAK

Euskal

Antzerkian

ARGITARAPENAK



Euskadiko
XI. Euskal
Antzerki
Topaketak
Azpeitian



Argitaratze urtea: 1993

Argitaratze honen zuzendaritza:



Legezko gordailua: SS-873/93

Gure antzerkiari

GAIN-GAIÑEKO BEGIRAKADA BAT

Euskal antzertian erri-mailan gabiltz.

Eta komeni ere bai orrela ibiltzea.

Bear ba da antzerkigintza da ostoporik geien daukana, sail orreri bere indarra emoteko bear dauan tokian lekutu al izateko.

Bertsolaritzak ateak zabal daukaz.

Erri-euskeraren indarra?

Baiña antzerkigintzan egin diran alegiñak, makal gelditzen dira. Eskerrak "Antzerti" eta Azpeiti'ko urteroko topaketen eragiñari, argi bitarte bat erakusten dabela.

Gure antzerkigintzak nekez ordainduko dau, eta batez ere azpeitiarrei, euren alegiñei pozaldi bat eta kemena sartu, ia bakartadean darabillan bere jokaldian.

Itxaropen aize lez ikastoletako lana aurrera duala esan lei.

Urteak dira ikastola batzuk antzerkigintzari tokia eta arnasa emoten dautsela euren barrutietan.

Orrela Araba'n 8 errietan 13 ikastola dira urtero ekitaldi batzu egin dituenak.

Txalogarri dira Agurain, Amurrio, Bastida, Gasteiz, Lantziego, La Puebla de Labarka eta Laudio'ko erriak orretan.

Gipuzkoa'n 38 errietan, 68 ikastoletan.

Orretan ari dira Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate (bost ikastola) Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Belauntza, Berrobi, Deba, Donosti (zortzi ikastola), Eibar, Elgoibar, Errenderi, Eskoritza, Gabiri, Getaria, Hernani, Ibarra, Ikaztegieta, Irun, Lasarte-Oria, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Mendaro, Oñati, Ordizia (lau ikastola), Pasaia, Tolosa, Urnieta, Usurbil, Zaldibia, Zarautz, Zegama, Zestoa, Zizurkil eta Zumaia'koak.

Eta Bizkaia'n 31 errietan, 46 ikastoletan.

Aipatzeko Areatza, Aulesti, Basauri, Bermeo, Berriz, Bilbo (9 ikastola), Busturi, Durango, Ereño, Ermua, Galdakao, Gernika (5 ikastola), Getxo, Iurreta, Lekeitio, Lezama, Loiu, Mallabia, Mañaria, Mundaka, Muskiz, Muxika, Ondarroa, Orozko, Ortuella, Sodupe, Sondika, Sopuerta, Urduña, Usansolo, Zaratamo eta Zornotzakoak.

Eta ezin bastertu Naparroa. Ba dira bertan bost-sei erri, beste ainbeste ikastoletan.

Ez dogu aaztu nai Iparralde, ango alegiñak gero ta biziago datozaiako.

Jakiña, oneitako lanak eta gaiak umeentzakoak dira eta geienetan ikastoletako irakasle berberak gertu, moidatu edo ta egokituak, ipuin, aseie, amets eta kontu zarretan gaituta.

Bere aldetik Jaurilaritza, Hezkuntza sailletik, ikastola mailla alegintzen da ikasle txikien antzerki oneik, liburu marduletan argitaratzen.

Baiña eta nagusien lanak?

Edo ta antzerki egille ikasien lanak?

LAIÑO ETA IZAR

Onetan utsune andi bat igartzen dala esan bear.

Antzerkiak, aztertu ezik, ez dauka eragiñik, ez pozik, ez eta bear-bearrezko dan kritikarik egillearentzat.

Noiz-beinka gertatzen dira antzerki idatzien sariketa batzuk idazleentzat. Epaikariak zela-ala irakurri ta saritu edo ez, or galtzen dira lanik geienak eskutuan.

Jakiña da euskal liburua gutxi saltzen dala eta antzerki-lan ba da, oraindik irakurle gutxiago daukala.

Orrek antzerki idazleak Kijote biurtzen ditu. Ameslari batzuk euskal antzerkiaren gau illunean eta urdurian amesetan diarduenak.

Garratz egiten da esatea, baiña egi gordiña da.

Orretan ezagutu izan dot nire burua sarri. Orretan Imanol Elias, azpeitiar adiskidea. Orretan Arkotxa Martija anaiak. Len Jose Antonio, orain Jesus. Eta beste ugari.

ARKOTXA ANAIK

Joxe Antonio Arkotxa euskal idazle trebea da, bai eta antzezleri jator, yayo, irudi, eta irudimen andiko. "Gerra aurrekoa" esango nuke nik. Batzokietan ikasia, berezko eskolan. Or dago koxka. Erri-min igarri eta nabaitzen asi eta gero bere min orreri bizia emoten ekin eta jardun.

Ondarrutarrok ba dakigu bere gaitasuna, "Kresaletan" en bezala "Jaunaren Bideetan" eta abarretan, antzezleri bezala jarduten. Ondarrutar "Kresala" taldearen gogo eta biotz izana dalako, Mutriku' n jaio ta mutrikuar jarraituarren, Ondarroa' n bizi ta erriari lan eragiteko aurreneko izan zanean.

Bere lanen artean or dago "Gabon-gabontzeta" eguerrien euskal bizikera zeatz eta jatortasunez bizi eragiten dakiana. Kantu eta oitura, kristautasun eta euskal senez egiña.

Or baita

"Josan".

"Joxemaritarrak".

"Patxikillo eta Pantxike"

"Porteraren semea".

"Nork nori ziria sartu",

"Lenizko aiaba",

"San Piñastei eguna"

"Arantzazuko Anai Patxi".

Ez al dira geiegi komoda zarrean bezala, noiz beinka zabaltzen dan gaztaiñazko kutxan gordeta eukiteko?

Eta bere abizenari eta familiari eta erriari ospea ioditzen, or dogu bere anai Jesus, Motriku'n pentsatzen Eibar'en bizi dana.

Ba ete dauka onek antzerkirik, Arno azpiko itxas-erri orretan burutu, berotu eta oiñarritu, aizetu eta paperetan irarri ez dauanik.

Antzerki idaz-sariketetan epai maiko gertatu naizenetan, alperrik Argentina'ko zilluz itxuratuta bialdu, zabaldu eta lenengo lerroetan igarten neban: emen dago "Atxukaie" ren anaia. Berezko itxastar gatz eta mutrikuar kera erakutsi bear. Nai ta ez, berezkotasunak ukondoa ere lanean ipinten ditulako.

Ara bere lanen zerrenda bat"

"Aurrerapen kakoa:

"Bai, horrela da"

"Barilotzeko euskal abarrak"

"Betirarte"

"Brokel jauna"

"Deitura baten amaiera"

"Europarako bidea"

"Gaixo billa"

"Gudarien eskutitza"

"Herriak bear ditu"

"Irumilla garren urtean" (3.000 garren urtean)

"Itxasne"

"Legeen legea"

"Markesaren semea"

"Turroi potoa"

"Uzta ugari da"

"Zaharrak finak"

Lan onein artean ia ogei ezagutzen ba dira ere, ziur nago oraingo omenaldiaren garrean ia ori izate edo egite bihurtuko daia.

Bere lan baten deitura erabiliaz, nik esango neuke beretzat "legearen legea" daia ori.

AMAREN OROITZA ETA ABAR

Bai Joxe Antonio eta bai Jesus Motriku´ko arrantzaieen "kofraxako eskoian" ikasiak dira. Eta ortik gora, euren aiegiñetan.

Baiña biak "Amaren eskolari" oroitzapen andi eta berezia emoten dakie.

Ama, Karmen Martija, Donostin neskame egon zanean, liburutegi eder eta ugariaren jaube zan etxean egon ei zan eta etxekoandre ikasi baten arduretan. Etxekoandre on arek "klasikoak" eta abar irakurri eta aztertu eta komentatu eragiten ei eutsazan. Bai eta euskal erdal antzerki jaietara eraman eta gero ango maxiaketa etxean bien artean egin.

Ortik eskolatze aiegintsu eta bereziago bat amak, gero semeei irarri.


Joxe Antoni 1.911´ko Martxoaren 29´an jaio zan.

Jesus 1.921 ´ko Martxoaren 4´an.

Orra labor eta zeatz, euren azai-azaieko fitxa.

Zorionak bie, merezitako omenaldi jaietan.

ZUBIKARAI tar Augustin



JOSE ANTONIO ARKOTXA

JOSAN

ANTZEZLAGUNAK

Josan	30 urte inguru
Itxasne	25 urte inguru
Txanton	25 urte inguru
Madalen	60 urte inguru
Bobix	60 urte inguru
Bustingorri	60 urte inguru
Piti	20 urte inguru
Mini	40 urte inguru
Mr. Amith	27 urte inguru
Ertzaiña	60 urte inguru

Antzeztokia:

Jatetxe apain baten atarian aurkezten du antzeztokiak. Ezker-eskuin, zuaitz likidoteak dirala eta aien artean ibil-bidea. Atzean, jatetxerako atea. Erdian, or emen, iru-lau mai ta auen inguruan aulkiak.

Garaia: Oraingoa.

Jantziak: Lenengo ekitaldian euskal-jaietan erabili oi diran euskal jantziak.

LENENGO EKITALDIA

- | -

Itxasne bakarrik, gero Josan

Antzez-oiala irikitzean, Itxasne, arrantzale emakumeen jantzi urdñiez, lepo-zapiz eta paparrean lora bat duela, jatetxeko serbitzaritza, esku-trapuz mai ta alkiak garbitzen. Une artan, an inguruan pelota-toki bat balitz bezela, an jotzen diran txalo zaparrada ugariak entzun bitez, noizik beinka.

Orrela pixkatean euki ondoren, amabi kanpai dangada luzeak entzungo dira. Lenengoa entzunaz batera, pelota tokian ixiltasuna ta beriala, abots batek "Angelus" errezatuko du guziak erantzunaz.

Itxasne, lenengo kanpai dangadaz batera, ezker alderatu. Aitaren egin, eta frontoira begira dala, "Santa Maria" k errazatuaz dala Josan agertu bedi eskui aldetik eta an dala berekiko Santa Mariak errezatuko ditu ta, jakña Angelus erantzunak.

(Oarra: pelota tokiko txaloak, kanpai-dangada ta Anjelus´a manetofono bidez jasota izan ezker egi-antza aundia eman lezaioke gertakizun oni, ta merezi duala iruditzen zaigu).

Anjelus errezatu ondoren.

Josan.- Arratsalde on, Itxasne.

Itxasne.- Baita zuri ere, Josan. (Urreratuaz) Ez naiz konturatu noiz etorri zeran.

Josan.- Ez da arritzekoa, beste aldera begira zeunden-da.

Itxasne.- Pelota tokira begira. Amabietako kanpaiak izan diranean bertako jendea Anjelus errezatzen asi da ta ni ere bai.

Josan.- Oso ondo, Itxasne. Konturatu naiz. Euskalerrriak oitura onik badu, ori du bat. Nik uste, Euskalerritik kanpo ez dala beste iñun, ez dala orrelako oiturarik.

Itxasne.- Beste batzueri ere entzun izan diet ori.

Josan.- Izan ere pelota tokia jendez beterik dala, pelotariak jokatzeari utzi ta guziak zutik dirala, Anjelus errezatzea, ori Euskalerrrian beste iñun ez da ikusten.

Itxasne.- Ondo oitura zerutarra beintzat.

Josan.- Bai orixe. Sekula ez luke galdu bear oitura eder orrek.

Itxasne.- (Pozez Josan'ek daraman euskal jantziari begira) Jakin dezu orratik egunari berea ematen.

Josan.- (Pozez) Bai?

Itxasne.- Oso jantzi polita aukeratu dezu.

Josan.- Orrela uste al dezu?

Itxasne.- Bai, bai. Euskaldun jator-jatorra zaude oraintxe.

Josan.- Ez dakit, ba; ez dakit.

Itxasne.- Bai, Josan; jator-jatorra gainera.

Josan.- (Itun) Ez, Itxasne; ez da egia ori. Azaletik esan didazu. Ondo dakizu zuk, eta nik ere bai. Ez naiz euskaldun jatorra. Ezin izan ninteke, gaiñera. Ori da nere zoritxarra.

Itxasne.- Josan! Etzaitez orreal jarri. Etzaitez naigabetu.

Josan.- Biotz-gabea naizela uste al dezu? Biotz-gabea? Euskalduna naiz, zuk bezain ondo erabiltzen ez padet ere. Euskal-lur maitea ere bai, emengo izatea biotz biotzez maite dedalako; baiñan...

Itxasne.- Nork esan dizu orrelakorik? Nork ukatu?

Josan.- Ez, ez didazu ezer esan. Itzez, ez didazu ezer ukatu ere. Egitez, orda...

Itxasne.- Mesedez... (Sorbalda ematen dio, musu-zapia bero begietara eramanaz).

Josan.- ... nik geien nai detana ukatzen didazu: nere emazte izatea. Emen dago nere zoritxarra. Zuk euskotarra izatea nai dezu zure senarra. Ni, berriz, "mantxurrianoa" naiz. Gutierrez bat.

Eta, jakiña, Gutierrez odoleko aurren ama izaterik ez dezu nai.

(Jatetxeko atearen kurrinka entzuten da)

Itxasne.- (Apegi emanez) Bustingorri dator. Zer artu nai duzu?

Josan.- Bermut txiki bat ekarri eidazu.

Itxasne.- Bustia ala legorra?

Josan.- Bustia.

Itxasne.- Ondo da. (Joatea dijoala)

- II -

Lengoak eta Bustingorri

Busting.- (Jatetxeko atetik agertuaz, Itxasne-ri) Zer eskatu du?

Itxasne.- Bermut busti bat.

Busting.- Ekarri itzazu orduan, irurontzat. Euskal-eguna degu gaur eta neronek gonbidatzen zaituet.

Itxasne.- Beriala.

- III -

Josan eta Bustingorri

Busting.- (Josan dagoen mai ondora urreratuz). Triste arkitzen zaitut. Eta Itxasne ere ez ain alai. Barkatu nere galdera, baiñan, zerbait izan al dezute?

Josan.- Ez, ez degu ezer izan.

Busting.- Ala ere, zerbait izan dezutela uste nuan. Eta zerbait izan ezkerro, ba-dakizute... lagun onak, nun-nai eta nola nai ez dira arkitzen da...

Josan.- Ez, ez, ez degu ezer izan. Baiñan orra! lagun on zaitudalako esango dizut nere barneko ixillikakoa.

Busting.- (Pozez) Bai, bai, bota! Kezka gabe bota ere.

Josan.- Mesede bat eskatu nai dizut.

Busting.- Nik egin al dezakedana bada, a dakizu, poz-pozik egingo dizut.

Josan.- Eskerrik asko. Baiñan, ona, ez dakit nundik asi ere. Ara ...! itxasne nere emazte egin nai nuke.

- Busting.- Oso ondo egingo duzu. Berebiziko emakumea dezu ltxasne.
- Josan.- Bai, ba-dakit. Aspalditik nabilzu bere ondoren. Eta berak ere maite nauala uste det.
- Busting.- Orduan, nik egin bearreko ezere ez daukazute. Elizan testigutzarako bear ezpanauzute, beintzat.
- Josan.- Bai, Bustingorri; zure laguntzaren bear arkitzen naiz.
- Busting.- Nere laguntza bear? Elkar maite izatea aski dezute. Diruz ondo zaude ta etxetxo baten jabe egin eziñik ez daukazute.
- Josan.- Ez da ortik. Ori degu gutxiengo.
- Busting.- Zer degu orduan, ba?
- Josan.- (Itun) ltxasne, ltxasne da.
- Busting.- Zer besterik izatea nai dezu? ltxasne, ltxasne izan bear du. Betiko legea degu ori.
- Josan.- Ez didazu ulertu. Esan nai nizun, alegia, ltxasne oso euskotarra dala. Eta izate ori dala bide, antzeratu egiten duala nere emazte izatera.
- Busting.- Orrenbesteraño?
- Josan.- Bai. Eta etxean ere atzerapena ematen diotela nik uste det.
- Busting.- Arritzen naiz!
- Josan.- Ez da arritzekoa. Ni ez nau arritzen beñipein. Erdalerritik onera etorri deranak, ondo dakigu zer gertatzen dan. Amaika desprezio artutakoa naiz ni nerau ere. Erri txikietan batez ere.
- Busting.- Ba dakizu erri txikitan zer gertatzen dan.
- Josan.- Bai orixe.
- Busting.- Ez jakintasuna geien bat.
- Josan.- ltxasne´ren gurasoak ezagutzen al dituzu?
- Busting.- Ezagutuko ez ditut, ba? Oso etxeko dira gurean. Bobix eta Madalen? Bai orixe. Geiagoko ezpadira ala ere.
- Josan.- Poztutzen naiz.
- Busting.- ltxasne´ren anaia, zer esanik ez, berriz.
- Josan.- (Arriturik) Anaia esan al dezu?
- Busting.- Bai, anaia: Txanton. (Pelota tokira erakutsiaz) Ara... An ikusten dezun pelotari ura, orain ateratzen ari dena, uraxe dezu ltxasne´ren anaia.
- Busting.- (Esandakoa argiagotu naiez) Anaia edo anaitzakoa bai, beñipein. ltxasneren ama, bigarren ezkonduakoa da. Eta bigarren ezkondu zanean, Bobix´ekin ezkondu zanean, Bobix ere alarguna zan. Eta bakoitzak aur bana zuten ordurakoa. Batek, ltxasne eta besteak Txanton, or pelotan ari dan ori.

- Josan.- Anaia ez da orduan.
- Busting.- Ez, odolezko anaia ez, beintzat.
- Josan.- (Kezkatsu) Itxasne´ren neretzako atzerapena, ori dala bide ez ote da?
- Busting.- Zer diozu? Txantongaitik?
- Josan.- Nork daki? Anaia ezpadu!
- Busting.- Ez, gizona, ez. Oien artean ezin egon diteke zuk uste dezun maitasunik.
- Josan.- Ez dakit, ez dakit.
- Busting.- Ken itzazu orrelako burutapenak. Madalen eta Bobix ezkondu ziranean aurtxikiak ziran, eta anai-arreba maitasunik besterik ez dute oiek ezagutu.
- Josan.- Ezetz uste al dezu?
- Busting.- Uste izango ez det, ba? (Aldaturik) Itxasneren gurasoei zerbait esatea nai al dezu?
- Josan.- Geiagoko nere ezaguerarik eman gabe?
- Busting.- Aski da nik ondo ezagutu ta nere adiskidea zerala esatea.
- Josan.- Ez, ez. Ori baiño, beraiek, beren bidez, ni ezagutzea obe izango da.
- Busting.- Zuri mesede egite arren esan det ori. Baiñan, zuk orreia naiago ba dezu. Nere aldetik ez dago eragozpenik.
- Josan.- Eskerrik asko. Mesede bat egin al ba nieke, uraxe izango litzake biderik egokiena.
- Busting.- Ez da, ez bide txarra ori. Artuak, emana zabore-zekian esaten nere ama zanak. Eta beste esaera au esaten ere ba zekian-Oiartzun, dakarren monediaz erantzun- Au da: mesedea ordaiña, Itxasne izango litzakela.
- Josan.- Nere mesedearen ordaiña, Itxasne izango litzakela.
- Busting.- Ez litzake beste munduko gauza izango.
- Josan.- Eta nundik asi mesede egiten? Korapillo gogorra or dago. (Bide bat arkitu ba lu bezela). Txanton ori, pelotari profesionala al degu?
- Busting.- Ez, amateurretan Txapelduna degun arren, profesionaletan ez da jokatzeko asi.
- Josan.- Zailla izango al litzaioke pasatzea?
- Busting.- Ez ain zailla ere. Amaika ba dabiltz profesionaletan Txanton baiño gutxiago diranak. Frontoi baterako kontratu on bat egin ezkerro, geiñerantzekoa berak egingo luke, osasuna duala.
- Josan.- Eta gurasoak nai izango luteke kontratu ori egitea?

- Busting.- Nai izango ez dute ba? Bobix'ek ez luke besterik bear! Bere galtzetan kabitu eziñik dabil dagoaneko eta.
- Josan.- Gernika'koa ta Miami 'ko intendenteak ezagutzen ditut, eta...
- Busting.- Ezer ez, ezer ez? Egiña dago guzia. Txanton'i iristin ba dizou, Itxasne zurea dezu. Neuk ematen dizut itza.
- Josan.- Bai?
- Busting.- Bai, bai. Egon ardura gabe.
- Josan.- Ez didazu poztasun makala ematen! Asi egin bearko naiz. Merezi duela uste det.
- Busting.- Bai, bai, bai. Asi biidurrik gabe. Ez dezu ori baiño bide egokiagorik arkituko.
- Josan.- Ez nuke, gero nai, iñork jakitzerik, e?
- Busting.- Ez, ez. Ez du iñork jakingo nere aldetik.
- Josan.- Ba-dakizu, ustek ustel irtetzea ere gerta ditekena da.
- Busting.- Ori, ba, ori.
- Josan.- Bera dator. Ixildu galtezen.

- IV -

Lengoak eta Itxasne

- Itxasne.- (Bandeja batean eskatutako edariak dakarzki ta maira zuzenduko da artean uzten dituala).
- Busting.- Ba zatoz emakumea (Txantxetan) Uste nuan ala ere Bermutak egiten zuendela.
- Itxasne.- Orra ba! Jende aundia sartu zaigu goiko komedorea, ta ezin ba guzioei batera zerbitu.
- Josan.- Naikoa egin du goikoai ere serbitzen aritu bada. Guzioi batera nola serbituko digu ba? Arrazoi du Itxasnek.
- Busting.- Eta nik ez? Ai, ai, ail Etxeko nagusia azkenengo. Ez degu asko balio. Baiña, tiral naigabeak aztutzeko edan dezagun. (Birentzat bakarrik ekarri duala konturaturik) Eta zuretzakoa? Zergatik ez dezu ekarri?
- Itxasne.- Beste egun batean edango det.
- Busting.- (Josan'i) Au da, au , emakumea! Zergatik ez duala ekarri uste duzu?
- Josan.- Ez dakit ba. Ez det uste gure aurrean edaten lotsatu egiten dalako izango danik.

- Busting.- Ez, ez, ez; ez da orregaitik. Bere buruari bermut pixka bat opa ez dioiaiko da. Onelakoxea dezu au: piñegia. Ez du suerte txarra egingo au artzen duan gizonak.
- Itxasne.- (Erdi lotsaz) Tira, tira! Iñor lotsatuarazi gabe.
- Busting.- Obe da au soñean, soñekoakin bakarrik artu, beste asko urrez betea baño.
- Josan.- Arrazoi dezu. Baiñan onek beronek ere ba-daki ori ondo asko jakin ere.
- Itxasne.- Biok biota, neri illea artzen asi al zerate? Ez dezute ez egarri aundirik.
- Busting.- Egia. Ia, Josan (basoa jasoaz) Topa!
- Josan.- (Berdin egiñan) Topa!
- Busting.- Txanton munduko pelotaririk onena izan dedin.
- Josan.- Txanton munduko pelotaririk onena laixter izan dedin. (Edaten dute)
- Itxasne.- Eskerrik asko. Jainkoak nai dakiola.
- Busting.- Laister degu Mexiko aldean ori.
- Josan.- Nik jokatzten ikusi baño len?
- Busting.- Ikusi nai ba dezu, era obeagorik ez dezu arkituko oraintxe baño.
- (Frontoiko txalo zaparrada entzun bedi)
- Baiño, pixkor ibilli oraintxe, bestela Miami aldean ikasi bearko dezu urrengo.
- Josan.- Banoa orduan. Miami aldera joaterik ez det izango ta. (Joanaz) Geroarte.
- Busting.- Geroarte.
- Josan.- Agur, gero arte, Itxasne.
- Itxasne.- Agur.

- V -

Bustingorri ta Itxasne

- Busting.- Ori da mutilla, ori! Geok bezain ondo erabiltzen du orrek euskera.
- Itxasne.- Besteak ere ikasko luteke, orrek egin duana egin ezkerro.
- Busting.- Bai, orrelaxe degu ori ere, baiña...
- Itxasne.- Gogoa palta. Eta bizi diran lur oni, maitasun gutxi ere bai.

- Busting.- Maitasun kontu ontan, gu geok erre errua ba-degula nik uste.
- Itxasne.- Errua guk?
- Busting.- Bai, Itxasne; erre aungia, gañera.
- Itxasne.- Ez dakit nik zeren errua.
- Busting.- Zer egiten degu erdalerritik etortzen diran oien alde? Zer, oiek, gure izkuntza, oiturak eta degun izatea maitatu ditzaten? Anai bezela artu bearrean arraza despreziatu bat bezela ez al ditugu artu askotan? Mantxurriano, Koreano, Maketo Belarri motz eta ez dakit zenbat oneiako izenez al ditugu ezagutzen?
- Itxasne.- Gure etsaiak izan oi dira geienetan.
- Busting.- Ez jakinez ordea. Gure sentipenak ez dituztelako ezagutzen.
- Itxasne.- Etzazu uste.
- Busting.- Amaika ba ditugu gu bezain Euskalerrri maitaleak diranak. Orra or bat, guzien eredu: Josan.
- Itxasne.- Josan, ordea, Josan degu.
- Busting.- Orixe bai. Geon-geona degu, Josan. Baiña, ala ere, ez dute batzuek ondo ikusten erdal abizena daramalako. Nik, ba, bat artzekotan, Josan lenago artuko nuke; euskal arrazako "Ye-ye" bai baiño. Abizen edo arraza kontu ori gañera, aspaldiko kontua degu, arrokeriak sortutakoa. Gaur egunean, gizonok gizon gera, naiz beltzak, oriak edo zuriak izan. Adan eta Eba'gandik sortutako anai-arrebak.
- Itxasne.- Dotriñak orrela esaten digu. Baiña ... orixe dago ba.
- Busting.- Orixe dago bai: arrokeriak gure artean sortu duankonplejua.
- Itxasne.- Zerbait esan al dizu Josan'ek?
- Busting.- Eta ez aldizu zuri bein baño geiagotan ori esan?
- Itxasne.- Bai, baiñan...
- Busting.- Ai, Itxasne, Itxasne! Josan'ek bere emazte egin nai zaitu; eta zu, konplejo parregarri ori dala bide, igezka zabiltz.
- Itxasne.- Igesi egiten ba-diot ere, ez da neregaitik bakarrik. Neregaitik bakarrik balitz ez nuke nere barrengo burruka au izango.
- Busting.- Maite al dezu?
- Itxasne.- Bai, maite det, Baiña, ba-dakizu gurean nola pentsatzen duten.
- Busting.- Ez luke orrela izan bear.
- Itxasne.- Ez luke orrela izan bear, baiñan... zoritzarrez, orrela da. Nere ama izango litzake txarrena.
- Busting.- Ez al du, ba, nai zure zorionik? Gizon zintzo bat dezu, Josan.

- Itxasne.- Bai, ba-dakit. Nik merezi baiño ohea.
- Busting.- (Eskui aldera begira) Ixo! Bera dator.
- Itxasne.- Nor?
- Busting.- Zure ama.
- Itxasne.- Nere ama?
- Busting.- Bai, zure ama.
- Itxasne.- Zer ote du? Okerren bat? (Bidea irtenaz) Zer dezu, ama?

- VI -

Lengoak eta Madalen

- Madalen.- (Eskui aldetik agertuko da, euskal jantzi apañez eta pardeltxoak erropak dakarzkiala) Ezer ez, neska. Zer izatea nai den?
- Itxasne.- Uste nuen ala ere, okerren bat genduala etxean.
- Madalen.- Ez, neska, ez. Ez diñagu bear orrelakorik.
- Itxasne.- Orduan, zer ekarri zaitu onera?
- Madalen.- Txanton´en jantzi auk. Onera etortzekoa den dutxa artzea.
- Busting.- Bai, asmo ortan zan.
- Madalen.- Jokoa bukatu zutela uste nuan, onezkero.
- Busting.- Ez, eztute bukatu. Ta txaloak adierazten dutenez, joko ederren bat egiten ari da.
- Itxasne.- Bai, ama.
- Madalen.- Gizajoa! Onezkero ler-egin da. Guztiz bearreko opizioa da ori ere.
- Busting.- Ez dezu ori esango Mexiko aldera eramaten dudanean
- Madalen.- Mexiko aldera? Noiz izango ote da egun ori.
- Busting.- Zuk uste baño len.
- Madalen.- Egia esan, ez nau geiegi poztutzen.
- Busting.- Bai, au, ordea.
- Itxasne.- Zergatik?
- Busting.- Bein baiño geiagotan Txanton´ek aitortu dualako. Bera pelotari izatera eltzen ba´da, zuri esker izango dala.
- Madalen.- Ori esan badu, eztu gezurrik esan. Auek diran baiño elkar-maiteagorik, ezta errex arkitzen.
- Busting.- Orduan, gezurtatu egin bear ote naiz?

- Madalen.- Zergatik diozu ori?
- Busting.- Ez dakit, ba, ez dakit. Orren elkar-maite ba' dira, zerbait geiago ez ote duten.
- Madalen.- Ez litzake arritzekoa izango.
- Itxasne.- (Ontziak bandejan dituala ta badijoala) Ama... (Barnera joaten)
- Madalen.- Bai, neska bai. Ixilduko naiz. Ez dakit oraingo gazteak zer diran. Jainkoak bakarrik dakian errietatik etorritako motzalle guziakin bat egingo lukete. Eta zerbait esaten ba diegu arpegi txarra jarriko dizue.

- VII -

Madalen eta Bustingorri

- Busting.- Izan ere, guziak ez dira motzalleak; naiz ta erbestetik etorri.
- Madalen.- Ez ba dira ere, guzia ez dute palta.
- Busting.- Begi txarrez jotzen dituzu.
- Madalen.- Eta nork du errua ortan? "Hable usted en cristiano, eta hable usted cristiano", zergatik botatzen digute arpegira euskeraz ari garenean. Nungo erri-aldean ikusten da ori?
- Busting.- Tiral Arrazoi pixkat ba dezu omen.
- Madalen.- Izango ez det ba? Mundu guzian dira euskaldunak. Eta bat ez da izan angotarra "Hable usted en cristiano bota dionik, angongo era erabiltzean. Zergatik ez dute oiek ere ori egin bear?
- Busting.- Orrelaxe degu ori ere. Baiña, nik beste galderatxo bat egingo nizuke.
- Madalen.- Egín zadazu orduan.
- Busting.- Oietako batek euskera ikasiko ba lu, begi onez ikusiko al zenduke?
- Madalen.- Bai orixe. Nere errezeptoa izango luke.
- Busting.- Nik egia esan, ezagutzen det oietako bat, euskera guk bezin ondo erabiltzen duana.
- Madalen.- Gure Itxasne' ren ondok dabilen ori?
- Busting.- Bai, ori bera. Ondo mutil jatorra da gañera.
- Madalen.- Orrela esaten didate. Baiña, orrek ez dio kentzen belarri motz-tasunik.
- Busting.- Eta zer du orrek zer ikusi?
- Madalen.- Zuretzat ez. Zuk guziakin bizi bear dezu-ta. Guretzat bai, ordean, Itxasne "Jeltxiki" ta nere alaba da gero.

Busting.- Eta?

Madalen.- Ez diogula bestsoak jartzeko aukerarik eman nai iñori. Orixe

Busting.- Ai, Madalen, Madalen! Lengoa zu beti.

Madalen.- Baita izango ere.

Busting.- (Eskuiko aldera begira) Agur, Mister Amith!

- VIII -

Lengoa eta Mister Amith

Busting.- Goizo zabiltza.

Mr. Amith.- (Basarritar euskal jantziz eta argazkiak ateratzeko makiña eskutik zintzilika duala) Goizik erran duzu? Aski berandu dela nik uste dut. Pillota plazarat noakizu, argazkiak atera asmoz.

Busting.- Pixkor ibilli orduan. Jokoa onezkero aurrera daramate.

Mr. Amith.- Ba-noa, ba-noa. Ez dut nai egokitasun au galdutzerik.

Busting.- Obe dezu, bai.

Mr. Amith.- Gero artio, beraz. (Ezker aldetik jaongo da)

- IX -

Bustingorri ta Madalen

Madalen.- Ez dirudi orrek emengo basarritarra denik.

Busting.- Ez, ez. Ez degu emangoa; urrutiagokoa baiño. Inglesa degu ori.

Madalen.- Inglesa?

Busting.- Bai, Southampton´goa.

Madalen.- Inglesa eta euskeraz?

Busting.- Bai, Madalen; inglesa eta euskeraz.

Madalen.- Ez da makala.

Busting.- Ez da ez makala. Inglaterrako begi-sendalaririk ospetsuenetako bat da-ta; ezin makala izan.

Madalen.- Eta euskeraz, nun ikasi ote du?

Busting.- Sara´ko basarrian, lenengo. Eta emengo basarri batean orain.

- Madalen.- Baiña, egin da Souhtmantondarra?
- Busting.- Berak ala dala esaten du, eta ez det uste gezurra esateko biderik duenik.
- Madalen.- (Pentsakor) Southamtondarra! Southamtondarra?
- Busting.- Zerbait al dezu?
- Madalen.- (Diximula naiez) Ez, ez.
- Busting.- Ala ere, pentsakor gelditu zerala iruditu zait, eta...
- Madalen.- Ez,ez; burutapen bat izan det. Baiña, ezer ez besterik.
- Busting.- Obe orrela, obe orrela. Bukatu da jokoa.
- Madalen.- Nola dakizu?
- Busting.- Txistu soñua entzuten dedala uste det. Alkate soñua, gaiñera.
- Madalen.- Bai, alaxe da.
(Une ontan Alkate soñua entzungo da urrutitik urreratuaz. Magnetofonez artua izanezkero antzerki lagunak gutxiago izango lirake).
- Madalen.- Zer egin ote du Txanton´ek?
- Busting.- Laister jakingo degu, Alkate eta lagunak onera etortzekoak dira-ta.
- Madalen.- (Kanpora begira) Au ez degu Alkatea, baiñan onutz dator.
- Busting.- Nor gero?
- Madalen.- Gure Bobix. Zegara bizian dator. Zer berri ote dakar?

- X -

Lengoak eta Bobix

- Bobix.- (Oso arro ta urduri agertu bedi. Arrantzale jantziz) Ez dezute txarra galdu! Ura jokoa egin dute!
- Madalen.- Nork irabazi du?
- Bobix.- Ez det espero beste orlako bat ikusterik. Gure Txanton´ek dauka sasoia.
- Busting.- Amaika bider esan diot ori.
- Bobix.- Bai, esaten idakan, baiña, egia esan, ez nikan sinesten.
- Busting.- Orain sinisten dek orduan?
- Madalen.- Eta jokoa?
- Bobix.- Txanton´ek irabazi du. Berak bakarrik irabazi ere. Iruak beste jokatu berak.

- Busting.- Orrenbeste?
- Bobix.- Ikusi eginbear zan ura! Orrek daki pelota zestuan sartzen! Eta jo? Nola jo gero? Agarratz jotzen zuanean, pelota orman-melato egin bear zuala uste izaten nuan.
- Busting.- Indartsua dek bai. Aitaren seme irten dik orrek.
- Bobix.- Bai orixel Ni neu gogorra izana nauk; baiña, ori ere ez dek batere bigunago.
- Madalen.- (Txantxaz) Tira, gizona! Aitona aspaldi il zitzaizu-eta.
- Bobix.- Baira amona ere. Baiña, ez det gezurrik esan. Or daude nere markak iñor borratu nai ba ditu.
- Busting.- Gogorra izanda, Bobix.
- Madaien.- Ez dakit gogorra izan dan, baiña...
- Bobix.- Jarraitu, jarraitu.
- Madalen.- Ez, ez. Une bat ixildu.
- Bobix.- Ixildu? Kantatuko dituztenak ere izango dira. (Bustingorri´ri) Etorri al dituk?
- Busting.- Bai, Gora joan dirala uste diat.
- Bobix.- Ba-niak orduan. (Joaten da)

- XI -

Madalen eta Bustingorri

- Madaien.- Norengatik galdetu du?
- Busting.- Bertsolariengatik.
- Madalen.- Eta zertarako ditu bertsolariak?
- Busting.- Zertarako izango ditu? Bertsuak kantatutzeko. Bikario, Alkate ta gañerantzekoak or dira ta, aien aurrean, Bobix nor izan dan kantatutzea nai du.
- Madaien.- (Egiñaz) Aitaren eta Semearen... ! Ori, gizona ori, ez dago bere onean. Orain asiko zan, ba, oiekin?
- Busting.- Zer nai dezu? Bertsolariak ekartzea baiño txarragoak egiten dira.
- Madalen.- Bai, egiten dira. Baiña, gizonak burua ez du txapela eramateko bakarrik izan bear. Bertsolariak goratu bearrean, jetxiazten ere ba-dakite bat. Nortzuk dira?
- Busting.- Txepetxa eta Moleta.
- Madalen.- Ederrak bi. Gauz onik kantatuko dute oiek! Nuan, nuan onezkero Txanton ere emen degu ta. (Barrura joaten da)

- XII -

Bustingorri, Josan, Mr. Amith eta gero Txanton

(Madalen barrura sartuaz batera, Josan eta Mr. Amith elkarrekin sartuko dira, beriala alkietan, exeriko dira)

Josan.- Kaixo,Bustingorri.

Busting.- Kaixo, jaunak! Ikusi al da pelota jokua?

Josan.- Ikusi degu bai.

Mr. Amith.- Damu dut. Berandu joan naiz ta.

Josan.- (Amith´eri) Zer artuko dezu?

Amith.- Onek ekarri nai duana

Busting.- Nik, ba, jaunak, une ontan edaria baiño atsegiñago izango zaiguna emango dizuet.

Josan.- Ia, ba! Zer degun ori.

Amith.- Bota, bota!

Busting.- Bertsolariak kantatzen atera dijoaz, eta emen bertatik entzungo ditugu.

Josan.- Ez da egia!

Busting.- Bai, bai. Golan dira.

Amith.- Ixo! Ixo!...

(Une ontan emen jartzen diran bertsoak entzungo dira)

MOLETA (Kantuz) Bikario jaun, Agintariak,

ai, au da nere bildurra.

Zutikan ezin, eztarri txarra,

laister bear det jo lurra.

Baiñan, lenengo artu zazue

Nere zorion agurra.

Txanton gazteak errira baidu

pelotaritzan gailurra.

(Txalo ta irriak)

MOLETA

Ene, jaun onak, Txepetxa laister

asi da asarre billa.

Bestetan ezta, ortan baidegu

izan ere txit abilla.

Aita goratzen alegindu da
beeratu nairik mutilla.
Bobix'ek paga baidio emen
ardoaz beteta botilla.

(Txalo ta parreak)

TXEPETXA Esanak esan, entzunak entzun,
jarraitu bear ojuka.
Egia garbi azaldu gabe
ezin bai nezake buka.
Botil-ardua edango-det, bai,
au ezin nezake uka.
Baiña onek,ai! nolatan edan
lenoko zorra badauka?

(Txalo ta parreak)

(Laugarrengo bertsoaren bukaeran Txanton azalduko da)

Txanton.- (Pelotari jantziz eta zeztua dakarrela) Kaixo , jaunak!
(Guziak jeikiaz eta txanton agurtuaz)

Busting.- Kaixo. Txanton! Zorinak! Bota bosteko ori! (Ematen dio)
(Besteai) Eman zuek ere, merezi du ta.

Josan.- (Esku luzatuaz) Zorionak.

Txanton.- Eskerrik asko.

Amith.- Zorionak nik ere.

Txanton.- Eskerrik asko.

ZAPIA

Lendabiziko ekitaldiaren bukaera.

BIGARREN EKITALDIA

Antzeztokia

Egon gela apal bat. Ezker, eskui ta atzera ate bana dira. Atzekoa kalerakoa eskuikoa sukalderakoa ta ezkerakoa gelatara zuzentzekoa. Gela ontan ez da ez mai ez alkirik agiriko.

- | -

Itxasne, gero Bustingorri

(Antzeztokiala irikitzean, Itxasne, bere oinpean baieta bat duela, beari disdira aterazen. An inguruan, eskoboi ta Aliron-poto bat egiriko dira. Kalerako atea jotzen dute).

Itxasne.- Bai...! (Oinpeko baieta ta eskoboia ta Aliron sukaldera eramango ditu ta bere illerak pixka bat jaso ondoren, atera joan eta irikiko dua atea) Zu ziñan? Aurrera, aurrera!

Busting.- Eskerrik asko (Arriturik) Zer pasa da emen? Etxe-aldaketa al dezute?

Itxasne.- Bai, naiko etxe aldaketa. Gure aitaren burubideak dira auek.

Busting.- Ikusi det bai. Esku-gurdian mai ta exertokiak eramaten.

Itxasne.- Alperrik da orrekin. Bein buruan gauz bat artzen ba du, orrenak egin du. Zer berri dakarzu?

Busting.- Mandatu bat dakart; baiña zure amarentzakoa da geienbat.

Itxasne.- Nere amarentzat?

Busting.- Bai, Etxean al da?

Itxasne.- Ez, ez, ez a etxean. Baiña Meza nagusia bukatu dala uste det, eta aurki da emen.

Busting.- Bukatu da bai. An izan diran batzuek ikusi ditut, beintzat.

Itxasne.- Oresako mandatura al-da?

- Busting.- Ez, presa-presakoa ez da; baiña garrantzi aundikoa bai.
- Itxasne.- Neri eman eziñekoa?
- Busting.- Ez, ez da zuri eman eziñekoa; baiña , berari emateagaitik etorri naiz geinbat. Obeto esan, beari eta zuri ere bai. Josan´ek bialduta, gaiñera.
- Itxasne.- Josan´ek?
- Busting.- Bai, Josan´ek eta nik neronen aldetik ere bai. Zure ona nai dugulako. Orrela ezpalitz, ez nintzakean etorriko. Ziur izan, Itxasne. Zure onagatik nabilzu. Ezin zindezko oneia jarraitu. Mundu au ez da zuk uste dezun bezin txarra. Ba-nago zuretzat aña zorion emen ere. Jakin egin bear da zorion ori arkitzen.
- Itxasne.- Zoriontsu bizi naiz.
- Busting.- Ez da egia. Ez da oraingo au zuri dagokizun zoriontasuna. Jai ta aste lanean, urkatzen ari zera; ez da ori zuzenezko zoriontasuna. Eta zu zerori ere, konturatu egin bear ziñake. Gaur ere, noiz etorri zera etxera?
- Itxasne.- Zer du orrek zer ikusi?
- Busting.- Bai, Itxasne, ba-dauka. Ez da ordu-laurden etxera etorri zerala.
- Itxasne.- Ez, ez da ez.
- Busting.- Atzo arratsean asi ta gau guzian lanean ari ta gero, gaiñera. Eta nolako lanean arita?
- Itxasne.- Txarragoko lanak ere ba dira.
- Busting.- Baiñan, zuk ez dezu zertan orrela ari.
- Itxasne.- Jan bearrak eginazten dit.
- Busting.- Ez da egia ori ere. Egunaz, arrai-konserba fabrian lan egiten dezu. Arrastreko ontziak datozenetan, berriz, gau guzian, aietako arraiak garbitu ta gertutzen. Jai ta igandetan, gure etxera serbitzuko lanak egitea etortzen zera. Zer bizi bide dezu ori?
- Itxasne.- Ala ta guziz ere, gurean ez da ezer sobratzen.
- Busting.- Ba dakit asko bear dana gaurko egunean, eta emakumezko baten irabaziak oso dirala. Gai ontaz itz egitera etorri nazu, batez ere. Utsune au beteeziña ez dezu. Ondo dakizu zuk. Zergatik etzera Josan´ekin ezkontzen?
- Itxasne.- Bustingorri... (Musu-zapia atera ta begierara negarrez)
- Busting.- Biotz gabea da zure ama. Eta uste det, alperrik duala elizara joatea, zure zoriontasunik nai ezpadu.
- Itxasne.- Zoriontasuna! Nork daki zoriontasuna nun dagoan? Orixe uste genduan guk ere, Txanton Miami ´runtz irten zanean, gure zoriontasuna ura pelotari egitean iritxiko genduala. Baiña, zer zoriontasun iritxi degu?

- Busting.- Orretaz itz-egin nai diot batez ere zure amari. Asmo onak zitudan zure amak; baiña asko oiek, esan oi dan bezela, "usteak ustel" irten zaizka. Alperrik dira orain. Gertaerak, gertatu diran bezela artu bear dira. Ez dago beste jokabiderik.
- Itxasne.- Gure zoritxarra ez da zuk uste dezun alderditik sortua. Gutxienekoa ori izango litzake.
- Busting.- Ez dakit ba. Aita Bobix, beñiere baiño pozago bizi dala adierazten du.
- Itxasne.- Bear bada bizi ere orrela bizi da. Besteok ordea... (negarrez) Nere ama goxoa, sekulako gurutzea eramanaz bizi da.
- Busting.- Zer pasatzen zaizue ba?
- Itxasne.- Ezer ez: famili-barruan gerta oi diranak gurean ere...
- Busting.- Ez nuke zuen arazoetan sartu nai; baiña, ba-dakizu, etxeko bezela naiz eta lagundu nai nizueke.
- Itxasne.- Gure aita degu bere onetik irtenda, eta ez dakit nun bukatu bear duan. Bere arrokeriak burua artu dio.
- Busting.- Orrenesteraño?
- Itxasne.- Bai, bai. Etxean bai beñipein. Txanton joan zanetik egun bateko pakerik ez digu eman. Txanton gora eta Txanton bera. Txanton bere semea, bera Txanton'en aita. Besteok... Nere ama gaxoa, ez jan edota ez lo bizi da. Eta ez dakit zer atarramendu aterako duan.
- Busting.- Nai al dezu zerbait esatea?
- Itxasne.- Nori?
- Busting.- Aita Bobix'i.
- itxasne.- Entzun nai ez duanari zer esango diozu?
- Busting.- Entzungo dit, bai. Egon lasai. Ni ere, egia esan, zure amari gogor egiteko asmoz etorri naiz; baiña ez diot bere naigabea miñago egin nai. Beste batean etorriko naiz.
- Itxasne.- Obe dezu, bai.
- Busting.- Orixe egingo det. Baiña, zu etzaitez aztu Josan zure itxaropenez bizi dala. Eta atsekabetasun au luzarorako ez dezutela izango, zure aldetik borondate pixka bat jartzen ba dezu. Ba noa eta gero arte)Joatenda).
- Itxasne.- Agur, gero arte. (Musu-zapiatz bere begiak igurtzita sukalderako atea zabaldu ta an utzi dituan baieta, erratz eta bat artu ta lengo lanean asi bedi. Artan ari dala).

- II -

Itxasne ta Bobix

- Bobix.- (Kaleko atetik agertu bedi, bi alki apain dituala ta osk nekaturik ari naseztuka. Agertu bezin laister, dakarzkia-netak batean exeriko da).
- Itxasne.- (Bere lanari utziaz) Ai, aital Ori da zure buruari eman diozur tratual Zerbait pasatzeko ere!
- Bobix.- Bai, tratu txarra artu diñat; baiña (Arrokeriz) pozik natxion. ere, jakiñan, amaren aldetik ago; baiña, alperrik zabiltzate Nik nerearekin irtengo diñat beti.
- Itxasne.- Baiña, nork esan dizu ezer?
- Bobix.- Ez, ik ez didan ezer esan; baiña, txoraa ez naun, eta ire arpegian ezagutzen diñat.
- Itxasne.- Izan ere, San Iñazio egun aundian ontan asteal
- Bobix.- Noiz astea nai unan, ba, biar?
- Itxasne.- Biar, edo beste egunen batean bai, beñipein.
- Bobix.- Ori nai zenduten zuek, biarko ustea. Eta biar, etzirako ta orrela. Baiña, ba zekiñat nik nola jokatu.
- Itxasne.- Bi auek bakarrik al ditu?
- Bobix.- Ez, ate ondoan zeuden besteak.
- Itxasne.- (Joan eta ekarri biartean)
- Bobix.- Orla, orla! Bearko neri obeditu. Bai orixel
- Itxasne.- (Bi alki polit ekartzen ditu ta berriz joan)
- Bobix.- (Berekiko ta arro-arro) Auek, auek dira alkiak! Nik ekarrita baiña. Ez nere atso txatxoak.
- Itxasne.- (Mai bat ekarriko du) Nun jartzea nai dezu?
- Bobix.- Emen, men. (Oso barregarri emango duan tokia erakuster dio)
- Itxasne.- Emen? Emen baiño obeto egongo da or. (Egokioko txoki bat erakusten dio).
- Bobix.- Ez, ez. Nik ba zekiñat ondo nola bear dan eta ementxe joar bear din onek.

- III -

Lengoak eta Madalen

Madalen.- (Eleizatik dator ta arriturik aiek ikustean) Zer dira auek? Nork ekarri ditu?

Bobix.- (Gogor) Nork ekarriko zituan? Gogoa zeukanak. Ondo ler eginda ekarri ere.

Madalen.- Baiña...

Bobix.- Emen ez dago baiñarik. Emen mai ta alkiak daude.

Madalen.- Ikusten ditut.

Bobix.- Ikusten ba dituzu, zergatik galdetu dezu, ba?

Madalen.- (Naigabez) Azkenean zuk nai dezuna egin dezu?

Bobix.- Baita egingo ere. Ala mai ta alki zaar aiek euki bear algenduzen beti?

Madalen.- Arrantzale baten etxean, zer geiago bear gendun?

Bobix.- (Arrokeriz) Len zan etxe au arrantzale baten etxea. Orain, pelotari baten etxea da. Entzun dezu? (Bere itzak bana-bana esanaz) Pe-lo-ta-ri baten etxea! Nere semea pelotaria da, munduko pelotaririk onenetakoa gaiñera, zuk nai ezpadazu ere.

Itxasne.- (Aldatu nairik) Ama! Nork egindu sermoia? Don Imanol'ek

Bobix.- Eliza ta sermoi asko! Orixo daukazute zuek asko, naiz ta gero iñor ikusi eziñez bizi.

Madalen.- Ni?

Bobix.- Bai, zu. Txanton ikusi eziñez bizi zerate, eta aren emaztea ere bai. Baiñan alperrik zabilzate. Ikusi bearko dituzute. Zer uste zenduten ? Txanton zueri begira egongo zala? Etzeundeten gaizki pentsatuak! Munduko emakumerik ederrenak kendu eziñez, automobillekin zai, frontoitik irtentzerako, ta zuei begira egongo zan mutilla ezkondu gabe.

Itxasne.- (Arriturik) Ama! (Amarengana urreratzen da) Exeri zaitez. Exeri zaitez (Exertzen laguntzen dio).

Madalen.- (Negarrez exeriko da).

Bobix.- (Burlazko parrez) Ja, ja, jaa !! Etzeundeten amets txarrak eginda! ja, ja, ja. Munduko pelotaririk onena "Jeltxiki"ren alabarekin ezkonduko zalakoan bazeundeten!

Itxasne.- Nik ez det orlako amesik baiñere egin. Ez da egia.

Bobiz.- Eta zure amak? Ez al du beiñere amets ori egin? Baiña, etzaitez naigabetu, emakumea! (Burlaz) Mantxurriano zaarra

or ez dauka Ba? Ja, ja, ja! Ez da ez: Jeltxiki: bizi! Ja, ja, ja! Baiña, bizi izan balitz ere, zer? Gizon erdika nere lengo senarra?

Bobix.- Bai, Sekula zure gona-petik irten etzan gizona, gizon txatxu bat. Ja, ja, ka! Banua, banua, parrez lertu baiño lan (Ezkerretik joango da).

- IV -

Madalen eta Itxasne

(Itxasne ere Madalen´en ondoan exeriko da beste exertokian)

Madalen.- (Erdi negarrez) Ai, Itxasne! Ezin nezaken onela jarraitu. Geiegi den au. Itz batetik bestera, txakurrenak entzun bear au, eziña egiten zaidan.

Itxasne.- Pazientzia artu bear.

Madalen.- Pazientzia artu? Bai, al banu! Itz ederra den ori; baiña eramaten zailla. Ni beintzat gogait egiña natxegon.

Itxasne.- Gure kristautasunak orixe eskatzendigu. Ezin genezake gure izatea ukatu; Bestela alperrikakoak litzake gure sinismena.

Madalen.- Ez, ez diñat nik nere sinismena ukatu nai ez gutxiago ere; baiña ez al den nabaitzen nigan nere pazientzia galdu-gordean dagola? Eta pazientzi ori galdu-gordean jartzen duan zer ori lenengotik etetzea dedala bidezkoena?

Itxasne.- Ez dizut ulertzen, ama. Ez dakit zer adierazi nai didazun.

Madalen.- Zerk lotzen nau, eruapen auek eramatera? Nere bigarren ezkontzak au ez ote den nere animaren galbidea? Ezkontzan alkarri agindu genion maitasun eta errespetoa galdu ezkerro, zergatik onela jarraitu? Erruki-etxera joan bear izango ba diñat ere, ez diñat nai onela bizi, nere anima galtzeko egoera onetan.

Itxasne.- Erruki etxeara? Zer diozu?

Madalen.- Ez diñat beste biderik beretzat ikusten.

Itxasne.- Bai, ama. Ba dago beste bide bat ere, naiz ta zuk ondo ikusten ez dezuna bada ere. Jolas orren despreziagarri ikusten al dezu oraindik ere?

Madalen.- Itxasne...!

Itxasne.- Mantxurrianoa da, bai, mantxurrianoa; baiña, ondo, ezitako mutilla. Eta ori mundu guziak ao batez aitortuko dizu. Eta Josan´ek nerekin ezkondu nai du. Etxetxobaten jabe ez ote giñake egingo Erruki-etxe gabe?

Madalen.- Baiña ik ez den maite Josan.

Itxasne.- Bai, ama, maite det, bene-benetanmaite ere, eta ezin nezake geiago luzatu berarekin ezkondu gabe. Egunetik egunera sutsuago da nere maitasuna Josan'en alde. Beste aldetik, ezin nezake onez eraman aita Bobix'ek botatzen dizkidanak. Nork esan dio ari Txanton'en berririk?

Madalen.- Etzan ukatu, Itxasne. Txanton'en berririk?

Itxasne.- Ez, ama; ez da egia... (Negarrari ematen dio)

Madalen.- Ez den ikusten? Ire negar orrek zer besterik erakusten ematen din? Ala ire ama onek ez al-zeuzkan begirik ez sentipenik ire barruan zergatzen zanaren berri ezaguteko?

Itxasne.- Ez det nik beñiere kanpora azaldu.

Madalen.- Ez, ik orrela uste izan den; baiña, alperrik. Etxean bizi geranok ondo ezagutzen giñunan. Eta Txanton berak ere...

Itxasne.- Ez, ama, ez; ez da egia. Zuen irudipenak izan dira: zuek zenduten gogo batez ere. Txanton izatea nai zenduten nere senar, eta orixe izan dezute itxutu zaituztena. Nik, berriz, Josan'entzat nuan maitasuna, izkutatu izan dizuet, gorde nere biotzean, "mantxurrianoa"ri diozuten ikusieziña dala bide, zuei mingarri ez izate arren. Baiña, alperrik da orain zure asmoa, ama. Txanton ezkondata etorri zaigu Miami'tik. Bere emazte ta amagiarrebaz, oso pozik bizi da Txanton. Ori dala ta, aita Bobix ere bai. Zergatik ezingindezke pozik bizi gu ere?

Madalen.- Josan "mantxurrianoa"...!

Itxasne.- Mantxurrianoa ba da; baiña mantxurriano jatorra, gu asko geran baiño jatorragoa. Bobix bat, zer degu Bobix bat? Zer bere alderdi guzietatik euskal abizenak daramazkian arren? Zergizatasun duala erakusten emen dizu zure bizian?

Madalen.- Ixildu zaitez, Itxasne. Ixildu mesedez.

Itxasne.- Ez, ama. Ikusi egin bear dezu, ezagutu, mundu au degun gezurtia. Abizenak, deiturak, ez du gizona egiten; bakoitzak bere gizalegoz irabaztenduan sariak baiño.

Madalen.- Ez den gezurra esan, ez. Ondo zekiñat nik ori. Ire aita zana eta aita-ordeko dana ezagutzea besterik etzegon. Ire aita santu bat unan, bere emazte ta aurrentzat bizi izan zana. Alta-ordekoa berriz, berareztat bizi izan den beti, eta besteok ere berarentzat egiten. Eta ala ere, gurimiñ emateagaitik, martiri iltzan gizonaren izen ona zikindu egiten din orrek (Negarrari ematen dio)

Itxasne.- Ez, ama, ez du zikintzen, ezin zikindu lezake Zeruan dagoana.

Madalen.- Ura beintzat, Zeruan zegon. Ez diñat ezpairik.

Itxasne.- Itz gaiztoak Zeruruntz botatzen dituanak, berriz, bera gelditzen da zikinduta; ez nere aita.

Madalen.- Ire aita, ondo izenaren jabe una. Bere eriotza ere, aitaren egintza betetzeagatik arkitu, gizajoak. Zer naigabe eraman ote zuan, gizajoak, mundu ontatik? Gorputzeko zati guziak txistukatuta, itza joanda, begiz adierazten zuanaz bakarrik.

Itxasne.- Baiña, zergatik gogoratu bear dituz orain egun triste aiek? Naiko itzaltasun ez ote daukagu bestela ere?

Madalen.- Bai, ba-zeukanagu, eta itzaltasun onen gogoratzen zizkidan orduko egun tristeak. Gogoan diñat Eastbourne'ko gure izaera negargarria, alemandarrak botatzen zizkiguten bonbatzarren bildurpean. Gogoan, Southampton'dik aita nola etorri zan gu berarekin ara eramateko. Gogoan, gu ontzian sartu giñan unean bertan bonba lertu ta...

Ez, guzia ez. Aita orduan egindako zaurietatik il tzala, bai,..., ba-zekiñagu; baiña, Xabier'txorekin zer gertatu zan etxekiñagu. Xabierto ez unan il; il arrastorik etziñen atera, beintzat.

Itxasne.- Baiña ama, ogeita bost urte igaro ondoren, berriz ere zure burubideak artu bear al dituzu? Gerratzaz ez al dezu naikoa esan?

Madalen.- (Alkitik jeikiaz) Ez, ez; ez diñat naikoa esan. Ez naun ixilduko ere gerra madarikatzen. Madarikatua gerral Madarikatua milla milloi bider, neri zoritxarra ekarri zidan gerra zitala. Bein da berriz ere esango diñat ondarrutar apaiz jator bezin euskaltzale jakintsua zan Don Domingo Agirre'k idatzitako olerki au: Gudak gogortzen ditu biotzak,

ekartzen ditu samin zorrotzak,

itxutzen ditu gizon argiak,

eta aztu-eragin zeruetako erakutsiak.

Gudazaleak nai duena da, mendetu etsaia,

ta mendetzea naikua ez tala, susi ta astindu

Jo, ta mallatu, ausi ta puska, triski, birrindu,

ta itxumenean ezta ezagutzen norbere anaial

Pozez ba dago gudalaria,

urrian dabil malkozko aria;

Guda gizonak beste gisatan ezin du goza;

Ostikopean daukan anaiak atsegintzen du

ta etsai negarrak pozez zoratu:

Ta negarretik datorren poza

O! Nik eztakit zenbateraiño MADARIKATU!

- Itxasne.- Oso ondo ama, Gorrotagarri degu gerra eta gorrotatu egiten degu. Baiñan, pakeezarenondorena ez ote degu gerra? Eta pakerik eza geok sortzen degun borondate ezaren ordaiña? Gerok gera beti aundi; despreziagarri besteak. Arrotasuna! Eta arrotasuna degu gerra guzien oiñarria.
- Madalen.- Bai, orrela den.
- Itxasne.- Baiña arrotasun ori ez degu ikusi bear ez gorrotatu nere aita il zuten bondatzarretan bakarrik, ez; arrotasun ori gizadia ezberdintzen duen egintza guzietan ikusi bear degu.
- Madalen.- Naikoa diñagu,naikoa, itxasne. (Sukaldera joango da)
- Itxasne.- Naikoa, bai. Josan despreziagarri ikustea (Sukaldera baita ere).

- V -

Bobix eta Txanton

- Bobix.- (Gelaldetik agertuaz, arro-arro, Txanton'i erakutsiaz) Auek, auek dituk aikiak.
- Txanton.- (Agertuaz) Baiña...
- Bobix.- Ez al dituk egokiak?
- Txanton.- Bai, aita; oso egokiak dira.
- Bobix.- (Alkian exeriaz) Piti eta Mini, auetan exertzen diranean, ankak onela (bata bestearen gañean ipintzen ditu) bata bestearen gañean botata, zigarroa erretzen, ja, ja, ja. Aiek egongo dituk onak. Eta gure emakumezkoak berriz, barru guzia kixkaltzenaieri begira... ja, ja, jaa... Argituko dituk alakoren batean.
- Txanton.- (Exeriaz) Ederrak dira gero! Benetan egokiak.
- Bobix.- Neri ezkerak ordea, neri ezkerak. Ondo zekiat nik mundu ontan nola bear dan. Bai orixel Eta ik ere, nere oiñordeko jarraitu nai ba dek, ba daukak nigan zer ikasi.
- Txanton.- Ez da, ez, kontxeju txarra.Eta ikasi ere egingo detala uste det.
- Bobix.- Ori, ori dek seme jatorren erantzuna.Ez dakit nolako poza ematen didaken. Baiña, euretzat izango dek mesederik aundiena, nere kontsejuari jarraitzen ba diok (Jeikiaz) Ba nikak orain, Alkate jaunarekin itz egin bearra zeukat eta.
- Txanton.- Alkate jaunarekin?

- Bobix.- Bai, bai. Kafea artzera etortzeko esan bear zioat. Ikusi dezatela Piti eta Mini'k Bobixtarrek nor geran errian. Baniak, baiña, beriala nauk emen. (Kaleko atetik joaten da)
- Txanton.- Geroarte (jeikitzen da).

- VI -

Txanton eta Madalen

- Madalen.- (Sukaldetik agertuaz) Egun on, mutil! Jaiki aiz?
- Txanton.- Ikusten nauzu jaiki naizena.
- Madalen.- Bai, ikusten aut; baiñan, ez Meza nagusian, ez aut ikusi. Ez al dakik zer egun degun gaur?
- Txanton.- Jakingo ez det ba? Loiolako San Iñazio eguna.
- Madalen.- Meza nagusitara joateko eguna. Ire adiskideak an ituan.
- Txanton.- Zer egingo zuten , ba? Betiko oiturari jarraitu.
- Madalen.- Eta ik, zergatik ez?
- Txanton.- Meza entzutea bearrezko izan ba litz joango nintzakean ni ere; baiña, gaur ez da beartzen.
- Madalen.- Ai, Txanton! Txanton! Ez nauk ni gezurtatuko ez. Ba nikan onen bildurra, ik Amerikaruntzako asmoa artu euanetik euki ere. Familian ikasitako oitua onak ik utsiko ituan ba? Baiñan, eure buruaren jabe aiz, eta jakingo al dek beintzat, ire guraso izan gaitukanengandik ikasitako bideari jarraitzen.
- Txanton.- Jarraituko det, bai.
- Madalen.- Eta geiago luza gabe, gauz bat jakifharazi nai diat. Aitak esan al dik etxean darabilkigun asarreaz ezer?
- Txanton.- Ez, ez dit ezer esan; baiña, konturatu naiz.
- Madalen.- Konturatu ba aiz, ezer esatera ez niak. Baiña, etxeko asarrea delako, Itxasnek ezkontzea erabakia dik.
- Txanton.- Norekin?
- Madalen.- Josan'ekin.
- Txanton.- Mantxurrianoarekin?
- Madalen.- Bai.
- Txanton.- Ezin liteke arekin ezkondu! Eta zuk utzi egingo diozu!
- Madalen.- Utzi! Zer egitea nai dek? Pakean bizitzeak ere asko esan nai dik eta.

- Txanton.- Mantxurrianoarekin! Ez, ez. Zure alaba ezin diteke mantxurriano batekin ezkondu. Ezin diteke, ama; ezin egia izan.
- Madalen.- Bai, Txanton, egia dek. Ez diat nik gaur arte etsi; baiña... Irekin ezkonduko zala uste nikan... , baiñan ... i...
- Txanton.- Egia, ama. Nik ere, bein baño geiagotan erabili nuen asmo ori. Bertsolariak bota zizkiguten bertsoak entzun nituanean batez ere. Baiña, gero... Miami'n lakioa bota zidaten eta... Eta zer dio berak? Nola ikusten du nere ezkontza?
- Madalen.- Nola ikustea nai dek?
- Txanton.- Eta Josan benetan maite al du Itxasnek?
- Madalen.- Besterik ezean zer egitea nai dek neskak? Gaiñera, ire aitaren esan txarrak bultza diola uste diat, Josan'ekin ezkontzera.
- Txanton.- Itxasne gaxoal itxasne zintzoa! Nere erruz, nere erruz dijoa orrekin ezkontzera. Baiña, nork daki oraindak?
- Madalen.- Zer diok mutil?
- Txanton.- Nere barruan orain sentitzen dedana ama; besterik ezer ez. Ez det guzia galdu. Pixka bat egongo ba litz!
- Madalen.- Baña...
- Txanton.- Nere ezkontza, zibilez egindako ezkontza bakarrik dalako.
- Madalen.- (Arriturik) Sasi-ezkontza bakarrik? (Egiñaz) Aitaren eta Semearen! Naiago nikan esan ezpau! Eliza gabeko ezkontza egin uaia? Mutillak ori egin? (Egiñaz) Aitaren eta Semearen. Eta aitaren eta Semearen millia bider...
- Txanton.- Ez da orrenbeste arritzekoa, amal ez da orrenbestekoa!
- Madalen.- Ez dala? Esan egiten dek, esan gaiñera!
- Txanton.- Alderdi aietan geienak orrela ezkontzen dira-ta.
- Madalen.- Elizarik ez al zeok ba? Elizarik ez?
- Txanton.- Bai, ba daude; baiña, ango oitura orrela da ta.
- Madalen.- Ez, ez, ez. Ango oitura izago dek; baiña, emengoa ez. Elizaz ezkontzen gaituk emen. Eta ik ere Elizaz ezkondu bear dek.
- Txanton.- Eta Piti'k nai ez pa du?
- Madalen.- Nai eragin; etzegok beste biderik. Sasi-ezkontza eta ijito-ezkontza bat dituk neretzak. Eta i ez aiz ijitoa. Gaur bertan joan bear gaituk Bikario jaunagana. Berak esango ziguk ondoen noiz eta nola ezkontza egin.
- Txanton.- Ez dute nai, ordea, ez Piti'k ez bere amak ere gu elizaz ezkontzerik.
- Madalen.- Eta guk nai ba degu, zer?

- Txanton.- Ez batera ta ez bestera, gure ezkontza autsita geldituko dala.
- Madalen.- Ez diat uste.
- Txanton.- Bai, ama, bai. Lenago ere alegiñik asko egiña naiz Elizaz ezkontzeko; baiña guzia alperrik. Eta juzgadoko ezkontza au ausitzeko, berriz, diru asko eskatuko didate, nik orain eman al dezakedan baiño geiago.
- Madalen.- Ederra dek kontual Dana, dala, Bikario jaunarengana joango gaituk, bai? eta jakingo diagu zer egin.
- Txanton.- Bai, ama, lagunduko dizut. Baiña, ez dezatela Piti´k eta Mini´k ez iñortxok ere gure asmoaren berria jakin. Gure artean ezer pasatzen ez palitz bezela jokatu bear degu.
- Madalen.- Etzekiat, etzekiat barruan gorde al izango dedan. Gogorra egin uan izan ere!
- Txanton.- Ba dakit, bai; baiña, batera ezpada bestera erremediatu al baneza! (Aldaturik) Beraientzat gozaria gertatuta al daukazu?
- Madalen.- Bai, motell Noiz jaikita emen ikusteko zai nengoken.
- Txanton.- Oian artuko duala esan dit Piti´k.
- Madalen.- Gaixorik al zegok ba?
- Txanton.- Ez, baiña orrela oituak daude ta.
- Madalen.- Tira, tiral Ori besterik ez pada eramango ziot Itxasnek.
- Txanton.- Ondo da.
- Madalen.- Eta ik zer artuko dek?
- Txanton.- Geroxeago artuko det, orain kalera nua euskal-kanten disko batzuek erostera.
- Madalen.- Nai dekan bezela.
- Txanton.- Bai, bai; beriala naiz emen. (Joaten da).
- Maialen.- (Berekiko eta sukaldera dijoala) Ai, ai, ai! Au mundua!

- VII -

Itxasne eta Madalen

- Itxasne.- (Etxeko jantzi txukunez, bandeja batean gozaria eta ontzi batzuek dituala, sukaldetik irten eta gelatarako atetik joango da. Andik beriala, ontziak lurrean aterako duten ots aundi bat entzun bedi. Ontzi otsa entzunaz garraxika agertu bedi). Ama, Amaaa!

- Madalen.- (Sukaldetik arriturik irten eta Itxasne'gana zuzenduaz) Zer den neska? Zer pasa zan? Zer ots izan den ori, ontziena. Erantzungo al den ala toteldu egin aiz?
- Itxasne.- Ez ama; ez naiz toteldu.
- Madalen.- Zer izan den ba? Esango al didan bein?
- Itxasne.- Eraman dizkiodan gozari ta ontziak arpegira bota dizkit.
- Madalen.- Nork, bota gero.
- Itxasne.- Piti'k.
- Madalen.- Zer dala ta? Zer arrazoi izan din ortarako?
- Itxasne.- Amantal zuriz jantzita joan bear omen nintzen bere gana.
- Madalen.- Amantal zuriz? Ederki ere! Bere neskamea ote aiz, ba!? Ez, ez, ez, I ez aiz aren neskamea, etxean beintzat. Ala gizonezkoezela galtzak eramaten ditualako i baiño geiago dala uste al din? Gure etxean ba, ez din ori iritxiko. Ez orixe! Etxean, etxeko bezela izan bear gaitun guziok. Ez batzuek nagusi ta etxekoandre eta neskame besteok. (Maitakiro artuaz lepotik) Ator, gajo ori, sukaldera (biak dijoazela)
- Itxasne.- Bizibidea da gero au! Guziai nundik ondo egingo beti eta onelaxe eskerra azkenean) (Joaten dira.

- VIII -

Piti eta Mini

(Sedazko pijametan dirala agertu bitez Piti eta Mini, zigarro erretzen eta beren ibilkeran eta imintzioetan oso modernoak dirala ezagutzeko eran).

- Mini.- Zerbait izan al dezute?
- Piti.- Ori, neskazar, erdi-monja, mantzin ori etorri etzait, ba, arrai usai zikiña dariola?
- Mini.- Zure gelara orrela?
- Piti.- Nere gelara ezer ez dala, gozaria ekartzera orrela!
- Mini.- Ez da egia? Puffff!! Zikiña alakoa!
- Piti.- Laister irtenarazio diot, ordea, ekarri dituan gauz guziak arpegira bota dizkiodanean. Bearko irten!
- Mini.- Ondo egin diozu. Nortzuk gerala uste du orrek?
- Piti.- Beste bein ori egiteko gogoa kendu diotala uste det.
- Mini.- Egia esan, ez diot nik orri itxura onik artzen. Emakume tresna orrakeen antza artzen diot.

- Piti.- Izan ere orrelaxe dezu. Ez altzera konturadu Txanton'en ondoren dabilhela beti. Mauka obeagorik nai dezu etxe-barruan?
- Mini.- Eta Txanton'ek?
- Piti.- Txanton, ba dakizu, ume aundi bat baiño ez da, ta ez ura konturatzen, ez du orren maliziarik ikusten.
- Mini.- Kontuz ibiltzekoa degu, orduan. Eta zu ere kontuz egon zindezke Txanton orren saretan katigatu ez dedi.
- Piti.- Ez, ez; ez det orren bildurrik. Naikoa du arek, bere errira etorri danean, tripa pestan ibiltzea: kantuak emendik eta umore ona bestetik.
- Mini.- Ez det arkitu iñon emen dan baño jende sosoagorik. Tripa-pesta izan ezkeru, or konpon! munduko emakume guziak. Ez dakit nik ezkondu ere zertarako egiten diran.
- Piti.- Eta emakumezkoak ere berdin.
- Mini.- Bai, bai. Koipe palta aundirik ez dute emango emakumeak.
- Piti.- Eta gero arritu egiten dira ni ondartzen monokinikin ikusten nautenean. Beren buruak lenago ez ikustea, zirkoko animaliak dirudi-ta.

- IX -

Lengoak eta Bobix

- Bobix.- (Kaleko atetik agertuaz) Egun on.
- Blak.- Baita zuri ere.
- Bobix.- Eta? Ondo deskantsatu al gera?
- Piti.- Deskantsau esaten dezu?
- Bobix.- Zer, ez al dezute ondo lo egin?
- Piti.- Nork lo egitea nai dezu emen? Goizeko orduetako kanpai joka asi ba dira.
- Mini.- Ni beintzat, erri ontako kanpai-otsakin, burua zearo tontortuta daukat.
- Piti.- Bainik erel Nik agindu bear ba nu, ez luteke kanpai-jotzen lan aundirik izango kaska-motz oiek.
- Bobix.- Oiek ere ba dakizute, beren otoitzak dituzte ta.
- Piti.- Otoitzak egiteko ez daukate kanpaiak zertan jo. Eta pandangoan ibiltzeko gogoa ba daukate, utzi dezaigutela guri pakean lo egiten.

- Mini.- Ni beintzat, aspirina artu bear izan det.
- Piti.- Baita nik ere.
- Bobix.- Oitu ezaren kontua dezute ori. Ara, nere adiskide bat ere, orrelaxe aritzen zan beti, kanpaiak edo mojak kentzeko, buruko miña egiten utzi zion, eta sekula etzion geiago kanpaiak buruko miñik egin. Baina, zer egiten dezute ezeri gabe? Nik ekarritako alki berriak ez al dituzute probatu nai?
- Mini.- Bai, bai. (Exertzen da)
- Piti.- Baita ni ere (Exertzen da)
- Bobix.- Ederrak dira e?

- X -

Lengokoak eta Ertzaiña

- Ertzaiña.- (Kaleko atearen tinbrea jotzen du)
- Bobix.- (Atera joanaz) Zer dek, mutil?
- Ertzaiña.- Alkate jaunak Txanton'í bilatzen dion agur au ekartzera etorri naiz.
- Piti.- (Zutitu ta ate ondora joanaz) Txanton'entzako esan al duzu?
- Ertzaiña.- Bai, ona.
- Piti.- (Artu ta bariala irakurtzen asten da berekiko)
- Bobix.- Baxoerdi bat edango al dek?
- Ertzaiña.- Gaxoari esan zaio nai dezu.
- Bobix.- Alaxen dek ori ere. (Baxoerdika bat an inguruan beteko du ta eman bezaio Ertzaiñari) Tira, edan zak orduan.
- Ertzaiña.- (Edan ondoren) Eskerrik asko, Agur. (Joaten da)

- XI -

Piti, Mini ta Bobix

- Bobix.- (Pozez) Eta zer dio Alkate jaunak
- Piti.- Erriko jaietan pelota jokia egitea eskatzen dio Txanton'í. Erruki etxekoai laguntzeko.
- Bobix.- Poztuko da Txanton, Alkateak ori eskatzen diolako.
- Piti.- Ni, ba, ez nau poztutzen.
- Bobix.- Poztu ez, Txanton, bere erritarren aurrean jokatzen ikusteak?

- Piti.- Ez.
- Mini.- Ez ni ere.
- Bobix.- Neri ba, egundoko poza ematen dit orrek.
- Piti.- Eta pelotaka bat artzen ba du, nork lagunduko dio Txanton´i?
- Mini.- Ori esan ba, ori esan. Sekuiako elbarri gelditzen bada?
- Piti.- Ez, ez, ez. Ez du Txanton´ek pelota jokorik egingo emen. Egin dezatela Alkateak eta Sekretarioak, nai ba dute.
- Bobix.- Txanton´ek ba, Erruki etxetako ba da, ez da geldituko jokatu gabe.
- Piti.- Ikusiko degu ori. Lenengo beintzat, ez du jakingo paper au artu degunik. (Txikitu egiten du) Eta norbaitek adierazten ba dio jakingo det zer egin.
- Bobix.- Pelota joko bat dala ta ez dala, asarratzeko biderik ez dezagun egin.
- Piti.- Ori aurrez pentsa.

- XII -

Lengoak eta Txanton

- Txanton.- (Eskuan tokadiskos bat eta bestean diskoak dituala agertuko da) Aita, San Inazio egunari berea eman bear diogu gaur. Auek, auek dira kantu ederrak. (Bitartean tokadiskoak jartzen ari bedi). Ba dakit sekula entzun ez dituzuna.
- Bobix.- Entzun ez nik? Bai euskal kantak ba dira.
- Txanton.- Euskal kantak dira baiña... Exeri zaitez lenengoa. Eta zu ere bai, Piti.
- Piti.- Orduan zendun zerbait ekartzeko, kanpu-santu au pixka bat alaitu dedin.
- Txanton.- Beriala alaituko degu, ez kezkatu. (Gertatu bezin laister oraingo kantu moderno bat eskurez kantatuta entzungo da).
- Bobix.- (Jeiki ta asarrez) Kendu, kendu! Ori ez dek euskal kanta!
- Txanton.- (Ixiltzen du) Nork esan du ori?
- Bobix.- Neuk. Eta ondo zekiat zer esaten dedan. Ori euskal kanta!
- Txanton.- Zer degu ba?
- Bobix.- Olako euskalduna aiz i, sasi-euskalduna!
- Txanton.- Kantu auexek daude orain modan.
- Bobix.- Daudela nai ba dute, baiña etzakela esan ori euskal-kanta danik. Oraingo marikittuen kanta dek ori.

- Txanton.- Beti ezin egongo gera lengoari begira. Berriak ere bear ditugu.
- Bobix.- Zertarako?
- Txanton.- Euskara indartzeko.
- Bobix.- Euskera indartu kanta oiekin? Ago ixilik, mutil.
- Txanton.- Zergatik ez ba? Oraingo gazteak beste erara ikusten degu mundua. Lengoak eta oraingoak guzitakoak bizi gera munduan, eta kantuak ere guzitakoak bear ditugu.
- Bobix.- Ez, ez, ez. Orrelako kanturik ez.
- Txanton.- Ori ba aita, munduan bere kurpillean gelditu nai izatea bezela degu, ez degu gelditu aziko.
- Bobix.- Edo bai.
- Txanton.- Ez, aita; ba dakizu ori eziña dala.
- Piti.- (Bobix eta Txanton eztabaidan ari dirala tokadiskoan erdal musika bat jarri du ta Txanton'en gana urreratuaz) Zer euskal kanta zaar eta euskal kanta berri. Betoz neri atsegin zaizkidan kantu eta dantzak. (Ta dantza egiteko Txanton'i eldutzen dio).
- Txanton.- Entzuten du aita? Gure eztabaidaren ondorena auxa degu. (Dantza egiten asten dira. Pitik oso nabarmen egingo du).
- Mini.- (Bobix'i) Eta guk zer egiten degu? (Bobix'i eldu ta dantzan asiko dira. Mini oso nabarmen au ere, eta Bobix berriz, oso baldar, ikusleak parre egiteko eran) (Otan ari direla)

ZAPIA

Bigarren ekitaldiaren bukaera

IRUGARREN EKITALDIA

Antzeztokia

Bigarren ekitaldikoa bera, baiña, mai ta alkiak apalagoak, apaindura gutxiagokoak. Eta berdin jarri ditezken beste gauzak ere.

- | -

Bustingorri ta Madalen

- Madalen.- Eseri zaite, gizona. Prisa aundia badezu ere, zutik egon edo eserita egon, berdin izango zaizu ta.
- Busting.- Bai, egia dezu ori ere; baiña...
- Madalen.- Onezkero ez det uste asko berandatu danik. Kamio bat zeukaten arrai-kajaz kargatu bearra Madrid'a bialtzeko, eta ez du asko tardatuko. Beste aldetik, ba dakizu gure ltxasne ez da kaletan kontu-kontari errex gelditzen dan ortakoa.
- Busting.- Ez, ez; ortan aparta da. Gelegia nik uste. (Exertzen da).
- Madalen.- (Exertzen da baita ere) Gajoak, ez du, ez gaztetasun alaia ezagutu. Zer izan da, ba, Orren gaztearoa? Lan da lan egin bearrekoa; besterik ez.
- Busting.- Bai, makinatxo bat lan egindu gaxoak.
- Madalen.- Oraingo aldi ontan batez ere. Eta eskerrak berari. Nere ama zanak esaten zekian, mundu ontan asko ikusteko etzala bearrezkoa urte askoan bizitzea. Eta etzuan gezurrik esaten. Gurean gertatua ezagutzea baño ez daukagu. Oraindik bi urte ez dirala guziok poz-pozez arkitzen giñan, Txanton'ek pelotaritzako txapela irabazi ta Miami alderuntz irten zanean. Igaz, Txanton ezkondu edo ezkontza legea

angotar batekin eginda etorri zanean, mundu guziaren jabe bezela ikusten giñan guziok; naiz ta neretzat samintasun aundia izan bazan ere. Aurten, berriz,... (Negarrez astenda)

Busting.- Etzazu jarraitu, Madalen, ba dakit zer gertatzen da eta. Egia esan, ba nekian nora joko zendun, eta exeri ere ez nuan egin nai.

Madaien.- Ez dezu ez arrazoirik palta, gure nai gabeak entzun nai eza. Nik, ordean, bota nai izaten ditut kanpora, bota nere barrutik, adiskide on batek entzun nai dizkidanean.

Busting.- Eskerrik asko, zure konfiantza nigan galdu ez dezulako. Eta bota, bota zure naigabeak bildurrik gabe barrua lasaitu dezazun.

Madalen.- Igaz gurera sartu zan zoritxarra aundia izan ba zan, zer esan aurtengoatzaz? Gure Txanton, balea apurtzeko aiñako mutilla, itsututa, ezer ikusten ez duala, bere emazteak ezkontza ausi ta bazterrera utzita arkitzen da. Zoritzar aundiagorik nai dezu? guzien errukarri, iñongo laguntasunik gabe dala ikusita?

Busting.- Txanton, itsu arkitzen da, zoritzarrez; baiña iñongo laguntasunik gabe ez, Madalen, iñongo laguntasunik gabe, ez. Gure aldetik aldegunaz laguntzen diogu, beintzat.

Madalen.- Bai, ba dakit. Asko laguntzen diozu edo, laguntzen diguzu. Baiña, ba dakizu zer gerta oi dan onelakotan, eman bear duanarentzat asko izaten dala ematen duana eta artu bear duanarentzat berriz, ez ain, asko. Ingeles begi-sendalariak ere, ba dakit asko lagundu diona Txanton' i . Arek egiten ziozkan erremedioak etziran txoritxiki batekoak. Baiña, ainbeste egin ondoren, ontan utziko zuan ba? Berak esan zigunez, biar edo etzi, iñoiz bista ederrez ikusteko bizi giñan guziok, eta gero, goizetik gauera, ez Jesus eta ez amen, ontan utzi mutilla berak iges eginda?

Busting.- Nik uste, zerbait gogorra izan duala Mr. Amith' ek. Ura dan bezin gizon osa izan eta iñori argibiderik eman gabe joan? Ez, ez, ez; ura ez dijoa ezer gerta ez palitzaio. Zerbait gogorra izan du arek.

Madalen.- Zer izan ote du, ba? Guk ez diogu, dakiguna beintzat, ortarako biderik eman.

Busting.- Ez guk ere. Beñere baño obeto portatzen alegindu gera guziok etxean. Eta ezer esan gabe joan? Guziok, poz-pozez geunden, noiz entzungo Txanton' i bista ekarri diola eta berriz pelotan ikusteko. Poz-pozez gero, urrengo egunari begira.

Madalen.- Gezurra ote zan ba, eman zigun itxaropena?

Busting.- Ez, Madalen, ez. Ezazu orrelako uste txarrik egin. Beste zerbait izandu. Mr. Amith, jakíña, ez da Jainkoa ta ekibokatzea, oker egotea, ez litzake beste munduko gauza

izango. Baiña, joan zan egun artan bertan ere, ziurtasun osoz kontatzen zuan Txantoní bista ekarriko ziola. Beste zerbait pasa da emen.

Madalen.- Zer pasa ziteken, ba?

Busting.- Orixe ez dakiguna.

Madalen.- Josan´ek zerbait agindu ez padio ala ere.

Busting.- Zer diozu emakumea? Nola esan zenezake ori?

Madalen.- Barkatu Bustingorri. Ez dakit oraintxe zer esaten dedan ere ta.

Busting.- Orrela izan bear, beintzat; bestela...

Madalen.- Baiña, egia esan, nere burutik ezin det kendu uste txar ori.

Busting.- Zer uste txar dezu ori?

Madalen.- Josan´ek ez duala nai Txanton´i bista etortzerik.

Busting.- Bañan, nola pentsa zenezake ori?

Madalen.- Bai, Bustingorri, zuk ondo dakizun bezela, Mr. Amith eta Josan oso adiskide minmiñak dira.

Busting.- Bai, ba dakit ori, eta adiskidetasun ori dutelako asi zan Txanton sendatzen.

Madalen.- Bai, asi bai. Josan´ek eskatuta asi zan. Baiña, iges ere Josan´en gatik ez ote du egin? Josan´ek Itxasne maite du. Itxasnek berriz Txanton maite duala, lepoa jokatu nuke.

Busting.- Ez, emakumea, ez.

Madalen.- Ezetz? Igaz, Txanton bere sasi-ezkontza eginda etorri zanean, orduan bai, etsi zion, da Josan´i itxaropena eman zion, nunbait. Baiña, orain, Txanton libre dala ikusi duanean? Bai, bai, ez dit neri ori burutik kenduko.

Busting.- Orduan zure ustean, Txanton osatzerik ez du nai Josan´ek.?

Madalen.- Nola nai izango du ba, Txanton´ek bista artzen ba du, bera Itxasne gabe geldituko dana ba daki?

Busting.- Ez, Madalen. Josan ez da zuk uste dezun bezelakoa. Ori baiño gizonagoa da. Bai orixe. Eta ez det uste, gaiñera. Itxasnek Josan utziko duanik Txanton´engatik.

Madalen.- Geroak esango digu ori. Josan´ekin ezkontzeko gogoia izan ba lu Itxasnek onezkero ezkondu zan; eta Txanton´en zai; baiña...

Lengoak eta Itxasne

- Itxasne.- (Amantal urdin ta olezko traskoak eskuan dituala kaleko atetik agertuko da) Egun on!
- Madalen.- Ba ator neska? Ondo luze izan dezute gaurko kamio kargatze ori.
- Itxasne.- Etzan luze izatekoa, baiñan, txoperrari berandatu egin zaiola edo, aitzaki ori izan dalako, beranduago asi gera. Eta, jakina, beraunduago etxeratu ere egin bear.
- Busting.- Neretzako arraia atera al dezute?
- Itxasne.- Atera bakarrik ez, Eraman ere neuk eraman det.
- Busting.- Kezka bat kendu didazute, orduan. Telefonoz deitu dedanean, ez dit iñork erantzun eta, ala ere, aztu egin ote zaizuen bildur nintzan.
- Itxasne.- Josan bankura joana zan da, ezin ba erantzun arek.
- Busting.- Orduan, eraman ba dezu, eskerrik asko.
- Itxasne.- Ez da zerengatik.
- Busting.- Ordaintze kontua berriz, Josan´ekin egingo det.
- Itxasne.- Arraiak bereak dira ta, jakiñan, arekin kontu-pagatzesak egin bear.
- Busting.- Aren emazte egiten zeranean, zurekin egingo, ditut, ordea.
- Itxasne.- Ja, ja, jai...
- Busting.- Tira, tira! Mari-arro! Ez ote dakit, ba, laister ezkontzez zeratena?
- Itxasne.- Gu laister ezkondu?
- Busting.- Ai, Madalen, Madalen! Etzera gaizkil Arranondoko armadorerik ospetsuena laister etxean artu bear dezu ta. Ori da suertea, ori!
- Madalen.- Suerte guretzat! Ez detuste. Negarra, negarra izango da, beti bezela guretzat .
- Busting.- Ondo negartia zaude gaur beintzat. Ez du olako izan bear emakumeak. Arpegi alaiz begiratu bear diozu etorkizunari.
- Itxasne.- Begiratzea da errexena.
- Busting.- Ona besteza! Zuk ez dezu triste dagoana asko alaituko. Bueno, bueno! Gurean onezkero, nun sartu ote naizen galdezka an ariko dira ta banoa. Gero arte (Joaten da)
- Biak.- Gero arte.

- Madalem.- Ia, neska. Jantzi oiek kendu itzan, otzitu gabe, izerditan agonda.
- Itxasne.- Bai, ama, ondo goga eginda nago. (Sukaldera jaoten dira biak).

- III -

Bobiz eta gero Txanton

- Bobix.- (Kaleko atetik agertzen da. Oso itun. Agertu bezin laister, zalantzan egon ondoren, gelako ateruntz zuzenduko da; baiña, bat baten, bere arpegira eskuak eramanaz gelditu egiten da, ta atzera eginda exertokian exeritzen da, besatar-tean bere burua izkutatu nairik)
- Txanton.- (Itsu, gelako atetik agertzen da, an ate ondoan, geldituaz) Aita, aita! Nun zaude? Nun? Entzun zaitut etortzen. Alperrik dezu izkutatzea. Ala ez ote dakizu itsuaren belarriak entzun eta ikusi egiten dutela? (Deia gogorrago egiñaz) Aita! Aital
- Bobix.- (Negarrez) Seme!
- Txanton.- (Nun arkituko asten da urreratuaz Bobix dagoen tokira)
- Bobix.- (Alkia gertatzen dio ta bere ondoan exertzen lagundu) Emen niok, seme, emen, gure zoritxarrez.
- Txanton.- (Exeri ondoren) Zer diozu, aita, zer?
- Bobix.- Ez diat ezer jakin. Etzekik iñork ezer.
- Txanton.- Nora joan danik ere ez?
- Bobix.- Joan, bere errira joan omen dek; baiña, ezer besterik etzekitek.
- Txanton.- Bere errira, bere errira! Baiña, zer dala ta? Zer izan du ni ontan, ontaraiño ekarri ta onela uzteko? Jakin egin bear degu, aita; jakin.
- Bobix.- Egin diat nik neiku alegin ori jakitzearren; baiña, alperrik.
- Txanton.- Alperrikakoa izan bear ote zaizkit ba, egin ditudan amets guziak? (Negarrari ematen dio)
- Bobix.- Txanton!
- Txanton.- (Zoro egiñik) Ikusmena nai det, aita; ikusi nai det.
- Bobix.- Ikusi ere, ikusiko dek.
- Txanton.- Noiz baña, noiz?
- Bobix.- Laister seme.
- Txanton.- Ez, ez da ori egia; gezurra esaten didazu.

- Bobix.- Ez, ez dek gezurra. Euk dakik ori ondoen. Lengo illuntasun aren ordezt, argi erreñoz ikusten dekala ez dek esaten?
- Txanton.- Bai, baina...
- Bobix.- Egia dek ori, beintzat; ez gezurra...
- Txanton.- Baiña, ez da argi-erreñu ori geiago argitzen.
- Bobix.- Denpora bear ortarako ere.
- Txanton.- Denpora ez, aita; Mr. Amith'ek jartzen zizken inyekzioak baiña; Mr. Amith nik ber, aita. Mr. Amith.
- Bobix.- Bear bada beste sendalari batek ere...
- Txanton.- Ez, ez. Beste sendalari batek ez. Amerikar sendalariak egin zizkitenak ere nekua dira; beste sendalariaken menpe jarri gabe.
- Bobix.- Zer esatea nai dek? Inglaterraruntz joan al bauke! Baiña. nork guri orrebesto diru aurreratu? Nork ordaintzeko gero?
- Txanton.- Neuk, aita, neuk, pelotan jokatzen asten naizenean. Bai, bai. Ez dezatela orren kezkarik euki. Nere lenengo diruak ortarako izango dira: zorrak ordaintzeko.
- Bobix.- Bai, ba zekiat, baiña...
- Txanton.- Zer?
- Bobix.- Bestearen sauriarenmiñak, gutxi arduratzen duala min-artzen ez duena.
- Txanton.- Karidadeko junta edo orrelako zerbait ba da, ba, errian. Orrek ez ote liguke lagunduko?
- Bobix.- Karidadeko Junta! Karidadeko Junta!
- Txanton.- Ori bera, aita. Ori bera, aita.
- Bobix.- Ba zekiat bai, baiña ba zekiat baita ere, zer erantzupen artu nuen. Ondo gogoan zeukatek.
- Txanton.- Zer daukate ba, gogoan?
- Bobix.- Ire laguntzaren bearrean izan ziranean, zera... Baiña irea ez uan izan errua. I galdu ituan txatxala arek, arek izan zikan erru guzia. Eta gero, i guziak pagatzeko.
- Txanton.- Ez dakit ezer.
- Bobix.- Obe ez dakikan. Gutxiago sufrituko dek. Baiña, zertarako lengo kontuak gogorazi? Oraingo ontan zeukagu korapilloa, ez nolanaiko korapilloa errel Zer egin? Nundik asi? Nora jo, len jo ez degun tokira?
- Txanton.- Zer izan duala, baiña, gizonak, ni onela baztartzeko? Zer egin diot, onela, ez zeru, ez inpernu, betiko linbo beltz ontan uzteko? Zer? Zer egin dizut, Mr. Amith, zer?
- Bobix.- Ezer ez, ik ez diok ezer egin. Baiña, ori, nere atso ori, ez ote dek geiegitxo joan bere betiko ingalaterako leloa kontatzen?

- Txanton.- Zer esan zezakion orrela mintzeko, minduta joan baldin ba da?
- Bobix.- Etzekiat, etzekiat. Bakar-bakarrik auxe zekiat: ez dakidala ezertxo ere.
- Txanton.- Dirua ba gendu, diruak asko al dezake.
- Bobix.- Mantxurrianoak emango ba ligu.
- Txanton.- Ez, ez, ez. Mantxurrianoak dirurik ez. Ez detorren mesederik nai.
- Bobix.- Ez ni neuk ere, ez diat orrenmesederik nai, baina...
- Txanton.- Ba daki lagundu nai ba du. Baiña, nola lagunduko digu ba, gure etxeko odolarekin jolasean ari ba da?
- Bobix.- Bai, ba zekiat ori. Aspaldi pentsatzen nikan. Ez nauk ni gezurtatu ez. (Jeikiaz eta amurruz) Baiña, orain bertan probatuko diat ori. Berari eskatuko zioat guk bear degun dirua, gurea duan dirua, odol-jolazaren ordain dirua. Bai, oraintxe bertan, gaiñera. Ikusiko dek.
- Txanton.- Ez aita ez, aren dirurik ez.
- Bobix.- (Dijoala) Ez dek aren dirua, gurea baizik. (Joaten da).

- IV -

Txanton bakarrik gero Madalen

- Txanton.- (Berekiko) "Ez nuan uste iritzitzerik onetara azkenian, Limosnatxo bat eskatutzerik Jainkoaren izenean"
- Etzuan ez, gezurra esan, antziñakoitsuak! Eta orain, ori beragertatzen neri. Oraindik atzo, mundu guzia nere oiñetan nuan, esate baterako. Miami'ko aundizki guziak, nere adiskide ziran. Txaloka ta musuka artzen nituen agertzen nintzan alde guzietan. Millaka izaten ziran ni ikustera, beste gabe, joaten ziranak frontoira.
- Madalen.- (Sukaldeko atetik agertu bedi eta ixillean Txanton'ek diona entzuten gelditu)
- Txanton.- Eta gero jokia bukatu ondoren, kendu eziñez eukitzen nituan nere zai, beren automobilletan erabiltzeko. Guzien begiko nintzan eta guziak nai izaten zuten nere inguruko izan. Zer nai? Uraxe neukan. Eta orain, zer daukat orain? Ezer, ez. Ez aundizki, ez txalo, ez ni ikustera datorrenik, ez automobildunik, ez ezer. Guzia bukatu da neretzat, bukatu? Ez, bukatuko balitz bai obe. Baiña, ementxe ementxe igaro bear nik, betiko gau onetan igaro bear nere bizitzako egun gabeko egunak: nere eten gabeko gaba. Non dira orain

ainbeste loxintxaz irabazi ninduten ama alaba aiek? Nun? Au da egin didatena! Irabazi nituan txanpon guziak jan ondoren, zarpil-zar bat bezela bazterrera utzi? ! (Negarrez asten da).

Madalen.- (Txanton'engana urreratuaz eta gozoro) Txanton! Zer esan dek? Orren aguro etsi motel? Nun dituk ire ametsak, nun?

Txanton.- Amesak bai, ama, amesak. Amets utsak. Egi izatea nai nik, guzia egi; baiña guzia alperrik, guzia alperrik.

Madalen.- Ez. Txanton, ez. Ikusiko dek.

Txanton.- Ikusi? Orixe nai det, ama. Ikusi! (Elkarrerri elduta gelara joaten dirala gelditu ta aldaturik) Bai al degu Mr. Amith'en berririk?

Madalen.- Ez.

Txanton.- Eta zer dala ta joan zanik ere ez?

Madalen.- Ez, ez diat jakin oraindik.

Txanton.- Gogorra da. Zuk etzeinon ba, zerbait esango?

Madalen.- Zer nik esan? Zergatik diok ori?

Txanton.- Aita bildur da ala ere... Zeren bildur?

Madalen.- Zeren bildur?

Txanton.- Zuk zuri Ingalaterran gertatutako zerbait esan ote zenion edo...

Madalen.- Ez, Txanton, ez. Ez nitxion ezer esan nere Ingalaterrako berririk. Egia esan, esan naian, esateko asmoz izan nindukan; baiña, ez nitxioan ezer aitatu. Etzak orren bildurrik izan.

Txanton.- Mantxurriano orrek ez ote daki zerbait?

Madalen.- Ez nitek esango ezetzik; baiña, alperrik zebillek, (Gelara joaten dira biak)

- V -

Josan, Itxasne ta gero Madalen

Itxasne.- (Kaleko atean deia entzun da ta sukaldetik irten eta kalerako atera joaten da, eta irikiaz) Josan

Josan.- (Kaleko atean agertez da) Barkatu baiña zuri ta zure amari itz-egiteko asmoz nator.

Itxasne.- Orain?

Josan.- Bai, bai. Orain bertan

Itxasne.- Sartu zaite orduan eta exeri (Alki bat aurreratzen dio) Zerbait gertatzen al zaizu?

- Josan.- Zerbait baiño geiago ere bai. Izan ere, zure aitak esan dizkidanak entzun da, nor lasai gelditu? Ni ez beñipein.
- Itxasne.- Zer esan dizu ba?
- Josan.- Lurrak ere ezin entzun lezazkenak esan dizkit, ea uste det, ez diodala iñoiz ere orrelakoak neri botatzeko motiborik eman. Ez du eskubiderik gu biongatik esan dituanak esateko. Ez gutxigorik ere.
- Itxasne.- Gu biongatik esan dezu?
- Josan.- Bai, bai; gu biongatik. Baiñan, ez du berriz esateko aukerarik izango. Orain bertan garbituko det arazo au. Zure amaren aurrean garbitu ere. Etxean al da bera?
- Itxasne.- Bai, bai; etxean da. Txanton'en gelara joan dala uste det. Pixka batean egoten ba zera, beriala izango da emen.
- Josan.- Egongo naiz, bai. Berarekin itz egin gabe ez nuke irten nai.
- Itxasne.- Dei egitera noa. Berialaxe gera emen. (Gelara joaten da)
- Josan.- (Batera ta bestera urduri dabil eta pixkatean orrela ibilli ondoren, Madalen eta Itxasne atetik agertzen ikustean) Egun on, andre Madalen.
- Madalen.- Baita zuri ere, Exeri zaite, exeri zaite.
- Josan.- Eskerrik asko. (Guziak exeri bitez)
Nere onetik pixka bat irtena nator eta barkatu, arren, gogortxo iruditzen bazaizu nere etorrera au.
- Madalen.- Ez, ez da. Itz egiñaz aditzen dira personak.
- Josan.- Ba dakizu aspaldi dala, eta geroxeago ere bai, Itxasne'ri nere emazte izateko mandatu egin niona.
- Madalen.- Bai, ba dakit.
- Josan.- Baiña, beti ere, luzapena eman itan dit; zuen familiko goraberak izan diralako.
- Madalen.- Izan ere ez ditugu makalak izan. Nik esan bearrik ez dezu.
- Josan.- Ba dakit, bai; ondo jakin ere. Luzapen oiek ordea, ez dute nere biotzeko maite-sua itzali. Nere maite-sua, geruago ta sutsuago egin dute. Baiña, ez du iñortxok ere esango, nere maitetasun sutsu ori dela ta, nere izatearen neurria galdu izan dedanik, ez bear diodan errespetoa galdu izan diodanik... Ba det ontan, nere gizon izatearen arrotasuna.
- Madalen.- Orrela bear ere.
- Josan.- Beronek esango du egia aitortu nai ba du.
- Itxasne.- Egia da ori, egi-egia.
- Jolas.- Zure senarrak ordea, sekulako uste txarrak egiñak ditu nunbait gutzaz, eta asarre bizian, lur-jota utzi ditu gu bion izen onak. Orregatik, eta ikusi dezan arek egiña duen ustea

gezurrezkoa dala, Itxasne nere emaztetzat eskatzen dizut; ortarako eragozpenik ez ba dezu.

Madalen.- Ba dakizu lendik ere zer eragozpen arkitzen dan zuen artean.

Josan.- Barkatu, baiñan, ez det uste gure ezkontza aurrera eraman eziñeko eragozpenik danik. Sinispen batekoak gera, ezkongaiak, libre gaudenak eta beste iñundiko eragozpenik ez da gure artean.

Madalen.- Edo bai.

Josan.- Nere abizena euskotarra ez izatea? Ez da ori eragozpena. Ezin izan diteke, gaiñera. Eta ez dala ikusteko, aski degu gure inguruan begiratzea. Errez-errex konturatuko gera gaiñera. Eta ez uste izan emen ingurukoak bakarrik diranik, ez. Asi ingles, aleman, prantzez, eta bara, ikusiko ditugu. Oiek eragozpen gabe, zoriontsu bizi ba dira, zergatik ezin gindezke gu ere orrela bizi? Egia esan gure artean eragozpen bat izango litzakela uste det. Eta aurrez esango dizuet, gero zer esanik izan ez dezazuen.

Madalen.- Zer eragozpen degu ori?

Josan.- Ni euskalerrian poz-pozez bizi naiz. Geien maite duenak bezin maite dedala uste det gaiñera. Nere seme-alabak ere, maitasun ontan eziko dira, baiña nere seme alabak, nere abizena, nere Gutierrez au, argi ta garbi eraman bearko dute. Or egon diteke gure eragozpena. Ez diet nik utziko G. de Ibarra edo G. Ibarra izenpetzen, emen askok oitura duten bezela. Ez, ez. Ibarra abizena emengo mendi-artean sortua dalako errotzen ba dira, Gutierrez bat, Kaztillako lurzabaletan sortua dalako ez dute zertan lotsatu. Orra, ba, gure-artean egon diteken eragozpen bakarra azaldu.

Madalen.- Beste bat ere ba degu (Itxasnegatik) Au ixilik dago eta onek eman bear du lenengo bere itza.

Josan.- Zer esaten didazu? Zer Itxasne?

Madalen.- Ez dizu baietzik ematen. Ea baietza ez ematea, ezetza dezu.

Josan.- Egia da ori? Egia, Itxasne?

Madalen.- (Itzik ere egin gabe bere eskuz arpegia eztaltzen du)

Josan.- Barkatu, andre Madalen. Ez nuan uste. Baiña, oartzen dedanez beste maitasun bat dago bitartean. Zer egingo degu, ba! Baiña, ez nuke nai au dala ta orain arte izan degun adiskidetasuna zintzoa galtzerik. Adiskide onak izan gindezke, Itxasne.

Itxasne.- Eskerrik asko.

Jolas.- (Jeikiaz) Eta oraingo etsipen au saminkor bazait ere, sinistu Itxasne, zure zoriontasuna beste maitasun ortan arkituko ba zendu, zoriontsu izango nazu ni ere zure zoriontasun ortan.

Egizko maitetasuna ori baidegu; norberaren zoriontasuna bestearen zoriontasunean arkitzea. (Guziak ikusteko eran musuzapia atera ta bere begietata eramanaz irtego da).

- VI -

Itxasne ta Madalen

- Itxasne.- (Ordurarte negarrari eutsi eziñaz egon ondoren, Josan irten dela oartu danean negar uluaz asten da).
- Madalen.- (Urreratuaz) Ixildu adil Ixildu gajo oril Ba zekiñat, gogorra den maitasun ori eten bearra. Baiña Txanton gure bear den, eta ezin utziko diñagu mutilla iñongo itxaropenik gabe. Berak, bere gau luze ortan dala, eguna argitzen zaionerako, amets aundiak egiñak dizkin, eta amets oietan, i zoriontsu egitea din lenena. Eta egin ere egingo au. Etzan orren ezpairik izan.
- Itxasne.- Josan gisajoa! Iru urte luzetan, nere itxaropenez bizi izanda, eta azkenian...
- Madalen.- Etsi din arek, ondo gizon portatu den.
- Ixasne.- Ni ez ordea, nik ez det etsi; ezin nezake etsi ere, ama. Len benetako maitasuna ez da saldu-erosketa bat bezala. Biotza ezin diteke saldu ez erosi ere. Eta nere biotza...
- Madalen.- Entzun ditun bere itzak.
- Itxasne.- Bai, bere itzak entzun ditu; baiña, bere agurrik ez. Agur egite adorerik ere ez du izan. Josan gizajoa! Nere erruz, ni epel bat naizelako... (Negarrez jarraituko du)

- VII -

Lengoak eta Txanton

- Txanton.- (Gelatik irtenaz) Zer du, Itxasnek?
- Madalen.- Ezer ez. Zer izatea nai dek?
- Txanton.- Zergatik ari da, ba, negarrez? Zer dala ta?
- Madalen.- Gogon dualako, zerengatik izatea nai dek? Josan´ekin eztabaida bat izan dik eta ba dakik olakoetan zer gerta oi dan.
- Txanton.- Ez, ama, ez. Ez da egia. Ba dakit zer pasatzen dan, zuek uste ez dezuten arren. Zuek emen izan dezuten izketaldi guzia entzun det.

Madalen.- Txanton!

Txanton.- Bai, ama. Eta ez det nai ltxasne´k neregatik Josan utzitzerik. Josan maite du, eta ez du zergaitik ukatu.

Madalen.- Baita ik ere maite dek.

Txanton.- Bai, maite det; maitasuna au diodalako, ben benetan ltxasne maite dedalako, zoriontsu izatea nai det. Eta ni ere, oraingo izaera triste onetan jarraitu bearko badet ere, zoriontsu izango naiz, arreba on bat zoriontsu dala jakitzean... Ori izan da nere betiko amesa. Barkatu ltxasne. Uste txarrak egiña nintzan. Zuen maitasun ori gezurrezkoa zala uste nuan, bide txar batean sartuta zeundetela uste nuan. Eta, batez ere, nere maitasuna bitarteko zala, ori etetzea nai nuan.

Madalen.- Baiña, nola egin dituk uste txar oiek?

Txanton.- Ama, kanpoetan ibilia naizela aztu egin al zera?

Madalen.- Ez, ez, nauk aztu ez. Baiña, ondo dakit ire arreba zer nolakoa izan dan beti. Egunero-eguneo, Jauna artzera urreratzen dan arreba batengatik orrelako uste txarrak egin?

Txanton.- Barkatu. Barkatu, ama, barkatu. Ta barkatu zuk ere ltxasne. Non zaude, non? Besarkatu zaitzadan!

ltxasne.- (Jeiki ta bero-bero besarkatzen du) Txanton!!!

Txanton.- ltxasne !!!

- VIII -

Lengoak eta Bobix

Bobix.- (Atetik agertuko da, poz-pozez) Txanton! Txanton! Utziazkiok oni. Emen, emen zeukagu dirua.

Madalen.- (Arriturik) Dirua?

Bobix.- Bai, bai dirua. Diru asko. Ingalaterra joateko eta geiago. (Txanton´i emanaz) Ar zak aguro.

Madalen.- Baiña, nundik eta nola lortu dezu?

Bobix.- Nundik? Zegoan tokitik (Arro-arro) Bai, bai. Ikusi bearko dute berriz ere. Bai orixe!! Txanton berriz ere txapeldun izango da.

Txanton.- Ez, aita, ez.

Bobix.- Zer? Ez dekala joan nai?

Madalen.- Nora joatea nai dezu dagoan eran?

Bobix.- Joan ez? Bai nere burua zutik ba da, joango da au. Etzak atzera egin orain dirua ba zeukagu ta.

- Txanton.- Baiña ez da gurea.
- Bobix.- Bai, bai, gurea dek, gure-gurea.
- Txanton.- Nola gurea?
- Madalen.- Bidegabekeririk etzenduan egingo noski?
- Bobix.- Bidegabekeriak len egin zituzten.
- Txanton.- Ez aita, ez. Gure uste txarrak besterik ez da izan.
- Bobix.- Zer diok?
- Txanton.- Entzun dezuna. Ez da gure dirua ori Josan'ena da.
- Itxasne.- Josan'ek eman al dizu?
- Bobix.- Ez, eman ez, artu egin diñat. Gure degulako artu ere.
- Itxasne.- Lapurtuko egin dio, lapurtu. Neregatik guzia...
- Madalen.- Lapurtu? Etzenduan ori egingo? Ez genduke besterik bear!
- Itxasne.- Zer egin dezu, aita zer?
- Bobix.- Egin bear nuena. Ta ondo egin ere.
- Txanton.- Ez, aita. Bidegabekeri bat egin dezu. Eskatu egin bear zenion. Eskatu: artu, ez.
- Bobix.- Eskatzerik ez uan nai, eskatzerik ez. Orregaitik egin diat, orregaitik ostu diat. Baiña ba zeukagu dirua orain, naiz ta kartzelara joango ba nauk ere. (Zoro egiñik) Kartzelako illuntasuna neretzat, illuna neretzat; baiña, argia, argia izango dek iretzat. Bai, bai... argia!! (Alkian exeriko da bere burua eskuta tean izkutatuaz eta negarrez)
- Itxasne.- Ama! Josan ikusi bear degu. Berari esan zer gertatu dan.
- Txanton.- Bai, Itxasne. Aitak ez daki zer egin duan. Oker aundia etorri lezaioke.
- Madalen.- itzuli egin bear diogu, lenbaitlen, diru ori. Orretara oker txikiagoa izango degu.
- Itxasne.- Bai, bai.
- Madalen.- Ixo, norbait degu atean.
- Bobix.- (Bildurraz) ez,ez! Ez aterik iñori iriki! Ez, ez!
- Madalen.- Baiña... Aral Berriz ere atea jo dute.
- Txanton.- Ikusi zazu nor dan.
- Bobix.- Ez! Ez!

- IX -

Lengoak eta Ertzaiña gero Josan

- Madalen.- (Atea iriki duanean Ertzaiñarekin aurkezten da)
- Ertzaiña.- Zure senarra etxean al dago?
- Madalen.- Bai, etxean da baiña zer bear diozu?
- Ertzaiña.- Nerekin eraman bear det.
- Itxasne.- (Ate ondora urreratuaz) Zergatik eraman bear dezu, ba?
- Ertzaiña.- Barkatu baiña obe du nerekin etortzea; bestela gero Guardia zibillen erdian joan bearko du ta.
- Bobix.- (Jeikiaz eta urreratuaz) Ez, ez, ez. Guardia zibillen erdian ez. Zurekin joango naiz.
- Josan.- (Kaleko atetik une artan agertzen da) Nora joan? Au ez da iñora joango. Au emen geldituko da. Zergatik joan bear du onek iñora.
- Ertzaiña.- Ez al dakizu zer egin duan?
- Josan.- Onek ez du ezer egin. Eta ez dakizutenak zuek zerate. Ala nere diruaz ez al det nik agintzen?
- Ertzaiña.- Zure almazen-zaiak dei egin dit, eta arek esan dit guzia. Alegia, zure ofizinatik dirua...
- Josan.- Artu egin duala, neuk esanda artu dualako. Eta arek ur-gutxitan itotzen dan ortakoa danez, zera... Ala almazen zaiari kontuak eman berra daukat oni dirua eman bear diodanean?
- Ertzaiña.- Ez, ez barkatu Josan Jauna! Ala, ere, bestela zala uste nuen.
- Josan.- Orrela dezu ba. Eta ez nuke nai, nere almazen-zaiak izan duan arinkeri au iñori zabaltzea.
- Ertzaiña.- Ez, ez. Eta barkatu. Ba dakizu... guk ere...
- Josan.- Barkatua dago. (Eta zigarro puro bat atera ta Ertzaiñari emanaz) To! Nere almazen zaiak egiñarazi dizun alperrikako ibillaldi aztugarri.
- Ertzaiña.- (Poz-pozez artuaz) Eskerrik asko, eskerrik asko. Eta barkatu zuek ere etxequok uste gabe eman dizuedan naiga-beagatik.
- Itxasne.- Ez da exer izan joan lasai.
- Ertzaiña.- Eskerrik asko (Joaten da)

- X -

Bobix, Madalen, Itxasne, Txanton, Josan eta gero Bustingorri ta Mr. Amith

- Bobix.- (Josan gana urreratuaz) Eskerrik asko. Milla esker zuri.
- Madalen.- Eskerrik asko. Eskerrik asko.
- Josan.- Ez, ez. Eskerrik ez, eta eskuirik ere. Emen ez da ezer pasa. Ez naiz ni orregaitik etorri. Txanton' i poz aundi bat emateagaitik baiño. (Txanton` engana urreratua eta maitekiro bi besoetatik elduaz) Poztu Txanton! Poztu, Mr. Amith etorri zaigu ta.
- Guziak.- Mr. Amith!
- Josan.- Bai, bai. Mr Amith etorri da. Emen dira onezkero.
- Bobix.- Ona al dator?
- Madalen.- Gurena?
- Josan.- Bai, bai. Bustingorri lagun duela etortzeko gelditu da. Ez du asko luzatuko.
- Itxasne.- Poztu txanton, au poza.
- Josan.- Zuek asko sufritu dezute egun auetan, Mr. Amith` en berririk etzenutelako. Nik, ordea, ba nekian bazatorrena, eta ixilik euki bear nuan.
- Madalen.- Ba zenikizula?
- Josan.- Bai, andre Madalen. Baiña iñori ezer ez esateko esan zidan berak eta orra! Itza gordetzeko zuen naigabea bezin aundiz izan da nerea. Baiña, orain...
- Bobix.- Noiz dator ba?
- Busting.- Egun on etxekoak!
- Guziak.- Aurrera, aurrera!
- Busting.- (Aurrerra dator)
- Mr. Amith.- Egunon.
- Guziak.- Baita zuri ere.
- Mr. Amith.- (Txanton enagana zuzenduaz) Kaixo Txanton! (Besarkatzen du) Zer moduz?
- Txanton.- Oso ondo, edo ondo naiean.
- Mr. Amith.- Ondo Txanton! Oso ondo. Zure siñale ori oso ona degu.
- Txanton.- Ez dakit, ba. Ez dakit.
- Mr. Amith.- Bai, gizona, bai. Ikuste asi zeran argi ereñu ori, ori siñalerik onena dezu. Beste pare bet inyezio jartzen dizkizudanean,

guk bezin ondo ikusiko dezu. Ez izan kezkarik (Bobix'í) Ba dakit nere billa astekoz izan zerana; baiña ona ni emen.

Bobix.- Eskerrik asko etorri zeralako.

Mr. Amith.- Itxasne ta Madalen, zuek igesi al zabiltzazte?

Madalen.- Ondo etorri.

Itxasne.- Beste ainbeste opa dizut.

Mr. Amith.- Ongi arkitu. Eskerrik asko (Andre Madalen'í) Ongi al zira?

Madalen.- Zeresatea nai dezu? Ondo egoteko edo kezka gabe egoteko uneak ez ditugu izan eta.

Mr. Amith.- Orrelaxe duzu izan. Barkatu nire Ingalaterrara joatea onek arduritu ba zaitue.

Busting.- Ia Bobix. Bazkaria prestatua daukat nik, eta guziak alkarrekin jan bear degu.

Bobix.- Bai, bai. Merezi duala uste det egun oni bera ematea.

Mr. Amith.- Bai, bai. Konforme ni ere. Baiña, lenago andra Madalen'í Ingalaterratik ekarri diodan erregalu ematea egin bear degu.

Madalen.- Erregalua neri? ez da txarra orixe!

Mr. Amith.- Erregaiua, bai. Zuk asko estimatuko dezuna, nik uste.

Guziak.- Ia, ia.

Mr. Amith.- Beriala emango diogu. Baiña Josan'ek ematea nai det. Josan izan zalako erregalu orrenkontua esan zidana.

Madalen.- Tira, tira! Ia ondoeza egiteko eran nago oraintxe.

Mr. Amith.- (Eskuan ekarru duan kajatxo ematen dio Josan'í)

Josan.- (Emanaz) Andre Madalen! Artu zazu "mantxurriano" onek biotz biotzez eskeintzen dizun erregalua.

Madalen.- Eskerrikasko (Artutzen dio)

Guziak.- Erakutsi zazu.

Madalen.- (Irikitzen du kaja ta barrendik) "Kaiku-jertsey" bat azaltzen da. Gure Xabiertxorena) XABIERTXO!!! (Izen ori darama) Xabiertxo'rena. Gure Xabiertxorena! Nun da bera? Nun?

Mr. Amith.- Emen ama? Zure aurrean!

Madalen.- Xabier !!! (Besarkatzen du)

Mr. Amith.- Amaa!!! (Besarkatuta jarraitzen duten bitartean beste guziak arriturik)


Madalen.- Nere seme kutuna! Besarkatu zan ik erel Besarkatu guziok.

Itxasne.- Xabier!!!

Mr. Amith.- (Itxasne besarkatzen du) Itxasne nere arreba!!!

- Madalen.- Ba nekian! Ez nintzan ni gezurtatu
(Guziak besarkatzen dute)
- Busting.- Mirari bat da au.
- Mr. Amith.- Ez da miraria; baiña Goikoa gure lagun izan dugula, ez dago ezpairik.
- Madalen.- Ezin det sinistu ere! Geiegia da au!
- Mr. Amith.- Jakin miñez egongo zerate guziok nola gertatu zan guzia, eta itz gutxiz esango dizkizuet, bere herriak. Eastbourne´k arkitu omen ninduten nere guraso ordekoak, bonbardeo baten ondorean.
- Madalen.- Aita il zan bonbardeo ondoren izango zan.
- Mr. Amith.- Nungoa ote nintzen alegindu ziran jakiten; baiñan, gerratean gerta oi dan bezela, ez omen zuten nungoa nintzen jakin.
- Madalen.- Eta gero, nola jakin dezu ba?
- Mr. Amith.- Ondo kostata. Nere ikastaroak egin nituanean "Xabiertxo" kaiku-jertsay au an arkitzen zan, euskal izena zala jakin nuan. Eta orduan, Euskalerrira etortzen asi nintzan eta euskeraz ikasten. Eta lengoan, orra! Josan´ek bidea eman zidan, eta dakizurena besterik ez da gero gertatu.
- Madalen.- Eskerrik asko Josan!
- Mr. Amith.- Guziok daukagu oneri eskerrak eman berra, au izan bai degu bide ontan jarri gaituana.
- Guziak.- Eskerrik asko.
- Josan.- Ez, ez. Ez det zuen eskerrik merezi, nereko i bat izan naiz. Sari baten ondoren ibilli naiz, eta orrek ez du meriturik.
- Bobix.- Zer sari dezu ba ori?
- Madalen.- Ez genduke esker-txarreko zurekin izan nai.
- Busting.- Josan´ek nai duan saria, ltxasne da. ltxasne bere emazteatzat ematea, zuek konforme ba zerate.
- Guziak.- Bai, bai.
- ltxasne.- (Beso-zabalez Josan besarkatzera dijoala) JOSAN!!!

Antzerki au emen bukaizen da.



IOSU ARKOTXA

MARKESAREN SEMEA

PERTSONAIAK

- | | |
|---------------|--|
| 1.- Markesa | (Anderea) |
| 2.- Paula | (Sukaldaria) |
| 3.- Antoni | (Neskamea) |
| 4.- Juanita | (Markesen alaba) |
| 5.- Felipe | (Markes) |
| 6.- Fernando | (Markesen semea) |
| 7.- Josefina | (Fernandoren emaztegia) |
| 8.- Iturrino | (Satur Bertsolari eta
konposatzailea) |
| 9.- Gorgonio | (Juanitaren senarra) |
| 10.- Nikanora | (Gorgonioren arreba) |
| 11.- Isidoro | (Hermosillako dukea) |

ANTZEZTOKIA.- Areto eder bat antzineko haltzari ederrez jantzia. Erdiko horman behatoki zabala errezelekin. Behatokiaren ezkerrera, kutxa zotil bat, eta eskuin aidera hormetako erloju garaia. Aretoaren erdian mahai ederra, eta bera inguratzen aulkiak oro har eginaz. Mahaiaren gaineko aldean, sabaitik dindiiizka kiñuargia. Ezkerreko horman bi ate, lehelengoa txikia ikusleen aldetik, mirabeentzat, adieraziaz, sukaldea eta beste lantokiak etxearen alde hartara daudela. Bigarren atea, kanporako, liburutegirako eta loretokirako, haundia eta ederra izango da. Eskuiko horman, ezkerretako hormako ate haundiaren aurrez-aurre, hura bezelako atea, etxearen atal ezberdinetara joateko. Ate honen eskuian, hormari egotzita, telefonoa.

- | -

Oihala jasotzenda, eta antzeztokian, mahai aurrean, aulki baten jarrita, ikusleei arpegi emanez markesa. Hirurogei urte inguru ditu. Ilea nahiko zuria du eta arpedi zimurrak nabariak. Zotil jantzia dago eta bitxi ederrekin apaindua.

Mahai gainean artile mataza pila bat dago, markesak seinaka talde-tuko ditu, gero paper batean zerrenda bat egiten balego bezala, idazteko zeinuak egingo ditu. Telefonoaren txirrina entzungo da, markesak jeiki, entzungailoa hartu eta belarrira eramango du.

Markesa.- Nor da?

..... -

Markesa.- Barkatu, baina oso gaizki entzuten da.

..... -

Markesa.- Bai, bai, orain bai.

..... -

Markesa.- Noiz irten zuela esan duzu, atzo arratsaldean lauretan?

..... -

Markesa.- Orduan honera hurreratu samartu da.

..... -

Markesa.- Bai, bai, merci madame.

..... -

Markesa.- Bonjour madame.

..... -

Markesa.- (Entzungailoa utziko du) Arratsaldeko lauretan irten bazuen, beriheka helduko da, albistea eman diezaiodan. (Entzungailoa hartu eta eskutokiari eragiten dio) Andereino, mesedez, bat, bi, bostarekin.

..... -

Markesa.- Eskerrik asko. (Pizkatean zain egongo da) Bai Noratxo, neu naiz.

..... -

Markesa.- Badator e.

..... -

Markesa.- Parisko bere ostatu etxetik deitu dute.

..... -

Markesa.- Atzo arratsaldeko lauretan.

..... -

Markesa.- Tira, gutxienez etorrarari diogu, eta arloa ez da giazki hasi.

..... -

Markesa.- Gauzak ondo egiten baditugu, lortuko dugu.

..... -

Markesa.- Hariak gertu dauzkat, atxakia hobeagorik ez duzu izango etortzeko.

..... -

Markesa.- Hitz egingo dugu, gero arte. (Entzungailoa utziko du) Tira, badator behintzati, lehenengo amua iruntzi du. Noratxo baino aberatsagorik nor? Gure mailakoa ez da odol aldetik, baina beste batzu ere ez ziren, eta zer? Haundiki izena geuk dugu eta berak dirua galanki (Ezkerreko ate txikia ireki eta dei egingo du). Paula!

Paula.- (Barrutik erantzungo du) Bai, markesa andrea.

Markesa.- Dena utzi eta atoz.

Paula.- (Barrutik) Bai andrea.

Markesa.- (Bere artean hitz egiten du). Janari onak gauza asko konpondu izan oi dituzte, baina ez dakit atsegin zaion bazkaria gertutzeko astirik emango duen.

- II -

Paula.- (Ate txikitik Paula sartuko da, berrogeitamar urte inguru ditu, neskamea jantzi beltz eta amantal zuriarekin aurkezten da. Argala eta neskazahar itxurakoa). Markesa anderea.

Markesa.- Paula, seinoritua etxeruntz bidean dator eta laister helduko da, berari atsegin zaion bazkaria gertutzeko astirik izango ote dugu?

Paula.- Ene hau pozal Nik ez dakit ba, hamaikak dire, eta orain hasi ezker hirurak alderako edo ... baina oilaskoak oraindik eskortan daude ta...

Markesa.- Bixigu errea bere gogokoa da, eta Parisen ez du berdela besterik jango.

Paula.- Itsasontziak ordubatak aldean etorriko dire, eta bixigu ederragorik Ingalaterrako erreginak berak ez du jango.

Markesa.- Prantzizkari esan lesaiozu pare bat ederrak albait azkarren bialtzeko.

Paula.- Bai andrea, eta ...

Markesa.- Zer?

Paula.- Beharbada Aranaga baserrian oilagorrak badituzte, ehiztari amorratuak dire eta...

Markesa.- Oilagorrak?

Paula.- Azkenengo egon zanean, gure amonak neuri bakarrik erakutsi zidan saltsarekin ipini nion eta esan zidan gozoagorik behin ere ez zuela jan, eta markes jaunak ere oso ederra zegoela esan zidan. Antzomendiko lau urteko sagardoa daukagu, eta beste gauzatxo batekin laister moldatuko nituzke.

Markesa.- Ondo dago, Juan Jose Aranaga joan dadila eta ia sei oilagor ekartzen dituan.

Paula.- (Harrituta bezala) Sei?

Markesa.- (Ixilka) Bai, badakizu...

Paula.- (Kidekeriz) Bai andrea, ondo dago, banua jendeari zirkineraztera (Ate txikitik joango da).

Markesa.- Sorgin samarra da, baina sukaldari bezala parerik ez du.

- III -

Markesa.- Kontu handiarekin ibili beharko naiz, gure mutil hau aitaren semea da, Saturrarantarra, eta ezer susmatzen badu ... (Telefonoaren entzungailoa hartu eta eskutokiari eragiten dio). Andereino, mesedez bat, bi, bostarekin.

..... -

Markesa.- Eskerrik asko andereino. (Entzungailoa eskuarekin estaliaz) Hau berau ere sorgin txikia ez da eta kontuz ibili beharko honekin ere. Nola esan. Noratxori noiz etorri honek susmurik egin gabe?

..... -

Markesa.- Bai, begira, ezingo naiz batzarrera joan eta zeu etorriko bazina hariak jasotzera...

..... -

Markesa.- Gaur Felipek ustegabeko ikustaria dauka, eta laguntzeko esan dit.

..... -

Markesa.- Hirurak aldean etxean egongo gara.

..... -

Markesa.- Horrela gure ikustaria ezagutuko duzu, oso interesgarria da, hitzaldiak ematen dituzten hoietakoak, beldur gabe etorri.

..... -

Markesa.- Gero arte orduan (Entzungailoa uzten du) A! Ez dakit nahiko garbi esan diotan bazkaltzera etortzeko, batzuetan hitz erdiarekin dena ulertzen du baina ... (Ate txikia ireki eta deitzen du) Antoni ! Antoni!

Antoni.- (Barrutik) Bai markesa andrea.

Markesa.- Markes jaunari esan iezaiozu berihala beriahala etortzeko.

Antoni.- (Barrutik) Bai markesa andrea.

Markesa.- (Ate txikia itxitzen du) Nola hartuko ote du. Oraingoan ezingo dut zuritu, lehen ere ez dakit damutua ez dagoen eta.

- IV -

(Eskuiko atetik, Juanita, markesen alaba sartuko da. Hogeitabost urte ditu. Etxeko txabuxa luzea soinean eta bizkarrean lepoiala dakar. Gaixo itxura haundia du.)

- Juanita.- Zer duzu hainbesteko artegatasunarekin?
- Markesa.- Ez da erreza auekin topo egiten, behar ez danean bai, zuen buruak bazterretan izkutatu eta hor konpon bestiak.
- Juanita.- Nahi duzunean furfurua gutxiagorekin arkitzen gaituzu. (Aulkian jartzen da).
- Markesa.- (Haserre) Juanita, Juanita! Ez gaitezen hasi.

- V -

- Felipe.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da. Hirurogei tabost urte ditu. Etxean egoteko txabuxa zotilarekin dator eta oinetan etxe oskiekin). Zer gertatzenda horrelako deadarrekin? Zer da hau, jauretxea edo zoroetxea? Noiz lasai bizi behar gara?
- Markesa.- (Haserre papera eginaz) Jakina, zuek zeuen paper zaharrekin eta zaletasunekin, dena erretiluan eman ezkerro bapo bizi zerate beste ezer kezka gabe. Fernando ia etxera heldu da, atzo arratsaldeko lauretan Paristik irten zuen.
- Felipe.- (Harrituta) Arraroa da, bere arrebaren ezkontzako ezin etorri izan zuen eta orain zer dela eta dator? Orain ez al ditu ikertzapen garrantzitsurik?
- Markesa.- Hiru hitzaldi ematera dator.
- Felipe.- (Harrituta) Hitzaldiak? Zeri buruz?
- Markesa.- Nik zer bakit ba, Paristik hitz egin ditanak besterik ez dit esan eta.
- Felipe.- Oraingo gazteen txorakeriren batzu izango dire
- Markesa.- (Haserre) Eta zer? Lau urtetan semea ez duzu ikusi eta hori da harrera. Hori da aita baten semearenganako legea? Zergatik behin Indietara ez duzu bidaltzen? Horrela lau urteren lekuan zortzi urtetik bein ikusiko zunuke.
- Felipe.- Hogetazortzi urtetako semeari nork agindu behar dio zer egin beha duen? Nahi duen lekuetara eta nahi duenean ez al da joaten? Hala zure gonabarrenetik oraindik ibili behar du?
- Markesa.- (Furfurdiatsu) Aitaren eta Semaren! Horrenbesterainotxe zure duintasuna heltzen da. Ondo daude dauden hilobietan Saturrarango markesak, Espaniako Haundizkiak, erregeen harreman minak.
- Felipe.- Eta gainera lukainka saltzailearen aitaginarreba, ez da hala?
- Markesa.- (Haserre) Al (Lepoa tente-tente duela eskuiko atetik dijoa).
- Felipe.- Egia erregarria.

(Une hontan berebil baten turrun bereziaren deia entzungo da, markesak behatokiko errezela artetik begiratuko du). Heldu da! Heldu da! (Ezkerreko ate txikia ireki et aoihu egingo du). Antoni! Juan Jose! Atadira jetxi eta seinoritoaren zorroak jaso! (Felipe eta Juanitari) Zuek ez zoazte ateraino?

Felipe.- Ohitura horren berri Fernandok ondo daki, zuk ez al zenion ba erakutsi. Erakuspenak alperrik dira.

Markesa.- Petrala! (Ezkerreko lehenengo atetik jaongo da eta Felipe aulki baten jarriko da).

- VI -

Felipe.- Nola zaude gaur Juanita?

Juanita.- Nerea jakina da, beti bezala Jaungoikoak nahi duen arte.

Felipe.- Baina Juanita, erremediorik ez duen gertaldiekin ez zaite itsumendu, biziak oraindik asko eman diezazuke, eta hartzeko ger zaite.

Juanita.- Ez aita ez, biziak eman ahal diezadaken zoriontasuna nere bihotzetik aldedu zidaten.

Felipe.- Baina hori ez da jokabidea, hori...

Juanita.- Aita ez jarraitu, ez hilda gero ere Antonio iraindu, nere bihotzak lurra gabe itun bizi nahi du, ez du beste zorionik behar, zorion bakarra bera zen, eta hil...

- VII -

Fernando.- (Hain zuzen, une hontan Fernando sartuko da. Garaia, galanta eta zotila da) Nun da etxe hontako jendea nere bila bide erdi atera gabe? (Juanita aulkitik jeikitzen da eta Fernandok luzaroan besarkatzen du) Nere arreba maitea, Saturrarantarren lorarik apainena, zenbat aldiz besarkada honetaz ames egin dut.

Juanita.- Fernando ... zu hemen egon bazina ... zu hemen egon bazina ez ninduten enganiatuko ... eta Antonio biziko zen.

Fernando.- Ixo Juanita, ixo, gero lasai hitz egingo dugu (Juanitari aulkian jarerazten dio) Zer moduz aita? (Aita semeak besarkatzen dira).

Felipe. - Ez dakit zer esan, denbora hiltzen ... baina zuk zer diozu?

- Fernando.- Ondo, oso ondo, nere lanetan buruausten. Hamaikagarren belaunaldiraino heldu zara?
- Felipe.- Bai zera, zehaztasun aparteko bat harkitu dut, hamargarren belaunaldian nere azaba bat zure amaren arbazoetako batekin ezkondu zen.
- Fernando.- Egia da orduan istorioa errepikatzen dela, Kondairaren Akademiari jakinarazi diozu? (Algara egiten du) Eta zer ziren gure arbazoak, ikazkinak edo txerrizainak? (Algara).

- VIII -

- Markesa.- (Markesa eta bere ondoren Josefina, Fernadorekin etorri den bere adineko neska bat. Ezkerreko ate haunditik sartzen dire) Zer esaten ari zara zoro haundi hori?
- Fernando.- Ama, David erregea ere atzaina izan zen, eta errege izateko Jaungoikoa berak aukeratuko zuen. Gu errege izatera ez gara heldu, baina markesagora bai.
- Markesa.- Zorakeri gutziago eta ia pertsonekin gizon bezala gizalegeak bete.
- Fernando.- (Bapatera kekokira eskuiko eskua eramanez) Ai nere buru txarral (Neskari) Josefina barkatu. Aita, ama, Josefina nere lankiderik zintzoena eta argiena, berari esker nere azterketak bide onetik dijoaz. Nobel saria gutxienez merezi du.
- Josefina.- (Feliperi eskua luzatuz). Urte askoan jauna.
- Felipe.- Askok poztutzen naiz zu ezagutzea.
- Fernando.- Eta hau (Juanitanagatik) nere arreba da.
- Josefina.- (Juanita b esarkatzen du). Fernandok zutaz hainbeste hitz egin izan dit aspalditik ezagutzen zaitudala iruditzen zait.
- Juanita.- Nera anaiak zu berarekin idukitzean sorte haundia du, bestela burua galduko lukeela deritzat.
- Felipe.- Ez da hori tasunik onena hizlari batentzat.
- Fernando.- (Harrituta) Hizlaria?
- Felipe.- Hitzaldiak ematera ez zatoz ba?
- Fernando.- Nola dakizu? Nork esan dizu?
- Felipe.- Amak.
- Markesa.- Ez dakit neri nork esan didan, gizon baten ahotsa zen eta prantzesa zen.
- Fernando.- Inori esan diogu?

Josefina.- Ez nik dakidala.

Markesa.- (Elkarrizkte ebakiaz) Anderelno, neskameak zure gelara eramango zaitu.

Josefina.- Eskerrik asko markesa anderea, nere bidaiari jarraitu behar diot, sendia zain dut.

Fernando.- Gure liburutegia ikus dezan ekarri dut, hurrengoan liburuak iruntziko ditu, gaur astirik ez du. Kontuz aita, liburuei hautsa kentzen diezu? Edozer modutan tratatzen badituzu, Josefinak gobernuaren aurrean salatuko zaitu. Goazen ikustera, atoz Juanita. Aita zure aurkikuntzak ere erakus zaiguzu.

Markesa.- Bai zoazte, bitartean bazkaria zertan den begiratuko dut. (Felipe, Fernando, Josefina eta Juanita ezkerreko ate haunditik joango dire).

- IX -

Markesa.- (Eskuiko eskuabihotzera eramanez). Jaungoikoari eskerrak. Nolako izualdia igaro dutan, "Josefina nere emaztegia" esanez aurkeztu behar zuela iduritu zait? Azkar ibili beharko naiz, hain zolia bada. Nungoa ote da berau? Maila apalekoa dirudi, baina berezko zoilatasun ikututa du, eta kezagarriena, ausarta da, zain egon gabe Feliperi eskua luzatu dio, oraingo gazteak, ... markes bat maila gabeko pertsona balitz bezala tratatu du. (Ikara plantak eginaz) Eta egin dudana hanka sartzea? Nola aipatu dut hitzaldiak ematera datorrela? Han ez badiote inori esan, nik nola nekien? Nork esanda? Hemezortzi urtetako tentel jendetasun gabeko batek ere ez zuen horrenbeste egingo, zer asmatu behar dut orain? Gezur batek gezur txorta ekartzen duela? Egia da. Nikanoraxori esan beharko diot, ez dezagun bion artean ehiza uxatu. Baina nola? Nikanoraxo bazkaltzen gera araztea erabaki dut, baina nola orain? Zazpi lagun batuko gara eta sei oilagor besterik ez dugu edukiko. (Pentsakor) Gorgorniok askotan bezala huts egingo baligu... Nun ote dabil bera bere lukainka usainarekin. Gizonaren seta, hainbeste morroi eduki bere oletan eta dena berak zaindu behar. Etxerakoan oinetakoak eta jantziak aldatuko balitu ezer ez, etxeak ere lukainka ola dirudi. (Ate txikia ireki eta dei egiten du) Paulal

Paula.- (Barrutik) Bai andre markesa.

Markesa.- Azkar atoz.

Paula.- (Barrutik) Bai markesa andrea.

Markesa.- Honek askotan sorgina dirudi, eta nork daki zer ebazpide eman dezaken? (Pentsakor) Bulegoan balego ...

- X -

Paula.- (Sartzen da) Markesa andrea.

Markesa.- Bixiguak ekarri dituzte?

Paula.- Bai andrea, ederrak benetan.

Markesa.- Eta oilagorrak?

Paula.- Juan Jose ez da oraindik etorri.

Markesa.- Ustegabeko zailtasuna sortu zaigu.

Paula.- Pentsatu dut.

Markesa.- Zer egin genezake?

Paula.- Beharbada Gorgonio ez da bazkaltzera etorriko.

Markesa.- Baina zihurtasunik ez dugu.

Paula.- Ez, hori ez.

Markesa.- Begira Paula, Gorgonioren bulegora deituko duzu eta mandatu bat emango duzu, gizon batek deitu duela esanaz Arrateko jatetxean D. Emeterio bazkaltzeko zain egongo dela.

Paula.- Baina nork deitu duela? Badakizu zehaztasun hori jakin nahi izaten duela, azkenengoan ere etxetik kanpora bidaliko ninduela mehatxatu ninduan, oraindik dardarka jartzen naiz gogoratzen dudak bakoitzean.

Markesa.- D. Emeteriok berak deitu duela esango duzu, hura urrutikoa da, eta sinistuko du.

Paula.- Beldurra ematen dit ... nundik deitu duela?

Markesa.- Zuk ez dakizu, horixe esan dizute, une hartan aretoan inor ez zagoen, eta telefonoa zuk hartu duzu.

Paula.- (Zerbait entzungo balu bezla) Han, Juan Jose heldu da.

Markesa.- Tira, hitz egin ezazu.

Paula.- (Entzungailoa hartu eta eskutokiari eragiten dio) Andereino, mesedez zero, bi, bostarekin.

Paula.- Eskerrik asko.

..... -

Paula.- Mesedez D. Gorgonio.

..... -

Paula.- Baina hau garrantzizkoa da.

..... -

Paula.- (Markesari) Inork deitzen badu ez dagoela esateko agindu du.

Markesa.- Agindua ederki bete dute.

Paula.- D. Gorgonio, D. Emeteriok Arrateko jatetxean bazkaltzeko zain egongo dela deitu du.

..... -

Paula.- Zer ... zer ... zer...

..... -

Paula.- (Entzungailoa dindilizka utzi eta eserlekuan jartzen da)

Markesa.- (Entzungailoa hartu eta belarrira eramango du eta gero bere lekuan utziko du. Kezkakz beterik hitz egingo du). Zer gerta zaizu?

Paula.- (Ahoari zirkín eragiten dio baina ez dio ahotzik irtetzen)

Markesa.- (Zorrotz) Emakume, hitza joan zaizu hala?

Paula.- (Buruarekin baietz).

Markesa.- Ondo gaude orduan, tira, lasaitu zaite, etxe hontan neuk agintzen dute eta, ez zaitu inork aterako.

Paula.- Hil ... hil ...

Markesa.- (Larri) Hil zein, Gorgonio?

Paula.- (Buruarekin ezetz) Don ... D ... E... me... terio.

Markesa.- Hain zuzen.

Paula.- Ia ... ia... infernutik etorri den esan dit.

Markesa.- Zuk D. Emeterio entzun duzu.

Paula.- Beste ... gauza bat e... egin genezake.

Markesa.- Zer gauza?

Paula.- Sei oilagor eta usakume bat ipiniko nituzke, eta...

Markesa.- Eta zer?

Paula.- Bedori lehengo zerbituko denetik...

Markesa.- Baina ez dute igarriko?

Paula.- Ez andrea, denak saltsa batekin estaliak egongo dire.

Markesa.- Orduan nola jakingo dut usokumea nor den?

Paula.- Besteak sabelaz behera ipiniko ditut eta usakumea hakazgora.

Markesa.- Ia ba ondo irtetzen duen, gaurko bazkaria garrantzi haundikoa da eta, lanean has zaite.

Paula.- Bai markesa andrea (Ezkerreko ate txikitik joango da).

- XI -

Markesa.- Hau goiza, ez dakit zertan bukatuko dugun. (Telefonoaren entzungailoa hartu eta eskutokiari eragiten dio) Andereino, mesedez bat, bi, bostarekin.

..... -

Markesa.- Eskerrik asko. (Pizkaten egongo da) Noratxo?

..... -

Markesa.- Entzun, eragozpen bat daukagu.

..... -

Markesa.- Zer, esaten duzu? Konturatu ere egin gabe Feliperi esan diot Fernando hitzaldiak ematera datorrela.

..... -

Markesa.- Eta zer, diozu? Berari galdetu dio ia hitzaldiak ematera ez datorren.

..... -

Markesa.- Besteak berehala galdetu dio ia nola dakian, zeinek esan dion, berak ez diola inori esan eta.

..... -

Markesa.- Larritasun ederra igaro dut, Paristirk gizon batek esan ditala esan diot, eta prantzesa zela.

..... -

Markesa.- Ene! Ene! Ene! Jakingo balu gure gauza dela akabo gure amesak.

..... -

Markesa.- Ikastetxekoei esan beharko diezu gu izan geranik ez deza-tela esan, gu arloan sartuak gaudenik ez dezala igarri.

..... -

Markesa.- Oraingoan urduri nago, zure esku ba dena. Amaitu, norbait dator eta... (Ate txikitik joango da eta era berean ate haunditik Fernando eta Juanita sartuko dire).

- XII -

Fernando.- Pizkaterako jakia badute, Josefina ikerlari trebea da eta orain ez da ezerekin gogoratuko. (Ateak ondo itxita dauden ikusiko du) Horman begiak eta sasia belarriak. Etxe honek isileko ate eta lekuak ez ote dituen behin baino gehiagotan pentsatu dut. (Aulkietan jartzen dire). Juanita, zer gertatu zen zure ezkontzarekin? Zergaitik hian bapatera ezkondu zinen? Zergertatu zen? Garai batean gure mailako hainbeste mutil zure ondoren zebiltzan, eta zergaitik Gorgoniorekin ezkondu zinen.

Juanita.- Duela hiru urte, San Pedro Goizean, Mutrikuko elizara urtero bezala meza entzutera joan ginen. Meza bukatu zanean, Deun Pedroren Kofradiako Arrantzaleen Batzordeak ohi duen bezala aurreku bat dantzatu zuten. Txalo artean aurrekuarentzat atera ninduten. Dantzaria, trebea, iaioa eta galanta zen. Sokara joan nintzen,

Fernando.- Ordeko neskarik ez zituzten atera hala?

Juanita.- Galdetu zidaten eta neure borondatez sokara joan nintzen. Dantzariak estropoa ematean, "eskerrak horregatik", apal, irripar atsegin batekin esan ziran. Gero dantzan egin nuen.

Fernando.- Baina bazekizun?

Juanita.- Bai, amainudeanean Karmentxurekin eta Jose Manuelekin ikasi nuen. Jendeak hunkituta txalotu ninduen. "Badaki", "badaki", esaten zutela entzun nun. Aurreku bukatu zanean, beste neskarekin batera pontxea hartzera joan nintzen. Gero Antoniok aita eta amarengana lagundu zidan. Ordurako berarekin maitemindua nengoen.

Fernando.- Arrantzale batengaz?

Juanita.- Bai, arrantzale bategaz, baina Fernando, sinis zaidazu, gure mailakoen artean mutil galantagorik, jatorragorik eta onagorik ez dago.

Fernando.- Maitasuna itsua dela esaten dute.

Juanita.- Ez uste izan, nik behintzat zoriona argi eta garbi arkitu nuen. Antoniok begiekin hitz egiten zuen. Bere begi beltz ederrak, ontasuna, zuzentasuna eta bihotz ederraren jabe zela esaten zuten. Irripar egiten zuenean, hortz zuri ederrak erakutsiaz aderazpen zoragarria zuen. Nor zen, nolakoa zen, bide onez eta zehatz jakin nuen. Herri guztiak ososorik maite zuen, denekin zintzoa zelako. Itsasoan langilea eta trebea zen. Herriko edozein neska berarekin begi itsuan ezkonduko zen. Ez nuennahi izan beste asko bezala bere ondoren hasi. Beldur nintzen bere apalatasunaren eraginez atzera egingo ote zidan, tea egun batez etxera etortzeko deitu nion.

Fernando.- (Harrituta) Zeuk? Zeuk deitu zenion?

Juanita.- Bai Fernando, neuk deitu nion. Noia arrantzale batek bere bihotzean niganako maitetasuna nabaitu arren, ausartasunik edukiko zuen markes batzuen alabari berarekin ezkontzeko eskatzeko? Ez zen behin ere ausartuko, eta nik nere zoriontasunerako aukera galduko nuen. Leialki, apal eta zintzo hitz egin nion. Aspalditik berarekin maitemindua nengoela esan nion, berak nahi bazuen berarekin betiko izango nintzela, ez nuela ezergatik utziko, eta egia zela zin egin nion.

Fernando.- Harrituta naukazu, eta berak nola erantzun zizun?

Juanita.- Bere begi ederren begirada jator bategaz begiratu zidan, une batetan isilik egon zen (une luzeagorik behin ere ez dut nabaitu) eta bare eta geldi hitz egin zidan. "Zer esaten didazu Juanita? Zer da hitz hori? Tentatzen ari zerala traza badirudi, badakit ez zaitala zure mailarik tokatutzen neri, mesedez ez burlarikan egin arrantzale honi, neuk ere neure duintasuna badut, arren gogoan eduki ezazu.

Bihotzez hitz eginaz zuritu nuen nere maitetasunetaz. Nere benetasuna eta zintzotasuna ikusi zituen, baina bere txirotasuna eta ezjakintasuna, gure gizarte mailarako ez zituen egoki ikusten.

Ez horren beldurrik izan, diru asko dut eta blok bakarrik elkarrekin izango gara, nere biona izango da, esan nion, eta eskola ikasiko duzu, nahi baduzu, maixurik onenak izango dituzu. Ados jarri ginen hurrengo urtean ezkonduko ginela, bitartean oraingoz, molde oneko bideak ikasiko zituela, eta D. Sigfrido Mendozaren etxera Salamankara joan zen.

Fernando.- Ez zenuen leku txarrera bidali. Eta ama?

Juanita.- Besoak zabalik Mendozatarrek hartu zuten, eta astero elkarren berri kartaz ematen hasi ginen. Zorionaren aurea izan zen, ez dut aro hura behin ere ahaztuko. Asteak luzeak egiten zitzaizkidan, eta bere gutunak zorionez zoragarriak. Antonio zein azkarra zen bere gutunetan ezagun zuen, eta D. Sigfridok nolako aurrerapenak egiten zegoen idatzi zidan. Baina zoriontasunez beterik hartzen nituen eskutitzak bukatu ziren, tamalez ez ziren gehiago etorri. Larri behin eta berriz idatzi nion eta D. Sigfridori ere bai, baina alperrik. Salamankara joateko erabakia hartu nuen, baina Antonioren sendian bere hilberriaren agirira hartu zuten, neuk ikusi nuen.

Fernando.- (Zirraratua) Hilberria?

Juanita.- Bai, hilberria, gezurrezko hilberria, baina herri guztiak eta nik netakotzat hartu genuen, nork pentsatu behar zuen halako gaiztakeririk egin zitezkeenik? Beste gezur batekin amak zuritu ninduen hil zela. Gaixoetxe baten gaitz kutsaakor

batekin iduki zutela eta horregaitik bere gutunik ez nuela hartu, kutsatu nintekeen. Antonioren egoneza herri denak nabaitu zuen, hola ez herrian hain maite zuten mutilaren egonezaz ez konturatu? Egia esan behar zen eta esan nuen. Ia zoratu nintzan gero ezbeharra hasi zenean, mirariz burua ez nuen galdu, eta ez dakit hobe izan ez banu behin betiko galtzea, geroztik osasunik ez dut eta zoritxarrekoa naiz.

Fernando.- Juanita ez ezazu horrelakorik esan. Eta amak eta aitak zer zioten?

Juanita.- "Galdu ez diotenez, Antonio Maria", amak esan zidan, "neuk bilatuko dizut beste bat hobea, maiorazko interes, askoren jabea". Nere erantzuna beti bat izan zen, ez neri ama esan horrelakorik, ez dut nik beste gana amoriorikan, ezin alegra leike nere barrenikan, komentzia onak egonagatikan. Ez zuen etsi, bera eta aita ni zuritu nahiean beti gainean eduki nituen. "Utzi batera horrelako lanak", behin eta berriz errepika zidaten, "Ez dituzu ikusten zu bezala damak, nahi badituzu hartu honra eta famak, giatuko zaituzte aitak eta amak". Azkenean nahiz nere bihotzetikan dolua kendu ez, "Gorgoniorekin ezkontzeko zuritu ninduten. Ez nuen maite, baina ona zen. Nere ondoren hasi zen eta ez zekien zer egin ni atsegintzearren. Espania osoan bera baino aberatsagorik gutxi zeuden. Hizketan eta portaeran arrunta da, baina amak dionez tratutako gizona delako da, baina nun parekatuko duzu nere Antoniorekin, bere irripa eta begirada batek ditu denak baino gehiago balio zuten. Ezkondu ginen egunean, elizatik etxera musika eta txalo artean gentozela, bapatera kalean begira zegoen jendea isildu eta giro berezi bat egin zen. Zer gertatu da? galdetu nuen giroaren aldaketaz konturatuta.

- Antonio heldu da - ez dakik nork - erantzun zidan.

- Zer? Ia behea ho nuen.

- Zurekin hitz bi egin nahi lituzke.

Berehala dena utzi, eta jaso zuten lekura joan nintzen. Desmaiatuak ordubete egin zuen, eta gero biok bakarrik utzi gintuzen.

- Antonio bere maitea, bizi zinen, baina nola da hau? Zer gertatu da hemen? Nun egon zara?

- Juanita zure hitza - nere ezkontzako jantziari begiratu zion.

- Nere hitza zintzo bete dut beti zute hilberria hartu nuen arte, eta astero idatzi nizun.

- Joan den aspaldian ez dute zure berririk eduki.

- Nere maitea nik ere ez nuen zure berririk eduki, baina astero esan bezala idatzi nizun, zure hilberria hartu nuen arte.

- Zer ... zer... egin digute... eta nere eskuetan hil zen.

Antonio hil zuten eta ni ere hil ninduten Antonio nere biza zen eta...

- Fernando.- Baina zer gertatu zen? Antonioren hilberria nork bidali zuen?
Nun dire Antonio eta zure gutunak? Nun dire edo nork ditu?
- Juanita.- Ai Fernando, zu hemen egon bazinen ez zen halakorik gertatuko. Ama tartean ibili zen susmua dut, berak Antonio ez zuen ikusi nahi, Gorgonio gure etxera ekarri zuen, berak Antonioren hilberria eman zidan berak zer ikusia du. Maitetasuna baino haundikeria eta dirua beti maitiago izan ditu, eta Antonio arrantzale txiro bat zen. Geroztik osasunik ez dut, lasiter hilko naiz, eta hil aurretik zer gertatu zen jakin nahi nuke. Fernando, arren eskatzen dizut jakitzen lagun zaidazula.
- Fernando.- Bai Juanita, lagunduko dizut, baina nola edo nundik hasi?
- Juanita.- Begira, Iturrino bertsolari konposatzailearen entzutea baduzu?
- Fernando.- Bain, nola ez, Saturrek, pelotalekuko izkaileretan hamalika pelota josi zituen.
- Juanita.- Antoniok oso hartua zuen bere aitaren lagun mina zelako, eta hain zuzen berari galdetu zion herrian sartu zanean zer zen musikarekin honratzen zutena. Antonioren hitz banakak berak jaso zituen eta zihur nago arlo honen muineraraino joan eta egia aterako duela.
- Fernando.- Baina Iturrino nun dago orain?
- Juanita.- Ondarroan bizi da, han Satur Mutrikuarra deitzen diote eta hemen Satur Ondarrutarra, han eta hemen horrela galdetu.
- Fernando.- Ahaleginak egingo ditut, baina Juanita, zuk ere egin osasun hori sendotzeko.
- Juanita.- Fernando nereak egin du, gutxien uste danean kandela ondokinaren argia amatatzen den bezala joango naiz.
- Fernando.- Juanita, Juanita, ez horrelakorikan esan, Antoniori eskatu eta berak lagunduko dizu. Eta orain esan, aitari eta amari esan zenizkien Antoniorekin ezkonduko zinela?
- Juanita.- Bai, ama gora-goraka hasi zen eta aita berotu zuen. Alperrik haserretuko zarete - erantzun zien - ez nauzute mudatuko eternidadean, esposatu nahi nuke kariño onean, Antonio Maria etortzen danean.
- Fernando.- (Zinu eginaz) . Ixol

- XIII -

- Markesa.- (Ezkerreko ate txikitik sartuko da). Hemen zeundeten?
Besteak nun dire?

Fernando.- Haiek paper zahar artean ondo daude.

Markesa.- Ni baino lasaiago daude.

Fernando.- Zer gertatzen zaizu ba?

Markesa.- Bazkaltzeko sei lagun batuko gara eta bost oilagor bakarrik ekarri dizkigute.

Juanita.- Gorgonio bazkaltzera ez dator, gaur goizen esan dit.

Markesa.- Eta nola ez didazu esan?

Juanita.- Noiz dago esan beharrik gure etxean? Beste janaririk ez dago hala?

Markesa.- (Fernandogatik) Bai baina hone gogoko janariak ipini nahi izan ditut.

Juanita.- Banua gelara, sendakaia hartu behar dut.

Markesa.- Baina hartu gero.

(Juanita erantzun gabe eta zinu hots batekin eskuiko atetik joango da).

- XIV -

Fernando.- (Juanitagatik) Ama, hori ondo ez dago, gaizki dago.

Markesa.- Bai, ondo ez dago, baina egiten dioguna baino gehiago zer egingo diogu?

Fernando.- Ama, gauza jakinik ez didazu esan, zer gertatu zitzaion Juanitari mutil arrantzale harekin, eta nola Gorgoniorekin ezkondu zen?

Markesa.- Ez ziren gutunez edo telefonoz esateko gauzak, gainera bere arloa zen, eta berak esan behar zizun.

Fernando.- Baina zer gertatu zen, hain garrantzitsua da?

Markesa.- Hara, zure arrebak zenbat nahi hainbeste mutil ondoren zeuzkan, nolakoa nahi halakotxea har zezakean, baina berak arrantzale ez jakin, basati, arlote, lotsagabe bat aukeratu zuen, arrain saltzaile aurpegihaundia baten semea, mailarik behenetakoenetakoa. Nik ama bezala aholkatu nuen, nola markes baten alaba, Espaniako Haundietakoen alaba bat, erregeen beren lagunen alaba, arrantzaltzale, ez jakin, kizkil batekin harremanetan ibili? Gure gizamailan zer esan behar zuten? Nun uzten gintuzen? Baina bere apeta zen eta berak nahi zuena egin zuen. Egun batez, inor etxean ez geundela, etxera ekarri zuen, zer esan behar zuten jakitzen zutenak? Berak mutil zimarkun lotsagabea zurituko zuelakoan dirua galanki eman zion eta

Salamankara ikaskisun batzuek egitera bidali zuen, eta zer? Hor konpon, dirua zuen artean bapo ibili zen, bere andregaia markesen alaba zela mundu guztiari esanaz, eta beste txorua hemen malkoak eta mukiak zeriola idazten ez ziolako. Bere beharra zuen arrantzaletxoak dirua eduki ezkerro. Gauzak nola dien, nik ez dakit zergaitik, zer egingo zuen, mutilaren sendiak hil zela berria hartu zuen. Txoro honek egin zituen zorakeriak esatekoak ez dira. Egun haietan Gorgoniok eta zure aitak elkarrek arteko salerosketa batzu zirela eta batzar bat eduki zuten, eta hark aitari esan zion, bera tratuetako gizon bezala, maitasun arloan ez jakina zela, ez zekiela nola Juanitari maitasuna aitortu, baina berarekin maitemindua zegoela eta ezkonduko zitzakeela. Hizketan horrelakotxea da, zuzenean arlora joaten dena. Bere ondoren ezin esan hala neska zebiltzan, eta berak Juanita nahi zuen. Guk gure aholkua eman genion, gizon ona da, langilea, saiatsua eta aberatsa, aberatsenetakoa.

Fernando.- Baina bere aitona Zubizabalekoen korta mutila izan zen.

Markesa.- Eta Zubizabaleko kondeen alaba Gorgonioren ondoren ibili da. Jakin ezazu, erregeen senideak, salerosketeetan Gorgonioren kideak direla. Nekez batean elu hori zuritu genuen. Pizkatean harremanetan ibili zedin aholkatu genuen, baina ez, bapatera ezkondu eta kitto. Gorgoniok dena Juanitaren begietatik ikusten du eta konformatu zen. Ezkondu ziren egunean, elizatik etxera gindoazela, nun mutil lotsagabe hur aurkeztu zen, jakina, diruak ondatu zituen eta ia beste hainbeste ateratzen ote zuen. Eta gure neska txorua senarra utzi, konbidatuak, Espaniako Haundizki denak utzi eta mutilarengana joan ez zen ba. Gure lotsaria ez da esatekoa, eta pentsa ezazu mutilak aldean zer gaixo ekarriko zuen, gau hartan bertan hil zen. Konbidatuak Udaberriko aretora eramango zuten ezer jakitzeko astirik eman gabe. Ezkonjaia han osatu genuen, eta arratsaldeko zortziretan denak agurtu genituzen. Ezkerrak Gorgonio ona eta ulerkorra dela, bestela konturatzen zara zelako dandana eman behar genuen? Eta hurrengo goizean zoro haundia hiletara alargun estalkiarekin joan ez zen ba. Eskerra denak zekitela mutila nola hiltzen eta gaua nun eman zuen, bestela zer gertatu behar zuen? Gorgoniok zer egin behar zuen? Nork hori eramango zuten? Gorgoniok zer egin behar zuen? Nork hori eramango zuten? Gorgoniok zer egin behar zuen? Nork hori eramango zuten?

Fernando.- Eta Juanitaren gaixoa?

Markesa.- Nik ez dakit zer pentsatu, burutik ote dagoen ere pentsatzen dute, osalariak agindutako sendakairik ez ditu ganoraz hartzen, eta hor dago, eskerrak senar ona daukala eta dena eramaten diola. Eta zuk zer, ez al duzu harremanik inorekin? Zure arremak eman digun buruasterik ez al diguzu emango behintzat, prantzesak entzute txarra dute eta...

Fernando.- Frantzian hemen bezala danetakoan daude, eta han hemengoak daukate entzute txarra.

- Markesa.- Pentsatu markes eta Espainiako Haundietakoa izango zerala, eta belaunaldietako izen onari eutsi eta ondratu behar duzula...
- Fernando.- Esaera hoiek lehengo txorakeriak dire, gure aurretikakoek moro talde bat hil zutelako, ondorengoak ez daukagu zertan beste gizon arruntak baino betebeharrak gehiago eduki, eta maila goragokoak izan behar, gizartearenganako eta lagunhurkoarenganako betebeharrak betetzeak dire ondrazten dituztenak pertsonak, hala ez al dituzu gure mailan perrotxiko ederrik ezagutzen? Zehin hobea, haiek edo Gorgonio?
- Markesa.- Horrek ez du esan nahi, guk betebeharrak berezirik ez ditugunik, gure asabak lehen exenplo ona eman bazute, guk haiei jarraitu behar diegu, ekarri duzun andereinoak neri arrazoiak eman baietz?
- Fernando.- Arlo horregatik ez dugu eztabaidatuko, zer, negu txarra al dator? (Mahai gainean, dauden ardilanakgatik).
- Markesa.- Ez duzu esan lagunurkoarenganako betebeharrak gizona ondrazten dutela? Hona betebeharrak bat, bildotzik daudenak jantzitzea. Txirroi laguntzeko batzar bat daukagu eta jantziak egiten ditugu, lehendakaria neu naiz. Ardilan hoiek hortarako dire, Nikanoratzok bila etorriko da, jantziak egingo dituztenen artean banatzeko.
- Fernando.- Nor da Nikanoratzok?
- Markesa.- Gorgonioren arreba, zuk ez duzu ezagutzen. Beste bat langiliago eta bihotz hobeagorik ez dago, berak lan denak antolatu eta komunizatzen ditu, dirua galanki emanaz gainera, lan hortarako bereiztasunezko gaitasuna du.
- Fernando.- Zer sendi du Gorgoniok?
- Markesa.- Arreba hau, eta salerosketa denak bienak erdi bana dire. Ez dakit kideren bat ez duten hartuko, Gorgoniok dena ezin du eramane eta.
- Fernando.- Nikanoratzok ezkongai al dago?
- Markesa.- Bai.
- Fernando.- Ezkon dadila eta senarrak Gorgoniori lagunduko dio.
- Markesa.- Bai baina, horregaitik ezkontzea ere... Ezkondu nahi lutekenak gutxi ez ditu, baina Nikanoratzok ezkontza horrela ez du ikusten, eta ez du gaizki egiten.
- (Une hartan telefonoaren txirrina entzungo da).
- Fernando.- Ondo da. (Entzungailoa hartzen du eta hizketan hasiko da). Bai Nikanoratzok, neu naiz.
-
- Fernando.- (Agur zinua egin eta eskuiko atletik joango da).

- X -

Markesa.- Bai,nahi duzunean etorri, ardilanak prest daude.

..... -

Markesa.- Bai, askok nahiko dute egin, ekintza honen zale nor ez bada?

..... -

Markesa.- (Ahotsa jetxita) Begira, neuk ezer esan gabe galderak egin ditu, ezin egokiago etorri zaizkit neuk nahi nituenak esateko, ezin leku hobeagoan ipini zaitut. Hitz gutxitan nahikoa esan diot. Pozik nago, gauza ondo hasi da, zureganatuko duzu, ez dut uste gona arloan argiegia denik jausiko da, zu ernai ibil zaite, gero arte, agur. (Entzungailoa utziko du, eta bere artean hizketan jarraituko du). Telefonoari sorgina entzuten egon da eta susmatzen hasiko da Fernando hemen dagoela konturatzen bada. Nikanoratzok ondo ulertu ote dit? Gutun bat bidaliko banio Zoragarria litzake, izena, dirua, tituloa, diru asko, bikote ederragorik... Gure mutila ederra da, baina Kanoratzok ere ... berebiziko bikotea egindo lukete, eta beren ezkontzara Espaniako Handikiak bakarrik konbidatuko genituzke... baina oraindik hasi besterik ez gera egin, sareak ondo botatzen jakin beharbada hemen, sareak ondo botatzen, arrainak merizi du. (Pentsakor) Gorgoniorentzat titulu bat lortu behar nuke, merezimendu gutxiagorekin eman izan dituzte. Bederatzi lantegi berri egin ditu behintzat, herrietan bizibidea ipini, gutxiagorekin batzuk tituluak eta domunak lortu dituzte. Ikusiko dugu, semea markes eta alaba kondesa ez litzaiguke gaizki etorriko, eta ditua galanki gure menpean. Zerba? Gurasoen zeregina seme-alaben etorkisuna zihurtatzea ez al da ba? Orain lakaria ondo jar dezagun, honek otzana dirudi, baina Paristik etorri da eta baliteke zarboa izatea.

- XVI -

(Fernando eta Juanita eskuiko atetik sartuko dire).

Juanita.- Ez dakit, Angel ingeniari egin zen eta Asturiasko mehategi baten zuzendari zegoela uste dut.

Markesa.- Zein Angeletaz ari zarete?

Fernando.- Angel Harrigorri.

Markesa.- Mieresko neska aberats bategaz ezkondu zen eta ola garrantzi haundi bateko zuzendaria da, neskaren aitak bere zuzendaritza eman zion. Jatordua gainean dago eta aitari eta frantzes horri dei egin iezaiozue, eta ... aldatu ere, ohiturak zertan galdu ez dago (Ezkerreko ate txikitik joango da).

- XVII -

Fernando.- Juanita, Nikanoratzko zer modutako neska da?

Juanita.- (Begiradabat bere anaiari zuzenduaz). Zer, konfesio generala egin al duzue?

Fernando.- Baaa... bai.

Juanita.- Orduan badakizu, ona, langilea, atsegina, eta...

Fernando.- Aberatsa, salerosketak aanaia-arrebarenak erdi bana dire.

Juanita.- Hara, irakurgai baten bigarren zatia.

Fernando.- Zer esan nahi duzu?

Juanita.- Zu hain tentela ez zara, baina kontuz.

Fernando.- Kontuz zergatik?

Juanita.- Ernai egon zaite, bestela konturatu baino lehen Nikanoratzok konpromezuan ipiniko zaitu. Oraingo gure markesak egiterau orokorra eginga du.

Fernando.- Etxeria heltzea besterik ez dut egin eta baietz uste duzu?

Juanita.- Zabalkundea egiten hasia da ikusten dutanez, eta zure amaren berri orain ondo dakit. Nola zuk Prantzian inori zertara etorri zeran esan gabe amak bazekien? Prantzesak esan da?

Fernando.- Baina ez didazu erantzun, zer moduzko neska da?

Juanita.- Anaia-arreba biak uztarri batean ondo legozke. Nikanoratzoren ondoren edo bere diruaren ondoren asko dabilta, eta berak inori aurrerapenik ez dio ematen, mojatzarako deirik duenik ez dirudi, zer jokabide darama?

Fernando.- Hori harritzekoa ez da, berak dirua galankidu, maitetasunean sortea izaten badu, zer gehiago eska lezake?

Juanita.- Eta gainera tituluduna lortzen badu?

Fernando.- Zuk ez zenion horri begiratu, Antoniok zer titulu zituen?

Juanita.- Antoniok Gorgonioren diruak eduki zian balitu, oraindik bizirik egongo zen, kontuz ibili zaite.

Fernando.- Ondo dago, gogoan edukiko dut.

Juanita.- Josefina nuntarra da?

Fernando.- Oinatiarra.

Juanita.- Sendagilea al da?

Fernando.- Izatez biologia doktoresea da, baina bere gogoz historialaria da, eta idazlea, hiru liburu idatzi ditu, eta libre dituan ordu guztiak paper zaharren ondoren eta artxiboetan igarotzen ditu.

Juanita.- Gure gizamailakoa al da ?

Fernando.- Mailakoa ... mailakoa... zuk ere maila haintzakotzat al duzu?

Juanita.- Ezetz badakizu, baina gure mailakoek bezala hitz egin dut, hobeto ulertuko duzulakoan.

Fernando.- Bai, ulertu dizut, ez da gure mailakoa.

Juanita.- Laister zure ama markesak zeaztasun danen berri jakingo du.

Fernando.- Jakin dezala, nabarmenenaren berri ez du jakingo.

Juanita.- Konutz, kontuz, kontuz ibili zaite.

- XVIII -

(Ezkerreko ate haunditik Josefina eta Felipe sartuko dire).

Felipe.- Beharbada gutxien uste den epaitegi bateko artxiboan arkitu daiteke.

Josefina.- Epaitegiak baino elizetako artxiboak hobe, hobeto zainduak izan dire badakizu.

Felipe.- Bai, hori baliteke, gainera laguntasun hobeagoa, apaizak beste ardura batekin artxiboak begiratuko lituzkete.

Fernando.- Noren jatorria bilatzen hasi behar duzue?

Felipe.- Hasita dago, Juan de Ganboa, Kastilako artxibo batzuetan Mutrikuarra bezala arkitzen da, eta besteetan Ondarrabiatarra bezala. Hemen alkatea izan zela eta prantzesekin Kastilako Erregeen izenean harremanetan ibili zela garbi dago, baina nun jaioa zen oraindik ez da inun agertu.

Fernando.- Pizkaterako jakia baduzue, hobe litzake Kok-en bazilua nola gainditu arkituko bagenuke.

- XIX -

- Markesa.- (Eskuiko atetik sartuko da eta jantzia aldatua dator). Tira guazen guztiak bazkaltzera. (Jeikitzen dira).
- Felipe.- Ondarrabaian lagunak baditut eta hango elitzetan begiratuko dut, ia zer arkitzen den, eta ondoren Josefina berri emango dizut.
- Josefina.- Ederki, poztuko nintzake ezer arkituko bazenu.
(Eskuiko atetik joango dire eta oihala jetxiko da).

ZAPIA

BIGARREN ATALA

ANTZOKIA.- Lehenengo atalekoa.

- I -

Oihala jasotzean, gizon bat zutunik eta txapela eskuetan duela agertuko da. Txiro baina garbi jantzia dago. Iturrino bertsolari eta doinularia, "Markesaren alaba" istorioa bertsotan jarri zuena da. Hirurogeita bost urte inguru ditu.

- II -

Fernando.- (Ezkerreko atetik sartuko da). Kaixo Satur, zer moduz?
(Eskua luzatuko dio).

Iturrino.- Ondo eta bedori.

Fernando.- Ondo Jaunari esker Satur. Txapela jantzi eta jarri Satur. Zenbat urte ikuste ez zaitudala. Gogoratzen zara zenbat pilota jozi zenizkidan?

Iturrino.- Bai, bedori zalea zen, oporretan egoten zanean pilotalekuan asko jolasten zuen.

Fernando.- Nere lagun Keleo, Martin Tolon, Joxe Kalamax, Joxe Amua etab. bizi dire?

Iturrino.- Bai, badaki arrantzaleak zirela, eta itsasotik bizi dire.

- Fernando.- Atseginez agurtuko nituzke. Lehengo sasoi haiek gogoratzeko. Gogoratzen zara Kasparrek eta nik Kosme Gaztia eta Xexariori irabazten geniola?
- Iturrino.- Bai, pilotan poliki egiten zuen bedorrek.
- Fernando.- Esan didate Ondarroan bizi zela, zergaitik Satur?
- Iturrino.- Bizimoduaren gauzak jauna, badaki ni belagilea naizela, eta hemengo aldean Ondarroan itsasontzi gehiago dagoenetik, han hobeto moldatzen naiz, urte guztiko lana izaten dut, eta bihar edo etzirako txanpon batzu aurreratuko baditut... Orain gainera arrantzaleak itsasontziei motoreak jartzen hasi dire, eta laister bela beharrik ez dute izango, horrelako kontuak atera beharra dago hemen.
- Fernando.- Bai, ondo pentsatzen duzu, baina zu Satur Kubako gudan ibilia zara, eta horregaitik pentsiorako eskubidea duzu, lortzeko ezer egin al duzu?
- Iturrino.- Ez jauna, badaki ezjaninakitsuak eta gorrak bagiran bezala dela.
- Fernando.- Baina zuk irakurtzen, eta idazten badakizu.
- Iturrino.- Bai jauna, ni Kuban postari egon nintzen, idazkiak neuk banatzen nituen, eta askori beren amak zer idazten zien neuk esan behar izaten nizkien.
- Fernando.- Ederki, neuk lagunduko dizut eta lanari uzten diozunerako ia hileroko bat lortzen dugun.
- Iturrino.- Eskerrik asko jauna.
- Fernando.- Ardo pizkat edango dugu Satur? Edo sagardua?
- Iturrino.- Bedorri berdin bazaio, nik sagardoa nahiago.
- Fernando.- Antsomendiko sagardoa edango dugu orduan, neu ere desiaten nago (Jeiki eta ate txikia ireki eta dei egingo du) Antoni! Mesedez atoz?
- Antoni.- (Barrutik) Bai Jauna.
- Fernando.- Ekariezaguzu sagardo botila bat eta bi edontzi. Antsomendiko sagardoa izan dadila.
- Antoni.- (Barrutik) Bai jauna.
- Fernando.- Eta arrantzaleak zer moduz dabilta Satur?
- Iturrino.- Poliki jauna. Negua ondo joan da, bixiguak poliki eman zuen eta antxoa ere ondo dijoa, atuntsoak ematen badu zor guztiak ordainduko dire.
- Fernando.- Ia ba, asko poztuko nintzake.

- II -

- Antoni.- (Ezkerreko ate txikitik Antoni sartuko da, erretilu baten botila bat eta bi edontzi eramanez). Egunon.
- Satur.- Egunon Antoni, zer moduz?
- Antoni.- Ondo eta zu?
- Iturrino.- Ba Jaunari eskerrak osasuna badugu eta. Izeko Ana Batista nola dabil?
- Antoni.- Badakizu, negua igarotzen danean berbiztu egiten da.
- Iturrino.- Eskumuiak eman nere aldetik.
- Antoni.- Emango diot (Ate txikitik joaten da).

- III -

- Iturrino.- (Fernando sagardoa atera bitartean) Antoni eta ni lengusuak gara.
- Fernando.- Ez nekien, emakume jatorra da, ez zure lengusua delako, baina nere iritziz neskame hobeagorik ez dugu eduki.
- Iturrino.- Bai, horrek ere gajoak mojatzarako asmoa zuen, baina osaba Inasio hil zen eta etxean geratu behar izan zuen haizpa gaztea pizkat hasi arte, baina hura ere gaixotu zen eta bere mojatzarako asmoak hortan geratu zitzaizkion, txiroen gauzak.
- Fernando.- (Edontzi bat Iturrinori emanaz eta bestea berak hartu eta jasoaz). Edan Satur, urte askoan edatekoak izan gaitzela. (Edaten dute).
- Iturrino.- Eskerrik asko.
- Fernando.- Zuk esan duzu Satur txiroen gauzak, baina aberats artean ere... nere arreba Juanita gajoari begira.
- Iturrino.- Nola dago?
- Fernando.- Ondo ez eta gero eta gaizkiago, bere ezbeharra burutik kendu ezinik.
- Iturrino.- Bai, haundia izan zen bai, amodiozko penak minberak eta sakonak izaten dire.
- Fernando.- Satur, Antonio nolakoa zen?
- Iturrino.- Mutil zintzoa, inor zintzoa bazen, egokia, galanta eta trebea edoezen gauzatan. Ez zara gogoratzen? Bere aita herriko patroirik onena zen, arrantzalerik trebeena, eta abeslari ona, elizan makinatxo bat abestu zuen.

Fernando.- Gogoratzen naiz, zein ederki kantatzen zuen "Jesus eta Maria zu hil zinanean (isiilik abestuko du) laguntzen egon ziran Jose zure aldean". Ile zuri-zuria zuen, eta galbaixoe-tako pilota jokoetan tantoak zenbatzen zituen, "Sakeak bost erreztoak lau jaunak". Antonio beraz haren semea zen.

Iturrino.- Bai jauna, zintzoa eta jatorra.

Fernando.- Satur, badakit berarekin harremanak zenituzela bere aitaren lagun mina izan zinelako, zer gertatu zen bere kartekin? Juanitak ez zituen hiru edo lau besterik hartu.

Iturrino.- Antoniok ere ez zituen Juanitarenik hartu, eta hainbeste denboran zer gertatzen ote zen herrira etorri zen. Juanitaren berririk ez zuenetik neri idatzi zidan, eta D. Jose Mariari, baina ez D. Jose Mariak eta ez nik ez genuen kartarik hartu. Hain zuzen ere, Juanitaren ezkontza egunean, herrian ezer ez jakinean sartu zen. Ni neure begiekin egia edo ez ikustearrren Ondarroatik etorri nintzen, eta Juanita zeruko aingeruak bezin zuri eta polit bere aitaren besotik elizara joaten ikusi nuen. Pozezko jantziekin zijoan, baina haren begibitateak ilunak zeuden. (Hunkituta bezala behera begira pizkatean geratuko da).

Ez nuen gehiago ikusi nahi izan, eta Ondarroara itzultzeko Aintzetaneko sagardotegiko atean berebilen zain zengoen. Elizako izkaleretan behera txalo eta soinu artean Juanita bere senarrarekin zijoan, eta une hartan lxakaren berebila geratu zen, neure aurre-aurrean geratu ere. Antoniok irten zuen berebiletik, ikusi nuenean nolako ikara nabaitu nuen, animak gogoratu zitzaizkidan. "Zer da musikarekin ondratzen dutena?" galde egin zuen. Oraindik begien aurrean daukat, arrantzaleak ez bezala jantzia zetorren, liraina, beltzarena eta buruan hemengo ez den txapelarekin. "Markesen alaba ezkondu da", ezagutzen ez zuen emakume batek erantzun zion. Behea jo zuen eta laguntzera joan nintzen. Haitzetaren etxera jaso genuen. Antonio da, Joakinaren semea, beste laguntzaileei esan nien. Desmaiatu ordu bete egin zuen. Bere honera etorri zenean, "Juanita" ! "Juanita"! "Juanita"! hitz bi egin arte", eskatzen zuen. Memexi Haitzetari zinu egin nion Juanitaren bila joan zezan joan zen eta bitartean hitz egin genuen. Juanitaren kartarik ez zuen hartzen eta zer gertatu ote zan zalantzan bizi zen, ezin gehiago eutsi eta egia jakitzera etorri en. Neri idatzi zidan eta D. Jose Mariari ere bai, baina lehen esan dizutan bezela guk ez genuen kartarik hartu eta jakina ezin erantzun. Juanita etorri zen eta biak bakarrik utzi genituzen. Juanitak esango zizun zer hitz egin zuten. Antonio penarekin lerturik hil zen. Juanita eta Antonio biak batera maitemundu ziren, bapaterako maitetasuna biak nabaitu zuten.

Fernando.- Zuk zer gertatu zela uste duzu Satur? Biak elkarri idazen zioten eta ez batek eta ez besteak elkarren kartarik ez

zituzten hartzen, norbaitek bidea izten zizkien, ez duzu uste?

Iturrino.- Bidea moztu bakarrik ez, nork Antonio hil zela bere senideei idatzi zien? Antonioren arrebak, Salamankak epaitegitik seilu eta guztiko agiria hartu zuen Antonio hil zela, nola zitekeenhaiako lege auzte bat egin? Nork zuen ahalmena hura lortzeko?

Fernando.- Ulertzen dizut.

Iturrino.- Hemen postalgoan buru zegoena Ciudad Rodrigora goratuta postalgoan joan zen, zer meritu zituen hark postu hura irabazteko?

Fernando.- Nola zuen izena?

Iturrino.- Primitivo Paredes Siervo.

Fernando.- Entzun Iturrino, zugar sinismen osoa dut eta esaten dizuna sinisten dut, baina zuk zehatz, zergaitik Paredes eta nere amagatik susmoak egiten dituzu?

Iturrino.- Jauna ez nuke nahi beste pertsona bat salatzea edo konpromizuan jartzerik.

Fernando.- Ez estutu Satur, zuk badakizu nigandik okerrik ez duzuela edukiko.

Iturrino.- Baaa, iluntze batzuetan Paredes jauretxea etortzen zen eta auzokoak konturatu ziraden, uste zuten hemengo neskameren baten ondoren zebilela, nere lengusina Antoniri herrian zer zabaltzen asi zen esan nion, eta berak kondatu zidan etxe hontako neskek harrekin harremanik ez zituztela, etxeakoandrearekin egoten zela etortzen zanean, eta hau jaun egia zen.

Fernando.- Satur, ez inori esan arlo hontaz hitz egin dugunik, eta inork galderarik egiten badizu, esan pentsioagatik nerekin hitz egitera etorri zerala...

Iturrino.- Bai jauna.

Fernando.- Eta mesede bat egin behar didazu.

Iturrino.- Nik egitekoa bada.

Fernando.- Zu Iturrino doinularia eta bertsolaria zara, nik zure kantuak entzun izan ditut.

Iturrino.- Baina jauna...

Fernando.- (Abestuaz) "Zu zinan nere izarra eta

Nere maitasun argia,

Benetan maite zintudan baina

Ez zinan perla garbia...

Iturrino.- Gaztetako gauzak jauna.

Fernando.- Eta beste hau, "Traidoreak eta faltsuak

Erdaldun generalak

Ez zituzten kontuan eduki

Fueru eta Lege Zarrak.

Iturrino.- Bai, baita ere...

Fernando.- Ez estutu Iturrino, hortan zu eta ni ados gaude. Orain beste kantu batzu atera behar dituzu, nere arrebaren maitasun historia, zeuk ikusi duzun bezala, eta sentitu duzun bezala. Antonioren izen ona garbi dago, etabakoitzari bere aleporatu behar diezu, ez gehiago eta ez gutxiago, gauzak gertatu diren bezala. Denbora baduzu eta berehala hasi. Nik jakitzen ditudan zehaztasun denak emango dizut.

Iturrino.- Ez dakit jauna, bedorren gurasoak...

Fernando.- Zu ez estutu, honen berri biok bakarrik jakingo dugu. (Eserlekutik jeikiaz) Nik egia nola izen zen karta arazoan baiestatuko dizut, zure kontzientzia lasai gera dadin.

Iturrino.- (Jeikitzen da). Ahaleginak egingo ditut.

Fernando.- Noiz etorri adieraziko dizut, eta ordurako denen berri jakingo dut.

Iturrino.- Ondo dago.

Fernando.- (Eskua luzatuaz) Agur Satur, oraindik zure kantuak entzutetsuak izango dire eta haien bitartez zeu ere bai. Benetako maitealeak ondratuko ditugu, eta bihotz kaxkarrak lotsarazi.

Iturrino.- Hurrengorarte.

Fernando.- (Ate txikia irekiaz) Antoni, Saturri lagundu.

- IV -

Antoni.- (Ezkerreko ate txikitik sartzen da) Seinorito Fernando, markea andreak esan dit areto hau gaur goiz garbitzeko, eta berehala etorriko danetik...

Fernando.- Ondo dago Antoni, lagundu iezaizu Saturri loretegiko ateraino.

Antoni.- Bai jauna.

Iturrino.- Agur eta esker mila. (Eskua txapelera eramaten du).

Fernando.- Gu Satur, lagun zaharrak gara eta ez duzu agur berezirik egin beharrik.

Antoni.- Guazen. (Bigarrenengo atetik joango dire).

- V -

Fernando.- Arrazoia zuan bai Juanitak, ama ibili da hemen diru zikinagatik bere alabaren zoritzarra egiten. (Telefonoko entzungailoa hartu eta deitutzen du) Zer moduz Jesusa?

..... :-

Fernando.- Bai hiru egun dire etorri nintzela.

..... :-

Fernando.- Bai, eskerrik asko, mesedez Madridko bi, hiru, zazpi, seiarekin ia azkar ipintzen nazun.

..... :-

Fernando.- Bai, eskerrik asko Maria Jesus. (Entzun gailoa usten du) Ez dakit Jesusa den edo Maria Jesus den, baina berdin da, emakume jatorra da gure amak ikusi ezin badu ere.

- VI -

(Atean deitzen dute).

Fernando.- Aurrera.

Antoni.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da). Lagundu diot jauna.

Fernando.- Antoni, zure lenguzu Satur, beti gizon jatorra izan dela iduritzen zait, eta arraroa da bera ez ezkontzea.

Antoni.- Andregaia izan zuen, Baretzeko alaba, hark esaten ei zion berarekin ez zuela parterik izango, baina Saturrek ez zion sinesten. Gaur bezala iluntze baten, Saturrek Madalen-txiki egunean aurrezkua dantzatu eta etxera lagundu zion, hurrengo goizean Maritxu moja joan zen.

Fernando.- Arraioa?

Antoni.- Geroztik Saturrek aukerak izan zituen, baina ez zuen nahi izan ezkondu.

Fernando.- Kontxo, kontxo, gure Satur. Madrida hitzaldia eskatu dut, eta deitzen dutenean liburutegira bila etorri.

Antoni.- Bai jauna. (Fernando ezkerreko bigarren atera dijoa, baina telefonoaren txirrina entzungo da eta bihurtuaz entzungailoa hartzen du).

Fernando.- Nor da?

..... :-

Fernando.- D. Jose Maria Ruiz de Oña, mesedez.

.....-

Fernando.- Eskerrik asko.

.....-

Fernando.- Ondo eta zu.

.....-

Fernando.- Hi, gibel haundi, gure masoneriatik bota egingo haur gero.

.....-

Fernando.- Ez barrerik egin, nere zerbitzari zintzoa, nork bidali du gure herritik Ciudad Rodrigora?

.....-

Fernando.- Primitivo Domitilo Paredes Siervo.

.....-

Fernando.- (Harrituta bezala). Nere amak? Zer mesede zor zion nere amak?

.....-

Fernando.- Ondo dago, nere amaren gauza bada zer egingo diogu ba. Entzun beste gauza bat.

.....-

Fernando.- Lagunak zertarako dituk ba? Kontuz ibili hadi, bestela hurrengo haitezkundeetan hemen botu bat bera ez duk jasoko, neu aurkeztuko nauk hire lekuan.

.....-

Fernando.- Asko estimatzen duten gizon bat, Cubako gudan ibilia duk, eskubidea dun pentsioaren ondoren dabil, eta laguntzea nahi dioat, pentsioa lortzea.

.....-

Fernando.- Saturnino Iturrino Agirrebengoa, andaluz garbia.

.....-

Fernando.- Hi Abderramanen ondorengoa ez haiz hala?

.....-

Fernando.- Hik mesede hau egidak.

.....-

Fernando.- Zer? Zer esan duk?

.....-

Fernando.- "Konde de la lukainka" (Algara egiten du eta entzungailoa utzi). Nik barra egin dut baina... ezetz esango, nere ama tartean badabil.

neuk nahi duta izenarekin izan beharko da, bestela xentimorik ez dute hartuko, ez Meategirako, ez Gurutze Gorrirako eta ez berderako.

- IX -

Markesa.- (Eskuiko atetik sartuko da). Ene Gorgonio, hemen zeuden?

Gorgonio.- Bai, Juanitari Soriara nuela esatera etorri naiz.

Markesa.- Okerrik ez baina.

Gorgonio.- Ez, hango ola nola dijoan ikustera nioa, eta orain telefonoko dei baten zai nago Espaniako Banketxeari aholku bat eskatzeko, Muzkiz izeneko herri batetik meategi bateko akzioak eskeini didate, eta ia zer esaten didaten.

Markesa.- Ondo egina, guk ere Somorrostrokoan horrela egin izan bagenu, ez genuen hainbeste diru galduko. Nikanoratzori eskerrak, ondo aholkatu zituelako, Gonzalez Pikabea eta Martinez Arosteginekoak ondo irten zuten.

Gorgonio.- Nikanoratzu gaur ikusi duzu?

Markesa.- Ez, baina ikusiko dut, urteroko ospitalaren aldeko jaia eratzeko batuko gara eta ikusiko dut.

Gorgonio.- Bostehun mila pezetako gorabehera da, eta berarekin hitz egin nahi nuke.

Markesa.- Esango diot, zurekin egon dadila. Jaira etorriko zara ezta?

Gorgonio.- Ez dakit, badakizu Juanitak ez duela gura horrelako lekuetara joan.

Markesa.- Fernandori ere esango diot eta animatuko da.

Gorgonio.- Fernandok nahiko du? Ez dirudi jaizalea denik beti ikerketan dago.

Markesa.- Ez, baina Nikanoratzu ezagutzeko irrikitzen dago eta joango da.

Gorgonio.- Baietz uste duzu?

Markesa.- Bai, eta gainera neuk nahi dut, Nikanoratzu markesa izateko duin ez da hala?

Gorgonio.- Bai, baietz uste dut, baina.

Markesa.- Gure mailara, anaia-arreba biok helduko zarete, bat markesa bezala, eta bestea konde bezala, zergaitik ez?

Gorgonio.- Uste duzu konde tituloa emango didatela?

Markesa.- Bai, emango dizute, herriagatik egiten zaudenagatik eta erakunde asko zor dizute eskuzabalegatik emango dizute, badakizu erregerekin berarekin harremanak ditugula.

Gorgonio.- Baina nik konde izatearekin bakarrik ez dut kezka, zer izen emango didate? Nungo kondea izango naiz?

Markesa.- Ez estutu, hori bion artean erabakiko dugu, orain gure mutila zuritu behar dugu Nikanoratxorekin harremanetan has dadin. (Telefonoko txirrina entzungo da eta entzungailoa Gorgoniok hartuko du).

Gorgonio.- Bai.

..... -

Gorgonio.- Bai andereino ordua zen.

..... -

Gorgonio.- Beste herrietatik ipintzen didate ba. (Markesiari, entzungailoa eskuarekin estaliaz) Sorgin berritxu haumez dakit nola ez duten posturik botatzen.

Markesa.- Utz iezaiozu, sagarra berez arbolatik jausiko da, gero arte. (Ate txikitik joango da).

- X -

Gorgonio.- Espaniako Bankoa?

..... -

Gorgonio.- Bai, Gorgonio Kalderas naiz, eta zezendariarekin hitz egin nahi nuke.

..... -

Gorgonio.- Zuk esan iezaiozu, nor naizen eta hitz egingo du.

..... -

Gorgonio.- Zuk esan iezaiozu gizona, Madarikatua! Komunikapena eten da! Edo ebaki egin dute. (Entzungailoa uzten du eta berihala txirrina entzungo da, entzungailoa hartuko du). Bai, eten egin da. Ia ba, esaten nizun (Pizkatean zain egongo da). Bai, neu naiz Gorgonio Kalderas.

..... -

Gorgonio.- Muzkizko meategiko akzinoak eskeini dizkidate, eta zuk zer derizkiozun.

..... -

Gorgonio.- Ondo da, orduan zerbait jakitzen duzunean deitu. (Entzungailoa uzten du). Arraroa da horrek ezer ez jakitzea, kontuz ibili beharko naiz. Gure atsoak semea zuritu nahi du, bai, tituloa ona da, baina dirua... dirua ikusten du horrek. D. Fernandok ez daki oraindik bere ama zer matraka den,

kostako zaio haren sareak gaindutzea. Konde egin beharko naute, bestela...

- XI -

(Markesa eta Paula ezkerreko ate txikitik sartuko dire)

Markesa.- (Gorgoniori) Oraindik hemen zeuden?

Gorgonio.- Bai, baina banoa, telefono horrekin ezin liteke ezer egin.
(Eskuiko atetik joango da).

- XII -

Markesa.- Zer diozu Paula?

Paula.- Entzun duena, gutxienez ordubete gin dute.

Markesa.- Baina horrek zer du zer ikusi?

Paula.- Ez dakit, baina gizon horrek ezkontzagin entzute haundia du.

Markesa.- Ez dut uste gure mutilak gizon horren beharrik duenik neska bat lortzeko.

Paula.- Ez baina ... gizon horrek Antoniorekin ere harremanak zituen gero, eta beste inork ez zekien Antonioren berri, baina bere diligentziaren zai zegoen, pizkategatik ezkontza ez zuen galerazi.

Markesa.- Ez dut uste zekienik, Ondarroan bizi da eta diligentziaren zain zegoen etxeta joateko.

Paula.- Baliteke, baina ez nau zuritzen.

Markesa.- Entzun, telefonistarekin konfidantzarik ez dut, entzuten egoten da, eta gutun hau Nikanoratzori eraman lezaiozu.
(Kolkotik gutuna ateratzen du eta ematen dio).

Paula.- Erantzunik badu?

Markesa.- Berak esango dizu bai edo ez. Kontuz, gutuna ondo gorde ezazu, eta berehala zoaz.

Paula.- Nagoen bezala banua. (Ezkerreko ate txikitik joango da).

- XIII -

Markesa.- Hau bera ere sorgin polita da, eta beti susmuetan dabil.

- XIV -

Gorgonio.- (Eskuiko atetik sartuko da, eskuetan zorro bat duela). Banua goizkeo iaurak aidean etorriko naiz. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- XV -

Markesa.- Pizkat bada ere finduko balitz ... gezurra dirudi hainbeste urtetan dabilen jende artean ibili eta molde onik ez ikastea. Dirua haitzurka ateratzen du eta tamalgarria da. Gure buru gabeko damarengana joan beharko naiz. (Eskuiko atera dioa eta une hontan ezkerreko atetik Fernando sartuko eskuetan liburu bat duela).

- XVI -

Markesa.- Beleroak zer behar zuen?

Fernando.- (Harrituta bezala) Zer belero?

Markesa.- Ondarroan bizi denak.

Fernando.- Satur nahi duzu esan. Satur Kubako gudan ibilia da, eta zahartzarako militarren eskubideak ditu pentsio bat jasotzeko, eta horixe lortzen laguntzea nahi zuen.

Markesa.- Eta ez zuen beste norbait hortarako? Hain zuzen zu behar zenituen?

Fernando.- (Haserre) Kalteren bat egin dizu Saturrek hala?

Markesa.- Mesederik ere ez.

Fernando.- Zuri egin ez dizuenei makinatxo bat mesede egina zara.

Markesa.- (Eskuiko atera joanaz) Bai, bai, eskerrak emango dizu.

- XVII -

Fernando.- Esan diote nor egon den, Antoni ez zen izango, baina beste santu zahar hori bai. (Ate txikia ireki eta dei egingo du) Paula! Paula! (Pizkatean egongo da eta berriz deituko du) Paulal Paula!

Antoni.- (Barrutik erantzungo dio). Señorito Fernando, markesa andereak enkargu batekin bidali du.

Fernando.- Noiztik sukaldariak mandatuek egiten dituzte?(Atea itxitzen du). (Une hontan telefonoaren txirrina entzungo da, eta Fernandok entzungailoa hartuko du). Bai.

..... -

Fernando.- Bai, baina ez naiz Felipe.

..... -

Fernando.- Ni Fernando naiz, eta zu?

..... -

Fernando.- Al Nikanoratxo, hainbeste entzuten dutan Nikanoratxo azkarra, langilea, polita, abar etabar.

..... -

Fernando.- Eskerrik asko, eskerrik asko.

..... -

Fernando.- Nahi baduzu deituko diot, eta nahi baduzu zure mandatura emango diot.

..... -

Fernando.- Zozketarako txartelak eginak daudela, eta sariak jasotzen hasi beharra dagoela.

..... -

Fernando.- Baina dantzatzen ez dakit.

..... -

Fernando.- Orduan joan beharko, baina gero sosoia banaiz ez dadila inor kexatu.

..... -

Fernando.- Hori aitari eta amari esan beharko, ematen badidate...

- XVIII -

(Markesia eta Juanita sartuko dire eskuiko atetik. Juanitak galtzen dijoanen itxura du).

.....-

Fernando.- Denak zure dirutzarik ez dute.

.....- Bai, bai.

Fernando.- Beharra beti beharko dugu orduan.

.....-

Fernando.- Zer?

.....-

Fernando.- Guntxurdinetako eztula nola osatu edo bada (algara egingo du).

.....-

Fernando.- Bai, bai, ikusiko dugu, ondoezentzako kutunak gertutzen hasi.

.....-

Fernando.- (Algara egingo du) Bai agur. (Entzungailoa utziko du. Juanita aulkian jarriko da).

Markesa.- Nor den horrelako algara gozoak aterazi dizun bitxi hori.

Fernando.- Herriko txirlarririk preziatuena.

Markesa.- Dena dela zure amak hainako grazia badu orduan bertxonak atsegintzeko.

Fernando.- Bai, hori jatorritik ekartzen den doaia da nunbait. Eta gero esan ez dezazun mandaturik eman ez dizutela lekukoaren aurrean entzun, zozketarako txartelak gertu daudela eta sariak jasotzera joatea komeni dela.

Markesa.- Sariak jaso zozketa egin baino lehen?

Juanita.- Emailak zozketarako eman behar dituzten emaitzak esan nahi dizu.

Markesa.- Nikanoratxo zen orduan, bere gain dagozen eginbeharrak dire eta.

Fernando.- Ia zenbat diru ematen didazuten orain, zorrotoa betea eramateko esandit eta.

Markesa.- Hari hori esatea ere gogoratu, eta ezagutzen ez zaituala, hark aterako du zozketan batzuek baino gehiago.

Fernando.- Beste gauza bat ere eskatu dit, hitzaidi bat emateko.

Markesa.- Hitzaldia?

- Fernando.- Bai, Parisen azkeneko eman detan hitzaldia bera, itxuraz herrian genetika nuklearrari buruz aditzen duten asko dago.
- Markesa.- Ez da beharrezkoa herrian egotea, herbestetik ere etorri ditezke.
- Fernando.- Bai, Astigarribiatik.
- Markesa.- Hor konpon, hori nere gauza ez da. Banua, neri tokatzen zaidenetara sari bila joateko aldatzera. (Eskuiko atetik joango da).

- XIX -

- Juanita.- Ez nizun esaten nik?
- Fernando.- Zer?
- Juanita.- Hau dena helbide bat besterik ez da.
- Fernando.- Baina zertarako?
- Juanita.- Fernando, olgetarako gogorik ez dut.
- Fernando.- Juanita, nerekin zurekin lortu zuena ez du lortuko.
- Juanita.- Baliteke ez, baina sareak botatzen hasita dago, eta ikusten dutenaz aspaldi hasia da gainera.
- Fernando.- Oraindik hiru egun daramazkit etxean eta aspalditik?
- Juanita.- Nundik zekien Nikanoratxoak zure Parisko hitzaldien berri?
- Fernando.- Aldizkari batetik.
- Juanita.- Prantziako aldizkari batetik? Prantziako aldizkaria hemen?
- Fernando.- Bai, neuk atzo bidali nion (Juanitak harrituta begiratzen dio). Esan dizut neri ez didatela zuri egindizutena egingo, eta hura ordainduko dutela.
- Juanita.- Ordaindu? Eta zer, horrekin Antonio berbiztuko da hala?
- Fernando.- Eta zuk zer uste duzu, Gorgonio gure sendian sartzea zure amaren lana bakarrik izan dela?
- Juanita.- Baina ama izan zen dena antolatu zuena, badakizu ixilean gure mailakoak nola deitzen dioten? D^ñ Makiabela.
- Fernando.- Ez dut ezetz esaten, baina amak berearekin irtetzeko talde polita maneiu zuen, eta damatxo hori izan zan atalik lagunkorrena.
- Juanita.- Kontuz ibil zaite, ez zaite larregi fidatu.
- Fernando.- Ez, baina hurengorako makiabeelismotasunerako gogoak kenduko diet, gutxienez inor engainatzeko goga. Badakizu Gorgonio konde egin nahi duela zure amak?

Juanita.- (Ustegabeen harrapatuta) Zer? Zer dela eta?

Fernando.- Horrela zu eta ni, biok tituludunak izango ginateke, eta anaia-arreba haiek ere bai.

Juanita.- Jaungoikoa maitea! Gorgonioren aitona kortamutilla zen, eta Gorgonio lukaikagilea, oraingoan aristokrazia dena errepublikano bihurtuko da.

Fernando.- Satur Iturrinorekin egon niaz.

Juanita.- Eta?

Fernando.- Ez dago zalantzarik kartak gordetzea gure amaren gauza izan zela, berak hemengo korrioko buruarentzat Ciudad Rodrigoko korrioetako zuzendaritza lortu zuen.

Juanita.- Antonio gizagajoal (Malkoak legortzen ditu)

Fernando.- Kontuz Juanita, norbait dator.

Juanita.- Eta neri zer?

- XX -

Felipe.- (Ezkerreko atletik sartuko da). Egunon. Josefinak telefonorik ez al du?

Fernando.- Ez, bestela atsedetik hartzen ez diote uzten.

Felipe.- Oraitxe bere laguntasuna behar dut ba.

Fernando.- Berebila hartu eta joan zaite.

Felipe.- Ideia txarra ez da.

Juanita.- Eta kanpora joana bada?

Fernando.- Baina zer da hain behar garantzitsua?

Felipe.- Lope de Agirre nere genealogian arkitzen da.

Fernando.- Baina nola hori arkitu duzu?

Felipe.- Josefinak erakutsi zidan bidea erabilita.

Juanita.- Eta guri aurkitu duzun senidetasun horik zer ardura digu? Pertsonai bere egintzak egiten dute, bakoitza bere egintzen jabe eta, eta Lope de Agirre hura...

Felipe.- Banoa. (Ezkerreko atletik joango da).

- XXI -

Fernando.- Juanita, gogorra zara.

Juanita.- Besterik ez du merezi, behar bezala jokatu izan balu, Antonio biziko zen, amak ez zuen berearekin irtengo.

Fernando.- Juanita... nagon isilik. Goazen loretegira, on egingo dizu.

Juanita.- Neri ez dit ezerk on egiten.

Fernando.- Ez duzulako ahaleginik egiten, eta Jaungoikoak eman digunari eutsi eta hobetzera behartzen gaitu. Gainera zure laguntasun behar naiz, eta goazen hemendik inork ezer susmatu ez dezan lekura.

Juanita.- Nere behar... gizarajoa! Erruki zaitut orduan. (Jeikitzen da).

- XXII -

Paula.- (Paula ate txikitik sartzen da). Egunon, markesa anderea hemen ez dago?

Fernando.- Albiste garrantzitsua al dakartzu beretzat?

Paula.- Bai.

Fernando.- Orduan bere gelan arkituko duzu.

(Fernando eta Juanita, ezkerreko atetik joango dire, eta Paulak eskuiko atea irekiko du joateko, baina han Markesarekin topo egingo du).

- XXIII -

Paula.- Etxeko andrea.

Markesa.- Nikanoratzok zer dio?

Paula.- Esan dit ondo dagoela, baina telefonotik deitzeko.

Markesa.- Bai, sorgin horrekin erreze da.

Paula.- Eta lasai hitz egiteko, telefonistagatik ez arduratzeko, lehenbailehen deitzeko.

Markesa.- Ondo dago, markesari salda eta txakolina eraman, ordua da eta.

(Paula ate txikitik joango da).

- XXIV -

Markesa.- Telefonotik ardura gabe hitz egiteko, eta hain zuzen Paulari esan dio, honek orain badaki telefonista norekin dagoen. Beste bat Ciudad Rodrigora bidaltzera behartuko naute, eta Nikanoratxo azkartzak neukan, oraingo gazteekin ezin daiteke fidatu. (Telefonoaren entzungailoa hartu eta eskukoari eragiten dio). Bai, mesedez, bat, bi, bostarekin.

..... :-

Markesa.- Eskerrik asko. (Zain egongo da). Bai, neu naiz.

..... :-

Markesa.- Bai horixe, ez dakit asmo horretxekin ez den etorri gure trikimailuagatik baino gehiago.

..... :-

Markesa.- Bai, bai, zuen elkarriketaren azkeneko zatia Juanitak eta biok entzun dugu, bere arpegi atsegina ikustekoa zen.

..... :-

Markesa.- Nik ez nekien hitzaldirik eman duenik, nuk nola zekizun?

..... :-

Markesa.- Berak bidaliko zizun, bestela nork? Zuk Prantzian ere harreman asko dituzu, eta beharbada beste zerbait jakineraztearren norbaitek bidali zekizun, baina...

..... :-

Markesa.- Denadela kontuz ibil gaitezen, honek Saturrarantarrok zarbuak dire gero, nere aitagarrebarekin eta bere emaztearekin bizi izan bazina...

..... :-

Markesa.- Egia esan, orain arte ez dit ezertan uko egin, baina begira bere arrebak zer buruauste eman zidan.

..... :-

Markesa.- Zoriona dijoakizu, beste behar den dena baduzu, baina hau garrantzitsua da.

..... :-

Markesa.- Agur maiteño, gero arte. (Entzungailoa usten du). Zertarako karrerak ikaskisunak, ikerketak, hitzaldiak eta berriketak? Inozo-inozo Nikanoratxoren saretan jausiko da. Ezkontza hori ona litzateke, oso ona, baina ez hain errez amor emanda, norperaren buruari garrantzi gehiago eman behar zaio. Beste bat gehiago dela neskak pentsatuko du, bere diruaren atzetik dabilela. Eta guk ere dirua badugu, eta gainera tituloa. Ez gaitezen hemen lukainka txakurraren

ondoren hasi, hori ukainkagileak egin dezatela, zer demontre!
Baina nola gure mutilari ezer esan, lehen Nikanora zerua
baino gorago ipini ondoren? Mutil tentelak oraingoak? Bere
aita zarboagoa izan zen, baina bere aitak bere ama zeukan,
eta hura...

- XXV -

- Felipe.- (Ezkerreko lehelengo atetik sartuko da). Juan Jose etxean
al dago?
- Markesa.- Nik zu beste dakit.
- Felipe.- Neskame-morroiak zure egitekoa ez al dire?
- Markesa.- Eta beren ondoren ibili behar al naiz?
- Felipe.- Agindu iezaiozu berebila ateratzeko, irten egin behar dut
eta.
- Markesa.- Nora zoaz?
- Felipe.- Oinatira, Josefinarekin hitz egin behar dut.
- Markesa.- Joan aurretik gauza bat esan behar dizut.
- Felipe.- Zer gauza?
- Markesa.- Gure mutila, Gorgonioren arrebaren ondoren dabil.
- Felipe.- (Harrituta) Zer?
- Markesa.- Entzun duzuna. Neri ez zait gaizki iduritzen, herriko mutil
goimailakoenak ere bere ondoren dabiltzanean
zerbaitengatik izango da, baina gure mutila danarekin txoro-
txoro besteak bezala ikusterik ez zait ondo iduritzen, bere
buruari garrantzi gehiago eman beharko lioke, neska era
bere ondoren dabilela erakus arazi behar luke.
- Felipe.- Hor konpon, nahi duena egin dezala umea ez da eta.
- Markesa.- Neregatik ere nahi duena egin dezala, lukainkeruen diruen
ondoren ibili gerala entzun beharko dugu, baina hor konpon.
- Felipe.- Ez dute gezurrik esango. Nere jantziak atera ditzatela
agindu ezazu. (Eskuiko atetik joango da).

- XXVI -

- Markesa.- Hori bere amonaren, amonaren, amonaren amonak ardura gehiago ematen dio semeak baino, lukainkerua izan, Asturiako printzesa izan berdin dio, dena neuk egin behar (Ate txikia ireki eta dei egingo du, Antoni! Antoni!
- Antoni.- (Barrutik) Bai andere markesa.
- Markesa.- Azkar zatoz.
- Antoni.- (Ate txikitik sartuaz) Markesa anderea.
- Markesa.- Markes jauna bidaira batera dijoa, lebita grisa atera iezaiozu, eta berarekin dauden jantziak ere bai. Gero Juan Joseri esan iezaiozu berebila ateratzeko.
- Antoni.- Bai markesa anderea. (Eskuiko atetik jaongo da).

- XXVII -

- Markesa.- Noan, noan Nikanorarengana joan beharrean Rosalesenera, hark beti dute albisteren bat, benetakoa edo gezurrezkoa, baina albisteak behintzat, konponduko dire hemen nahi badute. (Bigarrengo ezkerreko atetik joango da, baina irten aurretik Fernando sartuko da eta hartatik).

- XXVIII -

- Fernando.- Zer bederatzihurrenera?
- Markesa.- Zer bederatzihurren?
- Fernando.- Ez al dago ba bederatzihurrenik? Norekin topo egingo duzu bederatzihurrenik ez badago? Nork herriko gorabeheren berri emango dizu?
- Markesa.- Zerbaitegatik ez duzu zuk berririk jakitzen, ez bederatzihurrenetan joango bazina. (Joaten da).

- XXIX -

Fernando.- Huts egin dut, bermuta hartzeko orduan bederatzihurrenaz gogoratu naiz, eta frantzez modak? (Telefonia hartu eta deitzen du) Maria Jesus.

..... -

Fernando.- Zer berri.

..... -

Fernando.- Seguru dago orduan gure markesa anderea?

..... -

Fernando.- Nola ezkontzaren iragarkia? Nere ezkontzaren berria?

..... -

Fernando.- Ausarta eta zartatakoa zela banekien, baina hau benturazale izatea ere bada.

..... -

Fernando.- Bai, Juanitaren arloak nere amaren burutik irten zuen, denak Gorgonioren ondoren zebiltzalako hura aukeratu zuen, berak garaile irten zuen, baina Nikanoratzoren zergatia ez nuen garbi ikusten, hau azkarraz gainera zarboa da, lehelengo anaia, eta gero anaiaren bidez bera, bestela nola sartu gure mailan? Penagarria Antonioren izan zen.

..... -

Fernando.- Bai Maria Jesus, jaramon egin banizu bai, gaur nere arreba zoriontsua izango zen.

..... -

Fernando.- Nikanoratzon proposamena zuzenean egin zizun?

..... -

Fernando.- Orduan amoa zuzenean iruntzi du.

..... -

Fernando.- Esker mila Maria Jesus, badakizu, berri garrantzitsurik gongo balit deitu, agur, norbait dator.

- XXX -

Juanita.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da). Zer darabiltzun jakin nahiteke?

Fernando.- Bai, jakingo duzu, jar zaite. (Juanita aulkian hartzen da)
Antonioren ama ezagutu zenuen?

Juanita.- Bai, ezagutu nuen, Antoniok amaren antz haundia zuen.

Fernando.- Eta Maria Jesus telefonista?

Juanita.- Baita ere ezagutzen dut, Antonioren amak eta berak eliza nagusiko sarrerako kurutzea zaintzen zuten. Han dauden dindilariak ez zaizkit ahaztuko.

Fernando.- Oso lagunak ziren. Maria Jesusek inork baino lehenago jakin zuen Antonioki zer gaiztakeri egiten zeuden, baina telefonoko isilekoak ziren eta ezin zidan esan. Halako batean ezin gehiago eutsi, eta zer gertatzen zen idatzi zidan. Gogoratzen zara aitaren ordezkari ospitalerako batzordeko nola egin ninduten? Maria Jesus ere batzordekoa zen, azkarra eta biotz zabalekoa da, biok askotan bat hartuta ekimenak aurkeztzen genituen, horregaitik berarekin harremanak ditut. Zoritxarrez, esaten zidan nere amaren zerbukeriak ez niozkeen sinistu. Orainzer gertatzen den esan nion, eta berak jakinen gainean nauka nere amak eta andreinoak daramaten jokoa.

Juanita.- Baina hori ezin daiteke egin, aitortzeko isilekoa bezala da.

Fernando.- Beste inori ez dio ezer esaten, neuri bakar-bakarrik, neuk eskatu diotadalako, eta neri zuri bezala gerta ez zaidanegiten du. Beste zirauna ere ez da lo egon, eta badakizu? Berak amarekin edukitzen dituen elkarrizketen ixilekoa seguratzearren, Donostiarako norakoa agindu dio.

Juanita.- Hori dena zikinkeria bat da baina.

Fernando.- Bai, hala izango da, eta nik gutxien uste dutanean Nikanoratzoren eta nere konpromezua iragartzea?

Juanita.- (Oso harrituta) Zeeeeer?

Fernando.- Entzun duzuna, lakaioa gertutzen dagoz, hortan dabilta. Zure arloan korreoko buru egiten zuena erosi zuten, eta oraingoan telefonista erosi nahi izan duten, berari eskerrak gure sendian beste lotsagabekeririk ez da jazoko.

Juanita.- Ez dut ulertzen.

Fernando.- Juanita, Josefina nere andregai da, ez da zurekin gertatu zena gertatuko, ezkontzeko dena gertu daukagu, elizara joatea bakarrik falta zaigu.

Juanita.- Baina...

Fernando.- Antonio arrantzalea bazen, Josefina baserritar txiroen alaba da. San Isidroetan duela lau urte Olatzen ezagutu nuen, eta neuk ordainduta Parisko Notre Damen, mojen ikastetxean ikasten ari da eta haien etxean bizi da.

Juanita.- Orduan historia erreplikitzen da.

Fernando.- Baina azken ezberdinarekin, gauzak okertsen hasten badira elizara joan, ezkondu eta kitto, eta bestela, datorrenikastaroaren azkenean.

Juanita.- Hala bedi.

ZAPIA

HIRUGARREN ATALA

ANTZOKIA.- Lehenengo atalekoa.

- | -

Oihala jasotzean Markesa behatokiko errezela artetik kanpora begira dagoela ikusiko da. Atean deitzendute. Markesa mahai ondora joango da.

Markesa.- Aurrera.

(Ezkerreko ate txikitik Paula sartuko da, eskuetan paper bat dakar).

- || -

Paula.- Arratsalde on.

Markesa.- (Kezkati) Zer duzu? Hori da arpegia dakarzuna.

Paula.- (Larri) Arpegia? Hau irakur beza. (Papera ematen dio).

Markesa.- Zer da hau? Kantapapera?

Paula.- Baina zer kantapaper?

Markesa.- (Irakurtzen hasten da). Baina... zer da hau? Nundik atera duzu?

Paula.- Joakina okindegikoa etorri da eta berak ekarri du.

Makesa.- Baina hark nundik atera du?

- Paula.- Ostegunean kalean zabaldu ei zituzten.
- Markesa.- (Haserre) Baina nork? Nork agindu hau?
- Paula.- Ez dakit, Joakinak ere ez zekien, semeak etxera eraman ei zituzten.
- Markesa.- Hain zuzen gaur, etxea Espaniako Haundikiz betea daukagunean. Norbaitekkordainduko du. Beko aretora zoaz, eta Markes jaunari etortzeko esan iezaiozu, baina bereiz deituaz.
- Paula.- Bai andrea (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- III -

- Markesa.- (Paperari begira eta irakurriaz).

Ezin egon zen ama
Hitz hori zufritzen
Berihala hasi zen
Kartak detenitzen.
Intentzio haundiagoz
Ezkontza galdutzen
Juanitak holakorik
Ez zuen pentsatzen

Lotsagabe basatiak! Baneki horraitik nor izan den, gehiago bertsoak idazten lanik ez leukake, nor den baneki...

- IV -

- Felipe.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da, zotil jantzia dator). Zer degu.
- Markesa.- Zer dugun? Begira hau. (Papera emango dio).
- Felipe.- Zer kantapapera?
- Markesa.- Irakurri ezazu.
- Felipe.- (Betaurrekoak atera sakeletik eta ipiniaz).

Uzi alde batera
Horrelako lanak
Ez ditut nik ikusten
Zu bezala damak
Nahi badituzu hartu
Honra eta famak
Giatuko zaituzte
Aitak eta amak .

Markesa.- (Kantu soinua entzungo da, urruti samarretik dator, baina ulertzen da zer kantatzen dauden). Zer da hori?

Felipe.- Kantuan ari dire eta kantu hauetxek dire, entzun. (Taldea haundi bat dela kantuan dagoena igartzen da).

Amak esaten dio
Juanita neuria
Galdtua diotenez
Antonio Maria
Neuk bilatuko dizut
beste bat hobia
maiorazgo interez
Askoren jabia.

Felipe.- Honetxek dire bai. (Kantuekin batera irakurriko du, ezpainak mogituaz).

Ez neri ama esan
Horrelakorikan
Ez dut nik beste gana
Amoriorikan
Ezin alegra leike
Nere barrenikan
Komenentiza onak
Egonagatikan

Felipe.- Nun ote daude kantuan?

Markesa.- Nun izango da, bestetan bezala Pedro Zinuanekeo sagardotegian, ez duzu esaten ba atzeginez egoten zerala han kantua daudenian?

Felipe.- Ez dut berriketako gogorik.

Markesa.- Alkateari deitu behar zenioke.

Felipe.- Alkateari? Hain zuzen oraintxe dago onena hortarako.

- Markesa.- Zergaitik ez? Zertarako diren alkateak?
- Felipe.- Sartu berriz politika eta hauteskundeetan, ondo irtengo duzu, joan zaite orain mesede eskatzera.
- Markesa.- Ez da mesede eskatzea legea betearaztea baino.
- Felipe.- Zer uste duzu, bizkaitarritza hoiek Jose Kirrillo eta bere lagunak bezala direla, zeuk nahi duzuna egin eta nahi duzun bezela erabiltzeko?
- Markesa.- Zuregatik behintzat errepetatuko gaituzte.
- Felipe.- Zuregatik ere bai, ikusi zen benbat boto lortu zenituen. (Ezkerreko ate txikitik ireki eta deituko du). Paula, esan iezaiozu Juan Joseri etortzeko.
- Paula.- (Barrutik) Bai markes jauna.
- Markesa.- Zer egin behar duzu?
- Felipe.- Honelako egunetan egin behar dena, buruarekin pentsatu.

- V -

- Paula.- (Ezkerreko ate txikitik sartuko da). Jauna, Juan Jose Debako geltokira joanda berebilarekin seinorituari itxointzera, eta oraindik ez da etorri.
- Felipe.- Hori ere hain zuzen orain gerta berhar zen. (Erabakiz) Paula, Pedro Zinuanera zoaz, mesedez berrogeitamar botila sagardo azkar ekar dezala, eta mesedez nere izenan ez gehiago kantatzeko, haundizki asko gure etxean dagozela eta muturtu ez ditezten.
- Paula.- Bai jauna. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- VI -

- Markesa.- (Behatoki ondotik entzuten egongo da, eta bertso hau entzungo da):

Denbora pasaturik
galaia abian
Zer gertatzen ote zan
Haren memorian.
Kartarik hartu gabe

Joan dan aspaldian
Inusente sartu zen
ajio zen herrian.

Markesa.- Ez duzu gutxi uste kantuan dauden arrantzale hoiak Pedro Zinuari jaramon egingo diotela uste baduzu.

Felipe.- Ia ba zuk zer egiten duzun. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- VII -

Markesa.- (Etsi zinuak eginaz). Zer esan behar dute konbidatuak herriaren ahotan kantuetan zabiltzala ikusten dutenean? Lotsaria hau da, zer egin behar dut nik orain? Zer esan behar dute Albakoak, Bernarkakoak, Hermosillakoak etab.? Hau da estutasuna gutxien uste nuenean eta gutxien uste nuen tokitik. Nor dabillega herria xaxatzen? Norbait dator. (Zinua eginaz) Gorgonio. Badakit zer egingo dutan, politika! politika da! Bizkaitarritzen gauza da gure aurka, horixe izango da onena, horrela gainera merituak irabaziko ditut.

- VIII -

Gorgonio.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da, oso zotil jantzia dator). Arratsalde on, etorri al dire jaun garrantzitsu hoiak?

Markesa.- (Nahigabe haundia aurkeztuaz). Leku onean ipintzengaituzte kantuan daudenak, lotsaria hau da eta errespetoa hau da herri hontan daukaguna.

Gorgonio.- Zer kantu edo zer diozu?

Markesia.- Entzun, jakingo duzu.

(Berriz kantua). Hau da lendabiziko

Esan zenuena
Zer da musikarekin
Honratzen dutena.
Markesaren ala
Kalean barrena
Esposario zela
Hark behar zuena.

Gorgonio.- Baina ... nor daude kantuan? Nork... nork erakutsi ditu? Zergatik? Nun daude kantuan?

Markesa.- Nork erakutsi ditu? To (Kantu papera ematen dio eta Gorgonio irakurtzen dagon artean entzungo da.

Desmayaturik egin

Zuen ordubete

Gero nobia eske

Hitz bi egin arte

Inguratu zitzaion

Makina bat jende

Bigarren ordurako

Hiltzan derrepente.

Gorgonio.- Daude pizkatean, ikusiko dugu hurrengo nor hiltzen den (Ezkerreko ate haunditik azkar joaten da).

- IX -

Markesa.- (Kezkati samar) Ez egitekoren batez al du egingo. (Behatokira aurreratu eta erreza artetik begiratzen du). Nortzu etorri ote dire? Hara gure lukainen erregina. Zotila da bai, nundik atera ote du jantzi hori? Dirua du eta, batek badaki, beharbada Prantziatik ekarri du, beste dirudunei ez zaigu horrelakorik burutatzen. Gure mutil tentela liluratuko ez du ba? Beharbada besteren bat ere bai, kontuz ibili beharko naiz. (Deadarrak entzungo dire, haserre deadarrak). Enel Zer da horil Gorgonio! Ai Jaungoikoa!

- X -

Paula.- (Ezkerreko ate txikitik sartuko da eta larri hitz egingo du) Etxeko andrea! Markesa andrea?

Markea.- Zer duzu? Zer gertatzen da?

Paula.- Gaur gauza honik ez, Zinuak esan dit ez dela ausartzen arrantzailei ezer esaten, Keleo denei kantuak erakusten dago, eta arrantzaileak bero-bero daude. Badaki Antonio

ere arrantzalea zen da... Ikusi nautenean, sorginal sorginal
deitu didate, oraindik dardarka nago. Euxebi Txanpelak
esan dit, kanpoko gizon batek edan nahi duten sagardo
dena arrantzailei ordaindu dietela, dena arrantzaleak
sagardotegia eta tolaera betean kantuan daudela. (Kantua
urrutik baina garbi entzungo da).

Amak esaten dio

Juanita neuria.

Galdu da diotenez

Antonio Maria,

Neuk bilatuko dizut

Beste bat hobea

Maiozgo interez

Askoren jabea.

(Gizon eta emakumeen deadar eta karraxiak entzungo dira)
Lukainkas! Txarri belarri! (Tiru bat entzungo da eta Aaaaai!!!
orokorra).

Markesa.- (Larri) Jaungoikoa! Paula zoaz nausiarengana, azkar etor
dadila.

Paula.- Bai andrea. (Karraxiak oraindik entzuten dire).

Markesa.- Jesus! Jesus!

(Deadarrak) Lukainkas ! A tu pueblo! Antonio más que tú!
Buruhaundi!

Markesa.- (Larri) (Beste tiro bat entzungo da eta Markesak orokorrarekin
batera berak ere). Aaaa! Jaungoikoa!

- XI -

Felipe.- (Ezkerreko ate haunditik sartzen da eta larri hitz egiten du)
Zer gertatzen da?

Markesa.- Gorgonio! Tiroa! Bizkaitarritak!

Felipe.- Jaungoikoa! Gorgonio! Noiz etorri da ba?

Markesa.- Etorri da eta kantua entzun dituanean haserrez beterik joan
da.

Felipe.- Orduan tiroak bereak izan dira, arrantzaleak armarik ez
dituzte, banua. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- XII -

- Paula.- (Behatokiko errezela artetik begiratzen du) Ai ama!
Markesa.- Zer da?
Paula.- Gizon bat... gizon bat ... odolez ... Gor ... go... nio ... zet ...
(Behea jotzen du).
Markesa.- (Bigarren atetik larri) Felipe! Felipe! Felipe! Laguntza!
Laguntza!

- XIII -

- Felipe.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da) Zer duzu?
Markesa.- Paulak gizon bat odolez estalia ikusi du eta behea jo du.
Felipe.- Antoniri deitu iezaiozu. (Paularen ondoan belaunikatzen da
laguntzeko).
Markesa.- (Ate txikia ireki eta deika) Antoni! Antoni! Atoz arren!

- XIV -

- Antoni.- (Ate txikitik sartzen da) Zer dugu? Zer gertatzen zaio markesa
andrea?
Felipe.- Atoz ona ia Paula jasotzen dugun.
Antoni.- Ez jauna ez, belarrak, belarrak sudurpean ipini behar zaizkio
bere onera etor dadin.
Felipe.- Zer belar?
Antoni.- Neuk ekariko ditut (Lehelengo atetik joango da).

- XV -

- Markesa.- (Markesa karraxika hasiko da zabalik dagoen ate haundira
begira) Ai! Aaaahi! (Une hontan Gorgonio sartuko da, arpegia
eta jantziak odolez eginaz dakarzki).

- XVI -

- Felipe.- Zer du... (Jeiki eta Gorgoniori laguntzen dio, eta honek eserleku baten jarri eta burua mahai gainean ipintzen du).
- Gorgonio.- Madarikatuak! Denak hilko ditut!
- Felipe.- Zer gerta zaizu?
- (Bitartean markesa telefonotik deitu nahiean dabil).
- Gorgonio.- Ixilik egoteko agindu diet eta gaizkiesana eta irainka hasi dire Traidorea! Borrerua! etanik ez dakit zer irain gehiago esan dizkidaten. Mutil kainkalu haundi bat gainera etorri zait, eta lurrera bota nau. Hil nahi nituan zihur nago, utzi ballote hilko nituan.
- Markesa.- (Telefonotik) Jaungoikoaren izenean ordua da, markesen jauregira sendagilea arin etor dadila.

- XVII -

- Antoni.- (Ate txikitik sartuaz eskuetan belar batzuk dituela) Belarrak! Hemen belarrak! (Gorgonio ikusten duanean) Jesus! (Paulari sudurpean belarrak ipintzen dizkio).
- - (Markesa telefonoan hitz egiteko zain dago).
- Markesa.- Baina atso zahar bat zauritutako gizon batekon parekatuko duzu?
- -
- Felipe.- Maria Juana, beste sendagile bati deitu iezaiozu.
- Markesa.- Nori baina?
- Felipe.- Berroetari deitu iezaiozu, laister etorriko da.
- Markesa.- (Berriz telefonoaren eskukoari eragiten dio).
- Antoni.- Tira Paula, mugitu, onuzkero igaro zaizu eta.
- Paula.- Señorito Gor... Gor... Gorgonio... ikus... ikusi... dut...
- Gorgonio.- Hemen nago ez zaite estutu.
- Markesa.- (Telefonoa) Beriahala Berroeta sendagilearekin ipin nazazu.
- -
- Markesa.- Telefonorik ez duela? Orduan hurrean bizi denen batekin deitu iezaiozu.
- -

Markesa.- (Haserre) Emakumea, Deban telefono bat baino gehiago egongo dira.

.....-

Markesa.- Garrantzitsua da, ia azkar ibiltzen zaren.

Paula.- Ni banua harkaitzeko belarren ura hartzera, lasaitasuna ematen du. (Antoni eta Paula ate txikitik joaten dire).

- XVII -

Felipe.- Baina gero zer gertatu da?

Gorgonio.- Denak gainera etorri zaizkit, eta beldurtzearren pistola atera dut, edontziekin harrika egin didate, eta haietako batek eskuan jo nau eta pistolak su egin du. Batzuek, hill hill deitzen zuten, baina beste batzuek heldu eta atzeko atetik atera naute. Halere nere ondoren etorri dire, harrika egin didate eta buruan jo naute, orduan beldurtzearren pistola atera eta goruntz tiro bat jaurti dut.

- XVIII -

Nikanoratxo.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da, oso zotil jantzia dator). Zer gertatu da? Enel Gorgonio!

Gorgonio.- Ez beldurtu, ez da ezer.

Nikanora.- Ez dela ezer? Ebaki hauek, tronpoilo hauek, eta odolatan zaude.

Gorgonio.- Norbaitek ordainduko du.

Nikanora.- Baina zer gertatu da?

Markesa.- Bizkaitarraztak. Gure aurka kantuak atera dituzte eta etxeko atadira kantatzera etorri dire, ez dituzu entzun? Lurra baino beherago jartzen gaituzte. Antonio hura zen santua eta ona, baina gu ...

Nikanora.- Sendagileari deitu diozute?

Markesa.- Bai, baina baserri bateko atsotxoari laguntzen dago bat, eta Debara besteari deitu diogu.

Nikanora.- Bitartean neuk sendamena egingo diot. Oxigenada eta bendarik etxean baduzue?

Markesa.- Bai, badugu baina...

Gorgonio.- Ez beldurtu, lehen ere egin izan dit.

Markesa.- Berehala dena ekarriko dut (Eskuiko atetik joango da).

- XIX -

Felipe.- Konbidatuei zerbait esan beharko diet.

Nikanora.- Bai, baietz uste dut, zerbait konturatuko ziren eta.

Felipe.- Joango naiz , eta gaurko jaia geratu egin beharko da. Gaina Fernando ere falta da, ez al zuten bizkaitarriztak atxilotuko?

Nikanora.- Fernando denekin ondo konpontzen da, ez diote ezer egingo.

Felipe.- (Arpegi arraroarekin Nikanorari begiratzen dio eta joaten da ezkerreko atetik).

- XX -

(Une hartan ahots eder bat kanpoan kantuan hasiko da).

Amaren malizia

Korriora joan da

Antonio hil zela

Egin zuen karta,

Juanitaren tristura

Maitia izan da

Enganiatu du beste

Gezur bat esanda.

Nikanora.- (Gorgoniori) Zer uste zenuen, hoiek Soriako nekazariak zirela? Nork eramaten du hemen pistola? Halako batean ikasiko duzu asto zahar haundi hori. Zuri zer ardura dizu ba zeuria egin ezker?

Gorgonio.- Zaude ixilik berotzen nago eta.

Nikanora.- Egon pizkatean, bizkaitarriktek berotuko zaituzte. Alkate izateko gogoak joango zaizkizu.

- XXI -

- Markesa.- (Markesa Kurutze gorria dun kaxa haundi batekin sartzen da). Uste dut dena dagola, indizioa emateko orratza ere bai.
- Nikanora.- Bainoan osaketa egingo diogu.
- Markesa.- Ene, nik barrurik ez dut horrelako gauzarik ikusteko. Pizkatean zaudete, Antoniri deituko diot.
- Gorgonio.- Neuk esango diot bainoa nun dagoen.
- (Gorgonio jeikitzen da, Nikanorak sendaki kutxa hartzen du, Markesak eskuiko atea irekita edukiko du eta joango dire).

- XXII -

- Markesa.- (Hau arratsaldea! Agur gure amesak! Eta dena kantu batzu medio direla, baneki nork atera dituen... gizarajoaren arrukarria, kartzelatik hamar urtetan ez luke irtengo. (Berihala ideia on bat eduki balu bezala). Goardia Zebilak! Goardia Zebilak ekarri behar dire, ikusiko dugu nork kantu hoiek kantatzen dituen. (Telefonora dijoa, baina ate onduan ahotsak datozela entzungo ditu eta geratzen da). (Felipe eta bere adineko gizon ondo jantzi bat ezkerreko ate haunditik sartuko dira).

- XXIII -

- Isidoro.- Arratsalde on Maria Juana (Eskuan mun ematen dio) sentitzen dut gertatzen dena.
- Markesa.- Honenbestean bukatu danean... oraintxe dago Nikanor txo Gorgoniori osaketa egiten.
- Isidoro.- Zauri haundiak ditu?
- Markesa.- Edontziak eta botilak bota dizkiote, eta dena ebakiz betea dago, baina bera adoretsu dago, gogorra da.
- Isidoro.- Baina nola gertatu da?
- Markesa.- Hara, aspalditik dator, baina labur-labur kontaduko dizut, jar gaitezen. (Hirurak jartzen dire).

Urtero San Pedro egunean jauretxera etortzen gara udara igarotzera, eta duela hiru urte egun batzu lehenago etorri ginen. Urtero ohi dutenez arrantzaleak meza nagusiaren ondoren aurrekua dantzatu zuten eta gure alaba aurrekua dantzatu zuen arrantzale, arlote, ez jakinarekin liluratu zen, eta berak mutilari ezkontzeko proposamena egin zion. Jakina, hark proposamena eta dirua pozik hartu zituen, eskola ikasteko baldintzetan eman zizkion txanponak batez ere. Mutila joan zen eta kitto. Gure neska tuntuna negarka eta muskilka zabilen, eta bere ondoren gure mailako mutilak ondoren zituela. Azkenean gure esanetara zuritu zen eta Gorgonio aukeratu zuen. Ezkondu ziren egunean elizatik etxera gentozela, abisu bat eman zioten, arrantzalea heldu zela eta ikustera joateko. Mutila diruak ondatu zituanean etorri zen eta zer gaitz ekarriko zuen, nola ibili ote zen, egunean bertan hil zen. Nik ez dakit nork, kankak atera dituen eta herrian zabaldu, arrantzalea maitasunez hil zela, karta hil zela nik idatzi nuela, Juanita nik enganiatu nuela, eta nik dakit zenbat beste gezur eta irain nola hauteskundietan ni erregezaleen alde eta Euskal Herriaren aurka ibili nintzela... bizkaitarritzen gauzak dire. Hortik edo hemendik gure jaiaren berri jakin dute eta irainka hemen dabilta. Gorgonio gizarajoak ondorenak ordaindu ditu, burua ebakiz bete diote.

Isidoro.- Nola dago bera? Nola gertatu zaio?

Markesa.- Lotsagabekeri hoiek entzun dituanen, mesedez isiltzeko esatera joan da eta edontziekin eta botilekin harrika egin giote.

Isidoro.- Eta goarda zebilei ez diezu deitu?

Markesa.- Ez gara gogoratu ere, nik odola ikusi dutanean beste gauza denak burutik joan zaizkit.

Isidoro.- Neuk deituko diet, telefonoa nun daukazute?

Markesa.- Hara hemen nun dagoen . (Erakutsiko du).

Isidoro.- (Entzungailoa hartu eta eskukoari eragiten dio). Andereino, Hermosillako Dukea naiz, mesedez berihala Goardia Zebilekin

..... :-

Isidoro.- Nola, telefonorik ez dutela?

..... :-

Isidoro.- (Telefonoari begira aitaren egingo du eta entzungailoa utziko du). Entzun duzue hau? Eta zer egin behar dute pertsona ondraduek jendaila honen aurrean? Neure menperatzen duten. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- XXIV -

Felipe.- Zuk gizonak berotu, hemen ezegitekoak gerta ditezela eta ikusiko dugu zenbat aldiz gehiago etortzen garen.

Markesa.- Horrek egin duena egin bazenu, gaur gertatu dena ez zen gertatuko. (Kanpotik lehengo ahots ederrak abestuko du).

Alperrik izango dira

Haserre gurean

Ez naute mudatuko

Eternidadean,

Esposatu nahi nuke

Kariño onean

Antonio Maria

Etortzen danean.

- XX -

(Eskuiko atetik Nikanora eta Gorgonio sartuko dira. Gorgoniok burua dena bendatua dakar, eta arpegia zapitxoaz ia estalia.

Markesa.- (Arpegia eskuekin estalia) Jesus! (Negarrak egingo ditu).

Nikanora.- Klinikaren batera eraman beharko dugu, bestela arpegia dena abatonez betea geratuko zaio.

Felipe.- Hurrena Donostian egongo da, eta Juan Jose etortzen denean berebil berria atera eta eraman dezala.

Markesa.- Fernandok lagunduko dio, sendagile artean harreman eta ezaupena asko ditu eta.

Nikanora.- Neu joango naiz, Urrutikoetxea doktorearen emaztea laguna dut eta.

Markesia.- Baina egon Fernando etorri arte, onuzkero laister etxean behardu. (Ahotsa berriz kantari).

Ezin egon zan ama

Hitz hori sufritzen

Berihala hasi zen

Kartak detenitzen

Intentzio haundiagoz

Ezkontza galdutzen

Juanitak holakorik

Ez zuen pentsatzen.

Markesa.- Lotsagabe haundia, baneki nor den.

Felipe.- Talailariaren semea, bestearen lagun mina zen

Markesa.- Egon hadi pizkatean, jakingo duk espetxean egotea zer den.

Felipe.- (Zorrotz) Kontuz, mutil horri ikutu, hori herri denaren ahotsa da, eta ez dut nahi herriarekin korapilorik, entzun duzu?

Gorgonio.- Ezagutzen dutanean garbituko dut.

Nikanora.- Ez ezazu hitzik egin, berotasunean tentelkeri asko esaten dira eta.

Felipe.- Eta egiten dire, pentsatzen nago pistolak ekarriko digun buruausteak, agintzen errepublikanoak daude gero.

Markesa.- Entzun zer bait gertatzen da.

(Karraxiak entzuten dire. Ahots garbi batek dio). Kartzel lukainkero, akel errebolber!

Felipe.- Goarda Zebilak etorri dire.

.- (Ahotsak). Markesak lapurrari karta korrior. (Karraxiak) Fuera! Fuera! (Ahotsa) Ez utzi mutilak, ez utzi! Fuera, a Kantalapiedra! Emakumeak abeslari. (Bitartean gizon deadarrak)

Amaren malizia

Korriora joanda

Antonio Hil zela

Egin zuen karta.

Juanitaren tristura

Maitia izanda

Enganiatu du beste

Gezur bat esanda.

Isidoro.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da)

- XXI -

Felipe.- Zer egin duzu?

Isidoro.- Goarda Zibilak hor daude, pare bat atxilotu dituzte.

Markesa.- Paperak atera dituanak ditu erruak, hura sartu behar lukete.

Isidoro.- Paperak atera dituen eta herriko alkatea, lotsagabeak goarda zibilei geldi egoteko agindu die, pakeak berak egingo dituela eta.

Markesa.- Bizkaitarrizta izan behar, hori Madriden jakinarazi behar da.

Felipe.- Hangoak arraozia eman diezaioten, ez duzu entzun agintariak errepublikanoak direla?

Isidoro.- Horrek zer du zerikusi Felipe? Errepublikanoen gain erregea dago, eta hura errepublikanoa ez da.

Markesa.- Ixol Zerbait gertatzen da, ixilunea dago.

Isidoro.- Alkatea ibiliko da hor arrantzaleak lasaitu nahiean.

Nikanora.- Edo apaiza, horrelako itzala hemen apaizak dute.

Markesa.- Ez nuke ezetz esango hura kantuan ibili direnetakoa ez dela, ezkontzarako obisporik ekartzerik ez zuen nahi izan.

(Ahotsa)

Konformatu ziraden

Elkarren artean

Ezkonduko zirela

Hurrengo urtean

Markesa.- (Ernegazioz behatokiaren leixatilak itxiko ditu eta ahotsa bakunago entzungo da).

Eskola ikasteko

Bien bitartean

Baina ez ziren lo egon

Amaren begiak.

Markesa.- Hori ez dute atxilotuko, baina laister ikusiko du lotsagabe hauñdi horrek.

Felipe.- Konbidatuak etxean al daude oraindik?

Isidoro.- Bai, lorategi ondoko aretoan daude.

Felipe.- Ia ba, zer behar duten ikusi. (Markesari esan dio).

Markesa.- Ai Jaungoikoa! (Feliperi) Esan diezu zer gertatzen den? (Ezkerreko atean deitzen dute).

Felipe.- Aurrera.

- XXII -

Antoni.- (Arratsalde on) Markesa anderea.

Markesa.- Bai.

- Antoni.- D. Inazio sendagilea atzeko atean dago. (Ate txikitik sartu da).
- Markesa.- Ordua zuen, haren zai egon baginen hila zegoen.
- Felipe.- (Gorgoniori) Zer egingo dugu?
- Nikanora.- Donostiara joan inoren zain egon gabe.
- Felipe.- (Antoniri) Esan iezaziozu oraintxe Donostiako klinika batera goazela.
- Antoni.- Bai jauna. (Ate txikitik joango da).
- Felipe.- Isidoro, mesedez behean daudenei esan iezalezu zer gertatzen den.
- Isidoro.- Banua. (Ezkerreko ate haunditik joango da).

- XXIII -

- Felipe.- Tomas kotxeruari deituko diot, eta gertu egon zaitezte.
- Markesa.- (Gorgoniori) Beste traje bat jantzi ezazu. (Gorgonio eskuiko atetik joango da).

- XXIV -

- Felipe.- (Telefonoa hartu eta eskukoari eragiten dio). M^a Jesus, mesedez Tomas Kotxeruarekin ipin nazazu.
- :-
- Felipe.- Zer ba?
- :-
- Felipe.- Ondo dago, eskerrik asko. (Entzungailoa uzten du).
- Markesa.- Zer dio sorgin horrek?
- Felipe.- Tomas ez dago etxean, Gorgoniok tiroarekin zauritu duen mutila Donostiara eramatera joan da.
- Markesa.- Gu lo gauden artean hoiek azkar ibili dire.
- Felipe.- Zaudete, behean daudenak berebiletan etorri dire, eta norbaitek eramango du. (Ezkerreko ate haunditik joaten da).
- Markesa.- Gaur denak oker irten digu, hau eguna.
- Nikanora.- Bai, baina hau dena ondo gertua zegoen.

Markesa.- Gertua? Zergaitik uste duzu?

Nikanora.- Nola zekiten kantuzaleak gaurko jaiaren berri? Nork esan die?

Markesa.- Etxekoak bakarrik genekien, eta herriko lagunak. Badaezpada inori ez dioguz telefonoz esan.

Nikanora.- Neskameak eta morroiak?

Markesa.- Ez, neure buruagatik bezala erantzuten dut.

Nikanora.- Ba kantuzaleak bazekiten, hain zuzen bestela paperak atera eta sagardotegira nola denak etorri dire?

Markesa.- Paperak egunak aurretik zabalduak zeuden itxuraz, gure ogitegikoei mutilak eraman zizkien.

Nikanora.- Eta Fernando? Hain zuzen gaur kanpoan egon behar zen?

Markesa.- Fernando joan diren lau egunetan kanpoan dago, eta orain lau egun inork ez zekien jaiaren berri zeuk eta neuk izan ezik.

Nikanora.- Baina bazekien jaia gaur zela eta ordurako ez da etorri.

Markesa.- Ez dakigu zer gertatu zaion, ez da bizirik badago ere (Zorrotz) beregatik susmatzen duzu hala?

Nikanora.- Askotan bizkaitarritza ez ote den pentatzen egoten naiz.

Markesa.- Jesus! Nola olakorik esan diezakezu?

Nikanora.- Nor dire hemen bere lagunak? Behin ere gure mailakoekin ez dut ikusten, beti arrantzale eta arlote guztiekin.

Markesa.- Hori Saturrarantarrak beti izandute, eta herrian oso eztimatuak dire, mila mesere egiten dietelako.

Nikanora.- Ez haserretu, baina kantupaper hoi en egilea ere herritarra izango da, eta hainbeste eztimatzen bazaituzte, Fernandok laister jakin beharluke nor den.

Markesa.- Esango diot, baina ez dakit atsegin egingo zaion berregatik susmatzea.

Nikanora.- Eta nik zer esan behar dut? Hor behean dagoen jendeak zer dela eta jai hau eratu dugula esan behar du? Zer uste duzu pentsatuko duela? Eta egingo dituzten erazkinak? Horduzkero ez dire konturatu Fernando hemen ez dagoela?

- XXXV -

Felipe.- (Ezkerreko ate haunditik sartuko da). Gertu, Kabeza de Bakak eramango gaitu.

Nikanora.- Neu joango naiz, edozer gauza gertatua ere ni herizaina naiz.

- XXXVI -

Gorgonio.- (Eskuiko atetik sartzen da. Aldatua dator). Goazen.

Markesia.- Telefonoz deitu gero zer esaten dizueten.

Gorgonio.- Bai, deituko dut.

- XXXVII -

Fernando.- (Ezkerreko ate haunditik Fernando sartuko da). Arratsalde on. (Gorgoniori) Zer gertatu zaizu?

Gorgonio.- Zure lagunak kontuak.

Fernando.- Nere lagunak kontuak? Nik lagun jatorrak ditut, zuk adinekoak bai.

Markesa.- (Elkarriketari garraztasuna kentzearen) Baina Fernando, nun egon zara hainbeste egunetan?

Fernando.- Ciudad Rodrigon.

Markesa.- (Harrituta) Ciudad Rodrigon?

Nikanora.- Goazen Gorgonio, berriz odola hasten zaizu eta.

Gorgonio.- Bai goazen. (Presaka bezela ezkerreko ate Haunditik joango dire).

- XXXVIII -

Fernando.- Nora dijoaz?

Felipe.- Donostiako Urrutikoetxea doktorearen klinikara.

Fernando.- Zer gertatu zaio?

Markesa.- (Muxinka) Hai gaurko eguna, ez dut sekula txarragorik igaro.

Fernando.- Baina zer gertatu da, esango didazute edo ez?

Felipe.- Kantapaperak herri guztian zabalduta dituzte gure aurka, Juanitaren ezkontza zela eta ez zeia, eta herriko arrantzale guztiak Zinuaneke sagardotegian hain zuzen batu dira, eta arratsalde guztian kantatu eta kantatu, irainpean eduki gaituzte, eta konbidatuak etxean zeudela, hontarako ezkubiderik badago? Gorgoniok astakeriak entzun ditua-

nean sagardotegira joan eta mesedez isilik egoteko eskatu die, baina ez izeka, irri egin diote eta gainera mehatxatu. Bidaia luzeetan erabiltzen duen pistola bideetako salteariari aurka aldean zeukan eta estutasunean atera du, bildurtuta geratuko ziralakoan, baina ez, edontziekin eta botilekin eraso dute. Edontzi batek errebolberra zeukan eskuan jo du eta hura desarratu da, eta orain jakin dugunez arrantzale bat zauritua dago. Kantapaperak atera dituanak erru denak ditu, hark denen zigorra merezi du.

Fernando.- Eta kantapaperak ateratzeko bide eman dutenak errurik ez dute?

Felipe.- (Haserre) Zer esan nahi duzu kantapaper hoiek egia esaten dutela?

Fernando.- Nork Juanitaren eta Antonioren kartak detenitu zituen?

Markesa.- Baina zorakeri hoiek sinistu egiten dituzu?

Fernando.- Nola hemengo korrioko buru egiten zuenak Ciudad Rodrigoko korriotako zuzendaritza lortu du bera baino meritu gehiagorekin aurretik beste batzuek egonda? Jakin daiteke noren errekomendazioa izan zuen? Zergaitik? (Beste biak ixilik). Zer nahi duzue, zehaztasun hoiek denak kantupaperak atera dituenari ematea?

Felipe.- Ez duzu hori horregatik egingo.

Fernando.- Beren alabaren zoriontasuna birrindu dutenak ez al dute hainbeste merezi?

Felipe.- Nork esan du alabaren zoriontasuna gurasoak birrindu dutela?

Fernando.- Frogak daude. Berak Antonio maite zuen, ez da horrela? Ez zion ezkontzako hitza eman? Pertsona eta kristau bezala ez al zuen jokatu?

Markesa.- Arrantzale, arlote, txiro, ezjakin, nolakoa zen ez zekien batekin? Ez al zeuzkan bere gizamailan hura bestekoak eta hobeagorik? Beregatik sendi denal lotsatu behar al zuen?

Fernando.- Arrantzalea bai, txiroa bai, ezjakina bai, baina arlotea ez, mutil zintzoa, bikaina, jatorra, langiiea zen, txostenik onenak zituen. Txiroa eta ezjakina izatearen erruak ez daguehienetan norberaren errua izan, eta Juanitak aberatsa eta kulturadun izateko bidean ipini zuen, eta (amari) zuk, zuk bidea ebaki zenion pertsona eta kristau legeak ausiaz, beste bat izan bazina, orain espetxean egongo zinen... gaizkileekin batera. Nork ordaindu zuen Antonioren gezurrezko eriotzaren agiria? Eta oraindik herria salatzen duzue? Herriak zuek egin ez duzuen egiten du, Antonio eta Juanitarenganako maitetasuna eta gertatuaren sendimendua erakutsi. Herria zuek ez bezelakoa da, gizaldietan gogoratuko ditu Antonio eta Juanita maitale zintzoak, eta gizaldietan beren istorioa

kantatuko du, eta ondo egingo du, kanta dezala, eskubidea du. Antoniok eta Juanitak kantua merezi zuten, eta zuek ere bai.

ZAPIA